

goiena

ZU HEMEN ZAUDE



Piñero Munduko txapeldun!

Eskoriatzako Atama Kenpo Taldeko
borrokalari Ariane Piñerok
munduko txapelketa
irabazi du Portugalen / 38

Ariane Piñero Atama Kenpo
Taldeko kideekin, eguaztenean,
Eskoriatzan.

XABIER URZELAI

Aniztasuna eta euskara, eskutik

Bihar, zapatua, Auzoko jaia egingo dute Antzuolan; herririk herri egiten duten ospakizun horren laugarrena da / 2



KILOMETROAK 2017 / 21

puntu

Itziar Okariz
artistari
elkarriketa

Isidoro Uribesalgo
eskultore
aretxabaletarra

SINADURAK

AINHOA VITORIA / 8	ANDERE ARRIOLABENGOA / 14
AITOR OROBENGOA / 11	MARINA ETXEGOIEEN / 30
	ANDER ETXEBERRIA / 48

**2 mō betaurreko
graduatu**
erreflexuen aurkako leiarrekin
+
**eguzkitako
graduatuak**
97€

www.multiópticasgipuzkoa.com

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Kultura aniztasuna eta euskara eskutik helduta

Bihar, zapatua, Auzoko jaiaren laugarren edizioa ospatuko dute Antzuolan. Dinamika ludiko eta parte hartzaileen bitartez, jatorri askotariko herritarrak euskarara gerturatzea helburu duen egitasmoa ezagutarazi eta zabalduko dute

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA

Auzoko 2008an sortu zen, Topagunearen eta Uemaren eskutik, jatorri askotariko herritarrak "euskarara gerturatzeke". Debagoienean, sei herritan daude taldeak martxan.

Antolatzaileek nabarmendu dute jaia ez dagoela Auzokon parte hartzen dutenei soilik zu-

zenduta, eta herritarrak animatu dituzte parte hartzera. Dinamika parte hartzaileak izango ditu oinarri. Esaterako, jatorri askotariko janariak probatzeko aukera izango da.

Antzuolako taldea

Duela hiru urte jarri zuten martxan Antzuolan Auzoko. Auzo-

tarren -antzuolarrak- eta Auzokideen -beste jatorri batekoak- artean, hamar bat pertsonako taldea bildu ohi da, eta, Idoia Ramirez de Okariz koordinatzaileak nabarmendu duenez, taldea "dezenete" aldatu da. Hasieran, gizonetakoak ziren gehienak, eta asiarrak nagusitzen ziren. Egun, gehienak emakume hegoameri-



Antzuolako Auzokoko partaideak: Arbulu, Bonilla eta Ramirez de Okariz. M.T.

karrak dira. Lehengo kideetako asko joan egin dira herritik, eta zaintza lanetan diharduten emakume gehiago etorri dira.

Yeselki Bonilla Dominikar Errepublikakoa da, eta urte eta erdi darama Auzokon. Ezagun batek hitz egin zion egitasmoaz: "Hasieran, ez nuen ia inor ezagutzen Antzuolan, eta, neurri batean, isolatuta sentitzen nintzen, baina, gerora, jendea ezagutzen joan naiz, kalean jendea agurtzen, haiekin berbetan...".

Arantzazu Arbulu auzokidea da: "Kanpoan bizi izan naiz, eta badakit zer den hori". Era berean, uste du beste kultura batzuei buruz ikasteko balio duela.

Bertakoen eta kanpotik datozenen arteko kontaktua "aurreiritziak alde batera lagatzeko beharrezkoa" dela azpimarratu du Ramirez de Okarizek.

Auzoko jaiaren Egitaraua

- **10:00** Bergarako autobus geltokian egin dute hitzordua Antzuolara oinez joateko.
- **11:30** Ongi etorri ekitaldia.
- **12:00** Auzoko dinamikak.
- **12:45** Munduko janarien dastaketa.
- **13:15** Dantza saio parte hartzailea.
- **Goiz osoan** zehar Photocall-a



IDOIA RAMIREZ DE OKARIZ
KOORDINATZAILEA

"Auzokoren helburu nagusia da harremanen bitartez aniztasuna bultzatzea herrian; betiere, euskara oinarri izanik".



YESELKI BONILLA
AUZOKIDEA

"Antzuolan integratzeko balio izan dit Auzokok; lagun berriak egin ditut eta bertako ohiturak ezagutu ahal izan ditut".



ARANTZAZU ARBULU
AUZOTARRA

"Uste dut integratzeko ekimen baliagarria dela. Bertakooi beste kultura batzuei buruz asko ikasteko aukera ematen digu".

Goiena Taldea eta Kilometroak lankidetzan arituko dira

Hitzarmena sinatu dute bi erakundeek, aurtien Oñatin ospatuko den Kilometroak 2017 jaia sustatzeko

Eneko Azkarate DEBAGOIENA

Aitor Izagirre Goienako presidentea eta Nekane Artola Kilometroak Kultur Elkartekoak sinatu dute lankidetzaren hitzarmena. Hala, Nekane Artolak bi erakundeon elkarlanaren garrantzia nabarmendu du: "Hitzarmenari esker, Goienako hedabideak gure ekimenen bozgorailu izango dira. Bestetik, ikastolok euskarazko hedabideak behar ditugun bezala, hedabideek ere behar dute ikastolaren eta berau osatzen duen komunitatearen premia eta guk konpromisoa hartzen dugu



Artola eta Izagirre. ENEKO AZKARATE

komunitate horri eskatzeko euskarazko hedabideak kontsumi ditzaten".

Aitor Izagirrek, berriz, zera adierazi du: "Kilometroak Gipuzkoako jairik garrantzitsuenetakoa da, eta, aurtien gure eskualdean tokatzen denez, guretako inportantea da elkarlanean aritzea euskarazko erakundeekin, gure balio eta helburuekin bat egiten duelako. Horrenbestez, modu naturalean hartu behar dugu Kilometroak Kultur Elkartearekin sinatu dugun hitzarmena".

Hitzarmenari esker, Goienak jarraipen berezia egingo die Kilometroak 2017k antolatutako dituen ekitaldiei. Kilometroak 2017k, bestalde, Goienan publizitatea jarriko du deskontu bereziekin; eta euren materiala Goienako bazkideen artean zozketatzeko emango dio Goienari.



GFA

Natura ardatz duen ekimena

Atzo, eguna, aurkeztu zuten Puntak Punta, eskualdeko bidezidorren jaialdia. Lehen edizioa Leintz Gatzagan eginda, aurtengoak maiatzaren 19an, 20an eta 21ean Bergaran izango du gune zentrala. Bertako alkate Elena Letek eta Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Saileko arduradun Joserra Zubizarretak eman zuten ekimenaren berri Diputazioan.

"Estatu propioa behar dugu hobeto bizi ahal izateko"

ARKAITZ RODRIGUEZ SORTUKO BOZERAMAILEA
2026rako independentzia lortzea posible dela uste du Sortuk, eta horretarako prozesuari ekingo diote

Maite Txintxurreta BERGARA

Astean Bergarako Arrano tabernan izan da Sortuko bozeramaile eta Ekintza Politikoko arduraduna. *Independentzia 2016?* izenburupean egin zuen hitzaldia. **Independentzia lortzearen helburua jarrita, zer egitea tokatzen da?** Katalunian egiten ari direna. Lortu behar dugu independentziaren aldeko gehiengoa osatzea, eta abiapuntu dezente hobea daukagu; han, duela sei urte, subiranotasuna apenas heltzen zen %15era, eta Hego Euskal Herrian %25en bueltan gaude. **Kataluniarekin Espainiako Estatuak duen jarrera zer iruditzen zaizu?** Eskoziakoa bezalako prozesu bat gustatuko litzaiguke, Espainiako Estatuak Ingalaterrak bezalako jarrera izatea eta gure etorkizunaz libreki erabakitzen uztea. Zoritxarrez, badakigu estatuak Kataluniarekin izaten ari den jarrera bera izango duela gurekin. Termino politiko eta instituzionalean ere proiektatuko den gehiengo independentista artikulatu behar dugu,

erabakitzeke eskubidea praktikan jartzea ahalbidetuko duena. **Nola irudikatzen du Sortuk balizko euskal estatua?**

Estatu propioa behar dugu, bereziki, hobeto bizi ahal izateko. Independentzia, azken finean, hori baino ez da, zu izango zarela zure buruaren eta zure erabakien jabe. Horrek esan nahi du, besteak beste, erabaki ahal izatea zer-nolako gizarte eta ekonomia eredu eraiki nahi duzun. Estatua nahi dugu, noski, nazioa garelako eta gure kultura eta hizkuntza defendatzeko, baina baita beste gizarte eredu bat eraikitzeke ere.

Zer ekarri du Sorturen birfundazioak? Birfundazioarekin, prozesu soberanistaren motorra puntuan jarri nahi izan dugu. Badakigu Sortuk ezin duela bakarrik burutu hori, eta asmoa da prozesua martxan jartzea horretarako borondatea duten eragile guztiekin. Etxeko lanak egin ditugu, berrantolatu dugu gure burua, eta orain, eragileekin elkarlana bilatzeari ekingo diogu.



Arkaitz Rodriguez, martitzenean Bergarako Arrano tabernan. M.T.

Aldundikoak Debagoienera

Atzo, eguna, Markel Olano diputatu nagusia Arrasateko alkate Maria Ubarretxenarekin bildu zen; gero, Imanol Lasa diputatuarekin batera, Ausolan enpresa bisitatu zuten. Ekiden, Mondragon Goi Eskola Politeknikoan eta Aretxabaletako Otorla enpresan ere izan ziren diputazioko ordezkari gehiagorekin batera, bailara egin duten bisita aprobetxatuta.



AMAI TXINTXURRETA

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest

Haider Etxebarria
Aretxabaleta.
Enpresen Administrazioa
eta Zuzendaritza, 3. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE • MAIATZAK 20*
LARUNBATA, 10:30 / Aretu Nagusia

ORONA IDEO • MAIATZAK 20*
LARUNBATA, 10:30 / Aretu Nagusia

*Batxilergoko 1. mailan dauden ikasleei zuzenduta.

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA • MAIATZAK 18*
OSTEGUNA, 18:00 / Aretu Nagusia

OÑATI • MAIATZAK 25*
OSTEGUNA, 18:00 / Aretu Nagusia

*Batxilergoko 1. mailan dauden ikasleei zuzenduta.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA • MAIATZAK 6
LARUNBATA, 11:00 / Aretu Nagusia

ARETXABALETA • MAIATZAK 6
LARUNBATA, 11:00 / Aretu Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA • MAIATZAK 13
LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

902 110 436

Herria aktibatzekeo nahia, "konponbide justurako"

'Kalera Kalera' ekimenaren baitan herritarrak mobilizatzeko asmoz, ezker abertzaleak hainbat ekitaldi antolatu ditu maiatzerako, "konponbide osoa" lortzea helburu; biharko, preso gaixoen etxeratzea eskatzeko manifestazioa deitu du Sarek, Gasteizen (17:30)

Jokin Bereziartua BERGARA

1977an amnistiaren aldeko mugimenduetan "kolore ezberdine-tako milaka euskal herritarrez osatutako olatua" errepikatu gura du Bergarako ezker abertzaleak, "konponbide osoa lortzeko". Eguazten iluntzean egingako agerraldian, duela 40 urteko borroka gogoratu zuten: "Jose Luis Elkoro eta bere gari-koek oso ongi dakite hori nola lortzen den eta gaur egun ere alboan ditugu, berriz ere herria abian jartzeko. Askatasunaren eta bakearen alde mar-txan jartzeko, *Kalera Kalera* dinamika arrakastatsua izan dadin laguntzen". Elkorok berak ere hartu zuen parte prentsau-rrekoan: "Instituzioetan, noski, egin zen amnistiaren aldeko lana, baina emaitza eman zuen borroka kalean egin zen".

Herri mobilizazio hori lortze-ko hainbat ekitaldi antolatu dituzte maiatzerako. Batetik, Bergaran, antolatutako bi eki-



Bergarako Artatse elkartearen egindako agerraldia, eguazten iluntzean. MIREN ARREGI

taldi daude: hilaren 10ean *Emakumea eta kartzela* hitzaldia Arrano tabernan eta hilaren 12an, *Kalera Kalera* dinamikaren baitan, 19:30etik 20:00etara Bergaran egingo den senideen kon-tzentrazioaren ostean amnistia-

ren aldeko ekitaldia antolatu dute. Argazki erraldoia eta mu-sika emanaldia izango dira.

Gainera, Euskal Herri mailan egingo diren ekitaldietan parte hartzeko dei ere egin du Berga-rako ezker abertzaleak. Hala,

maiatzaren 13an, manifestazioa egingo da Oreretan. Maiatzaren 20rako kartzeletara martxa an-tolatu da eta uztailearen 20tik 26ra bitartean Gernikatik Arbizura egingo den Askatasun Martxan parte hartzeko dei ere egin dute.

Preso gaixoen alde Gasteizera

Era berean, Bergarako ezker abertzaleak bat egin du datozen egunetan presoan eskubideen alde antolatu diren ekimenekin. Bihar, maiatzak 6, Gasteizen, *Preso gaixok kalera* lelopean manifestazioa antolatu du Sarek (17:30). Oñatin eta Bergaran au-tobusa antolatu dute: Oñatitik 16:00etan irtengo da autobusa, postetxetik, eta txartelak erosi ahalko dira Arrano tabernan, Onan eta Bogan. Bergaran, berriz, Arrano tabernan erosi behar dira txartelak eta autobusa geltokitik irtengo da, 16:00etan. Arrasaten eta Aretxabaletan ez dute auto-busik antolatu, baina autoetan gerturatuko dira Gasteizera.

"Arrazoi politikoengatik borrokan"

Ekimenez harago, Bergarako ezker abertzaleak aditzera eman du Euskal Preso Politikoen Ko-

lektiboak (EPPK) laster bukatu-tzat emango duen eztabaida pro-zesuan hartuko dituen erabakiak babesteko konpromisoa hartuko duela eta herritarrak presoak etxeratzekeo bidean mobilizatzen saiatuko direla: "Erabilitako bi-deekin ados egon edo ez, presoek arrazoi politikoengatik egin zu-ten eta egiten dute borroka. Ho-rregatik, egoera politikoa aldatu den honetan arrazoi politikoengatik, preso politiko guztiak etxean egon behar dira. Konpon-bide justuak preso guztien etxe-ratzea eskatzen du, Irlanda edo Kolonbian gertatu den legez, baita Euskal Herrian ere".

Gaineratu zuten euskal gizar-teak erabakitako epeetan eta moduetan askatu behar direla euskal presoak: "Gai honetan ere Euskal Herriak du hitza eta erabakia".

DUELA 40 URTE AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUETAN IZANDAKO "OLATUA" GOGORATU DUTE

Informatikari izateko hezkuntza eskaintza osoa, bailaran bertan

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak eta Arizmendik beste ziklo bat aurkeztu dute; tailer praktikoa, hilaren 10ean

J.B. ARRASATE

Mondragon Goi Eskola Politek-nikoaren eta Arizmendi Ikasto-laren arteko hitzarmenari esker, informatika arloan hutsetik gra-dura arteko bidea egiteko auke-ra izango dute ikasleek Deba-goienetik irten gabe. Ohiko bidea izan da DBH bukatu, batxilergoa egin eta gero unibertsitatera joatea; orain, berriz, toki berera iristeko beste bide bat dago: erdi mailako zikloan hasi, goi maila-ko ziklora pasatu eta unibertsit-atean jarraitu. Bide horretan, lehen ez bezala, gaur egun ez

dago sarrera probarik edo bes-telako oztoporik. Gainera, Ariz-mendiko Lanbide Heziketako arduradun Edurne Erauskinen arabera, hitzarmenak "beste ba-lío erantsi bat" dauka: "Ikaslea urtez urte, zikloz ziklo, murgil-duta egongo da informatika mun-duan. Alde handia dago hezike-ta zikloetatik unibertsitatera heltzea edo bertatik pasatu gabe, hutsetik hasia unibertsitatean". Hala, ikasleek aukera izango dute euren ikasketen ibilbide guztia Mondragon Taldean egi-teko.

Erdi mailakoa: mikroinformatika

Nobedadea da erdi mailako zi-kloa, 16 eta 18 urte arteko ikasleei zuzenduta eta mikroinformati-karen sistemak eta sareak jorra-tzen dituen. "Gure bailaran, heziketa ziklo hau ez da eskain-tzen eta gaur egun berebiziko garrantzia duen sektore batek heziketa zikloetan zuen hutsunea betetzera dator. Zikloa ahalik eta modu praktikoenan plan-teatuko dugu, kontzeptuak eta alde teorikoa albo batera utzi gabe", dio Arizmendiko informa-tika irakasle Beñat Irazabalek. Ziklo horretarako tailer prakti-koa egingo dute maiatzaren 10ean Arrasateko Ferixalekuan (16:00).

MGEpko Gorka Aretxagaren arabera, 2020rako 3.000 lanpostu berri sortzea aurreikusten da telekomunikazio, elektronika eta informatika enpresen sektorean.

ULMA

ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2017ko maiatzaren 12a

Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena

Tokia: MU Enpresagintzako auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2016ko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2017ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2016ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, onartzea hala badagokio
5. Auditoria izendatzea edo berrautatzea
6. Kapitalaren ordainketa. 2016ko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
7. 2016ko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. POGU III-n kooperatiben arteko finantza tresnei buruz ari den III. idazpuruaren aldaketa, hala badagokio
9. POGU III-ren II. idazpuruaren 1.4 atala eta Kooperatibaren Barne Araudiko 82. artikulua 8. eta 9. artikuluen aldaketa, pizgarri kolektiboaren kalkulurako erreferentzi taulak egungo egoerara egokitzeko
10. Kooperatibaren Barne Araudiko 27. bi, 28. bi, 29. bat eta 29. lau artikuluen eta estatutu sozialetan kontseilu sozialeko kideen agintaldia ezartzen duen 48. hiru artikulua aldaketak, hala badagokio
11. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
 - 11.1. 2016an IPDK-etatik egindako erabilari buruzko deskargua
 - 11.2. 2017an IPDK-k aplikatzeko proposamena
12. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
13. Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipena
 - 13.1. Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipenaren bilakaera eta itxiera
 - 13.2. Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipena
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
16. Hurrengo batzarra egiteko lekua
17. Ahalmenak eskuordetzea
18. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkidei gogorazten zaie ULMA Hormigón Polímero, S. Coop.en ("Kooperatiba") egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten. Hala, bazkide guztiei jakinarazten zaie kooperatibaren helbide sozialean dituztela eskura-garri Estatutuaren, araudietan eta POGU III-n proposatutako aldaketen testu osoa eta aldaketa horien justifikazio txostenak, eta horiek denak doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2017ko apirilaren 21a

Gatza eta ura: barnealdea eta kostaldea lotu guran

Oinez, mendiz mendi, taldeka eta erreleboka, Leintz Gatzagatik Bermeora 77 kilometroko ibilbidea egin gura dute, Bizkaiko udalerri hartako Arrain Azoka baliatuta, Gipuzkoako barrualdean ekoizten den gatza kostaldean promozionatzeko

Ubane Madera DEBAGOIENA

"Goizeko lehen argiarekin Gatzagan hasi eta ilundu baino lehen Bermeora mendiz iristea izango da erronka, eguzkiari aurre hartuz. Ibilaldia taldeka egingo da eta ez dago taldeen artean lehiatzeko asmorik, soilik proposatutako erronka gainditzea".

Abiapuntu horrekin, Leintz Gatzagatik Bermeora erreleboka eta mendiz mendi 77 kilometroko ibilaldia egin gura dute. Maiatzaren 20rako, zapatua, da hitzordua, 07:00etan, "eguna argitzean" Leintz Gatzagako Gatz Museotik irten eta "ilundu aurretik", 21:30erako, Bermeora iristeko. Izan ere, asteburu horretan Arrain Azoka ospatuko dute Bizkaiko udalerrian, eta han Leintz Gatzagak bere saltoa izango du, "ekimenaren berri emateko eta baita gatzaren kultura eta produktua bera ere ezagutzera emateko. Tailer batzuk egiteko aukera daukagu -gatza erauztea, gatzarekin plastilina egitea...-, eta proiektore baten bidez ibilaldiari jarraipena egitekoa ere bai", jakinarazi du Joannes Mendizabalek, Leintz Gatzagako Kultura zinegotziak.

Lekuko berezia: ura eta gatza

Ildo beretik, mendi ibilaldian lekukoa eramango dute, taldeek elkarri pasatuko diote: Leintz Gatzagako Hiruerreketako ura eta udalerrian ekoiztutako gatza, pote batean. Eta ibilaldiaren amaieran ongiatorria egingo diete parte-hartzaileei, gatzagarrak zein bermeotarrek, ze "ibilaldiaren helburuetako bat harreman sareak bultzatzea da", esplikatu du Mendizabalek.

Historia, elkarlana eta beste

Ibilaldiak GR38 ibilbidearen zati bat hartzen du, *Ardoaren eta arrainaren ibilbidea*-rena, Oion eta Bermeo lotzen dituenaren zati bat, hain zuzen ere: Leintz

Gatzaga-Zabalandi-Urkiola-Durango-Gernika eta Bermeo.

Izan ere, Leintz Gatzagako gatza promozionatzeaz gainera, helburu gehiago ere baditu gatzagarrak bultzatutako ekimenak: "*Ardoaren eta arrainaren ibilbidea* jarraitu Leintz Gatzagatik hasita; Gipuzkoan, Leintz Gatzagan, ekoizten den gatza Bermeora eramatea "bertako" gatza erabiltzeko; gatzaren historia Gipuzkoan jorratzea; barruko Gipuzkoa eta kostaldea lotzea; elkarlana, talde lana, sustatzea, inoren kontra lehiatu gabe, talde lana eginez eguzkiari aurre egiteko eta taldeak osorik iristea Bermeora, hau da, gutxienez

azkenengo bost kilometroak taldekide guztiek batera egitea helmugaraino".

Batzar informatiboa

Hau guztiau 4-6 lagun bitarteko taldetan eta erreleboka egin gura dute. "Taldea bakoitzak bere ibilbidea aukeratuko du eta nola eta non egin erreleboak kudeatuko du", esplikatu du Leintz Gatzagako zinegotziak. Hori bai, taldeak mistoak izatea gura dute antolatzaileek. Izena emateko: Oier (688 88 12 90) eta Rosa (608 34 85 22).

Maiatzaren 19an egingo dute batzar informatiboa, Leintz Gatzagako Gatz Museoan, 19:00etan.



2017ko OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

Data : 2017ko maiatzaren 12an, ostirala.

Ordua: Goizeko 08:30ean lehen deialdian, eta 09:00etan bigarrenen.

Tokia: AMAIA ANTZOKIAN, Arrasaten.

EGUNEKO AZTERGAIK

1. Aktak onartzeari buruzko informe eta akordioa.
2. Memoriaren irakurketa eta onarpena
 - 2.1. 2016ko Gestioari buruzko akordioa
 - 2.2. Plan Estrategikoaren Politika eta Estrategiak eta 2017ko Gestio plana onartzea.
3. 2016 urteko Kontuen azterketa.
4. 2016 urteko Emaizten banaketa.
5. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
6. "Mondragon Industriarako Automatizazioa" Dibisioari eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
7. Fagor S.Coop.-eko Estatutu Sozialen 35. art. aldatzea.
8. Kooperatiba bazkideen Estatutu Sozialen 4.2 art. aldatzea.
9. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
10. Kontseilu Errektorea berritzea.
11. Galderak eta eskariak.

*Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialen buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek dohainik eskuratu edo bidaltzeko

Arrasaten, 2017ko apirilaren 27an.
Aritz Otxandiano Campo
Errektore Kontseiluko Lehendakaria.

Iparraldeko Ikastolen jaira joateko autobusak izango dira

Goiena komunitatea
Euskalgintza / DEBAGOIENA

Maiatzaren 14an, domeka, ospatuko da aurten Iparraldeko ikastolen aldeko Herri Urrats jaia, (*H)aizu!* lelopean. Betiko moduan, Senpereko lakuaren bueltan izango da eta Debagoieneko Loramendi, Jardun eta AED euskara elkarteok autobusa jarriko dugu bertara eroso joateko.

Aretxabaletatik 08:45ean irtengo da, Azbetik; Arrasatetik, berriz, 09:00etan, Garibai etorbideetik; eta Bergaratik, 09:15ean, autobus geltokitik.

Itzulera, berriz, 19:00etan egingo dugu.

Autobuserako txartelak Loramendi, AED eta Jardun elkarten egoitzetan eskura ditzakezue, maiatzaren 11ra arte, 12 euroren truke -elkarteetako bazkideek, berriz, 10 eurotan-.

1984an sortu zuten festa, Seaskak behar duen finantzamendua, lanak edo eraikin proiektuak dituzten ikastolak laguntzeko dirua biltzeko helburuarekin.

Gdeim Izik-ekin lotutako epaiketa salatzeke deia

Debagoieneko Saharaldea elkarrekin dei egin du astelehenean, hilaren 8an, Arrasateko Herriko Plazan elkarretaratzea egiteko, 19:00etan. Elkarretaratzea baliatuta, egun berean berrabiaraziko duten Gdeim Izik-en kanpalekuko protestetan -2010ean, Aaiunen- parte hartu zutenen kontrako epaiketa salatu gura dute.

Debagoieneko sahararren kolektiboaren presidente Saleh Salek-ek salatu du harrezkero preso dauden sahararrek "torturak eta tratatu jasangaitz eta umiliagarriak" jasan dituztela Marokoren eskuetatik, "Sahara Mendebaldea okupatzen duen potentziarengandik". Eta espero du epaiketaren emaitza "positiboa" izatea "presoendako eta sahararrendako". Salekek gaineratu du "haserre" eragiten duela, "oraindik orain, Marokok ez izatea saharar herriaren airtortzan oinarritutako politika, eta "okerragoa" dela "Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteak beste aldera begiratzea".



ULMA Agrícola, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2017ko maiatzaren 11a

Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena

Tokia: ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2016ko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2017ko gestio plana berrestea hala badagokio
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2016ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 4.1. 2016ko urteko banakako kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
 - 4.2. 2016ko urteko kontu bateratuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. Kapitalaren ordainketa, 2016ko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
6. 2016ko ekitaldiko emaitzak banatzea
7. POGU III-n kooperatiben arteko finantza tresnei buruz ari den III. idazpuruaren aldaketa, hala badagokio
8. POGU III-ren II. idazpuruaren 1.4 atala eta Kooperatibaren Barne Araudiko 82. artikuluen 8. eta 9. artikuluen aldaketa, pizgarri kolektiboaren kalkulurako erreferentzi taulak egungo egoerara egokitzeko
9. Kooperatibaren Barne Araudiko 27. bi, 28. bi, 29. bat eta 29. lau artikuluen eta estatutu sozialean kontseilu sozialeko kideen agintaldia ezartzen duen 48. hiru artikuluen aldaketak, hala badagokio
10. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
 - 10.1 2016An IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 10.2 2017An IPDK-k aplikatzeko proposamena
11. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
12. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Hurrengo batzarra egiteko lekua
15. Ahalmenak eskuordetzea
16. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Agrícola, S.Coop.en ("Kooperatiba") egoitza eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena. Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertutako alal izan ditzaten. Halaber, bazkide guztiei jakinarazten zaie kooperatibaren helbide sozialean dituztela eskuragarri Estatutuaren, araudietan eta POGU III-n proposatutako aldaketen testu osoa eta aldaketa horien justifikazio txostenak, eta horiek denak doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2017ko apirilaren 18a

Langabezia behera ibarrean; "prekarietatea", berriz, ez

Apirileko datuek adierazten dutenez, langabeziak behera egin du Debagoiengan. Martxoko datuekin alderatuta, %0,32koa da murrizketa: %9,54tik %9,22ra

Iker Oñate DEBAGOIENA

Azken hilabeteetako datuen gisa berean iritsi dira apirilekoak: behera doa langabeen kopurua Debagoiengan. Dena den, sindikatuetako ibarreko ordezkariak ez daude konforme. Diotenez, "prekarietatearen hazkundera" dago Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak argitaraturiko zifren atzean. Kasurako, lan kontratu partzialak dituzte erdigunean.

Oñatin, beherakada nabarmenena

Debagoieneko herriak alderatuta, Oñatin izan da beherakada nabarmenena: 39 langabe gutxiago daude apirilean. Ehunekoetan adieraziz, %6,69tik %5,98ra jaitsi da.

Bestetik, datu adierazgarria utzi du Arrasatek; izan ere, berdin mantendu da langabeen kopurua: 1.315. Ehunekoetan, langabezia da arrasatearren %12,60.



AMAGIOIA LASAGABASTER
ELA

"Tragedia da horrenbeste langabe egotea"

"Jasotako azken datuen arabera, aurreko urteko maila bertsuan daude langabezia datuak. Oraindik oso urruti

segitzen dugu Europar Batasuneko zifretatik.

Enpresariak eta politikariak BPG eta hazkunde ekonomiko gora doazela esaten duten bitartean, tragedia da oraindik horrenbeste langabe egotea. Gainera, horietako askok urtebete baino gehiago daramate langabezia. Kontrabidean, gainera, zenbatekoari eta estaldura mailari dagokionez, beharantz doaz langabeei bideraturiko prestazioak.

Bestalde, kalitate txarrekoa da egun sortzen den enplegua; kasurako, ohiko bilakatu dira lan kontratu partzialak. Hain zuzen, kontratu partzialen ehunekoak gora egin du 2016ko datuekin alderatuta. Gogoratu beharra dago, horri dagokionez, sarritan, partzialtasun hori ez dela aukerakoa, eta, batez ere, emakumeei eragiten diela. Azkenik, azpimarratu beharrekoea da sinatzen diren kontratuen artean %90 baino gehiago direla aldi baterakoak".



XABIER LLODIO
LAB

"Pobre diren langileen kopurua hazi egin da"

"Langabezia datuen inguruko bonbardaketa interesatuak ohikoak dira. Errealitatearen argazki bat egiteko, ordea, datu

horiek ezkututzen digutenari erreparatu behar genioke.

Gasteizko Gobernuak PRA-Eustaten datuak ezagutarazi ditu apirilean: Lanbidek zenbatzen dituenak baino langabe gutxiago ageri da horietan. Hortxe lehen tranpa.

EPAk emaniko datuen arabera, bestetik, jaitsiera xume bat izan du langabezia orokorrak. Baina biztanleria aktiboak ere behera egin duela ezkututzen digute. Hemen ere tranpa.

Titular ponpoxoetatik harago, langabezia tasak behera egin arren, pobre diren langileen kopurua gora doa etengabe. Alegia, enplegu bat izateak ez ditu ongizate baldintza duinak bermatzen.

Finean, herritarrok pobreziatik aterako ez gaituzten enpleguak onartu behar izaten ditugu sarri; horretara garamatza prekarizaturiko lan merkatuak. Egia esan, zinez paradoxikoa da, lana soberan egonda, enplegurik ez egotea".



ULMA Forja, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2017ko maiatzaren 12a

Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena

Tokia: MU Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2016ko ekitaldiko gestio soziala aztertzea, eta, onartzea hala badagokio, eta 2017ko gestio plana berrestea
3. ULMA taldeari buruzko txostena
4. 2016ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, onartzea hala badagokio
 - 4.1 2016ko ekitaldiko banakako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
 - 4.2 2016ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. Auditoria izendatzea edo berrautatzea
6. Kapitalaren ordainketa. 2016ko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena
7. 2016ko ekitaldiko emaitzak banatzea
8. POGU III-n kooperatiben arteko finantza tresnei buruz ari den III. idazpuruaren aldaketa, hala badagokio
9. POGU III-ren II. idazpuruaren 1.4 atala eta Kooperatibaren Barne Araudiko 82. artikuluen 8. eta 9. artikuluen aldaketa, pizgarri kolektiboaren kalkulurako erreferentzi taulak egungo egoerara egokitzeko
10. Kooperatibaren Barne Araudiko 27. bi, 28. bi, 29. bat eta 29. lau artikuluen eta estatutu sozialetan kontseilu sozialeko kideen agintaldia ezartzen duen 48. hiru artikuluen aldaketak, hala badagokio
11. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta Interes Publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
 - 11.1. 2016an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua
 - 11.2. 2017an IPDK-k aplikatzeko proposamena
12. Bazkide berrien kapitalera ekarpenak
13. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
 - 13.1 Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipenaren bilakaera eta itxiera
 - 13.2 Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
16. Hurrengo batzarra egiteko lekua
17. Ahalmenak eskuordetzea
18. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie ULMA Forja, S.Coop.en ("Kooperatiba") egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten. Halaber, bazkide guztiei jakinarazten zaie kooperatibaren helbide sozialean dituztela eskuragarri Estatutuetan, araudietan eta POGU III-n proposatutako aldaketen testu osoa eta aldaketa horien justifikazio txostenak, eta horiek denak doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2017ko apirilaren 28a



IÑAKI TEMPRANO
CCOO

"Lan kontratu partzialek gora egin dute nabarmen"

"Lan kontratuen kopuruari dagokionez, egoeraera gutxika-gutxika hobetzen doan arren, beharrezkoa da sortzen

den lanaren kalitateari erreparatzea. Batez ere, zenbakiek egoeraren irakurketa okerrera garamatzatelako. Esaterako, lan-kontratu partzialak gora egin duela ezkututzen dute.

Lan-kontratu partzialek kolokan jartzen dituzte langileen eskubideak; horrela, enpresek erraz manipula ditzakete langileak, hainbaten artean, hitzarturikoak baino ordu gehiago sartaraziz eta

soldataren zati bat beltzean jasoaraziz. Egun, inork ez du hori kontrolatzen. Bada, lan baldintza prekarioak dira nagusi.

Bestalde, aintzat hartu behar ditugu 45 urtetik gorako langabeak. Horiek are zailago dute lana bilatzeko jarduna; zer esanik ez, zein baldintza eskaintzen zaizkien.

2012an PPK bultzaturiko Lan Erreforma indargabetu beharra dago gisakoei aurre egiteko; urrats baliagarria litzateke".



MAITE ALISTE
UGT

"Sortzen den enplegua prekarioa da"

"Egia da langabeziak beherakada xume bat izan duela, baina sinatzen diren kontratu gehienak aldi

baterakoak dira oraindik. Hori horrela, sortzen den enplegua prekarioa da. Horri men eginez, aipatzekoa dugu EAEko datua: igarozkotasuna %92 ingurukoa da autonomia erkidegoan. Datu kezagarria da hori.

Bestalde, gogorarazi beharrekoea langabeen artean 35 urtetik beherakoak eta 45etik gorakoak direla nagusi. Esangura handiko datua dugu aipaturikoa.

Hori guztia esanda, UGTk eskaera argi bat egin gura dio

Eusko Jaurilaritzari: PPrekin sinatuko dituen hitzarmenak eskaintzen dizkion bitartekoak herriarengan inbertitu ditzala, eta ez, lehenago egin izan duen gisara, murrizketak aplikatzeko. Gogoratu Eusko Jaurilaritzak diru sarrak bermatzeko errentarekin (DSBE) eginkoa: Kontsumo Prezioen Indizearekiko (KPI) berritu zuen DSBE, bere legeari jaramonik egin gabe. Ondo bidean, aintzat hartu behar luke gutxieneko soldatak izaniko %8ko igoera".

Erremolkea

MIKEL BIAIN BERRAONDO

ONATIKO ALKATEA
ONATI

Egia da ohitu egiten garela egoera ezohikoetara. Egun batetik bestera, paisaian agertzen den elementu hori, denbora igaro ahala, edozein zuhaitz, iturri edo eserleku balitz bezala, paisaia bilakatzen denean bezala.

Horixe bera gertatu da Arrasateko Ospitaleko erremolkearekin. Paisaian barneratutako elementu bat gehiago bilakatua, halako batean, zure gertuko bat ospitalera joan eta bertako bisitaren berri ematen dizun arte. "Medikuak esan dit ez dela kamioiko erresonantziatz fio eta Gasteizen erresonantzia egiteko txanda eman dit". Orduan konturatzen zara ohikoa bihurtu den hori ez dela normala.

Murrizketa, pribatizazio eta esternalizazioak dotorezia handiz egiten dira garaiotan, oso modu sofistikatuan, erabiltzaile, onuradun edo zergadun hori ez konturatzeraino askotan. Nork igarriko du mediku batek egun baten 10 kontsulta beharrean, 20 ematen baditu. Edo irakasle batek 17 ikasle beharrean 25 hartzen baditu. Krisiaren izenean, dena da egingarri, moldagarri, eta salgarri.

Eta medikuak edo irakasleak, irribarrea galtzen ez duen bitartean, igarri ere ez agian.

Baina badago elementu bat beti hor dagoena. Disimulatzen edo ezkututzen zaila dena. Arrasateko Ospitaleko erremolkea da. Martxoan bete dira 5 urte "behin-behinekoz" ekarri zela Granadako enpresa baten eskutik.

Zumarragako Ospitalearen eta Arrasatekoaren artean partekatu zen, hasiera batean. Ondoren, Zumarragako Ospitalean erresonantzia unitate finkoa eraiki zen 2014an eta ordutik erremolkea Arrasaten dago geldirik. Ospitale berriaren ondoan. Errobera azpietetik belar kimu berdeak ageri zaizkio; agian, *krisia* pasatzear dagoen adierazgarri.

Politika publikoen eta lehentasun politikoen paradigma oso grafikoa. Oso garbi ikusten ez diren inbertsioetan, beti dago aukera ez inbertitzeko, edo inbertsio mugikor bat egiteko.

Ez naiz ni publikoaren eta pribatuaren artean basamortua ikusten duen horietakoa. Oreka egokia bilatzean dago beti gakoa. Baina ez dezagun iparra galdu.

Oinarrizko zerbitzu publikoek erabat publikoak izan behar dute, eta helburu horretara beharrezko inbertsio eta baliabide publikoak bideratu behar dira. Dirurik ez dagoela esatea tranpa da. Izatekotan, diru publikoa beste inbertsio batzuetara lehenetsi izana

litzateke arrazoi bakarra. Ez gaitzezen engainatu.

Batu ditzagun indarrak. Eskatu diezaiogun Jaurilaritzari Arrasateko Ospitale berrian erresonantzia unitate finkoa jartzeko behin betiko inbertsioa egiteko.

Debagoieneko herritarrok horrenbeste merezi dugulako.

Zorionak eta mila esker!

IOSU ELORZA ALBERDI
BERGARA KIROL ELKARTEA
BERGARA

Urte osoko lan gogorraren ostean, helburua lortu dugu, txapeldunak gara, eta datorren denboraldian Ohorezko Erregional Mailan izango gara berriz. Zorionak eman jokalaria eta entrenatzaile taldeari egindako denboraldi bikainagatik.

Beraiekin batera, lorpen hau posible egin dutenei, eskerrak eman nahiko nizkieke: partidu guztietan, etxean zein kanpoan, alboan izan zaituztegun bazkide, guraso, lagun eta zale guztioi, mundialak zarete! Harrobiko gainontzeko entrenatzaile eta jokalariei, bereziki, Lehen Mailako Erregionaleko taldekideei, lehen taldeari emandako laguntzagatik.

Edozertan laguntzeko prest gure ondoan izan zaituztegun guztioi eta klubeko babesleei. Ekainaren 10eko Mahonero Egunean espero zaituztegu guztiok.

Ezin ahaztu orain bi urte gurekin batera proiektu honetan hasi ziren Pedro Rico eta Iñigo Zaitegirekin, garaipen hau zuena ere bada. Eta, nola ez, zuzendaritza taldeko lankideak. Momentu on eta txarretan, bat eginda, indarrak batu eta elkarrekin hau guztia aurrera ateratzeko egindako lanagatik. Zuek ere mundialak zarete!

Zorionez, ametsa ez da amaitu, eta oraindik gauza handiak ditugu jokoan.

Mila esker denoi; aupa Bergara!

Iñigo Iñurrategiri erantzuna

IOSU ELORZA, GARBIÑE ELORZA, JABI ORBEA, JABI IBARRA, IRUNE ALBERDI, MARTIN ALBERDI, OSKAR NAVARRO, VICENTE PIÑERO, ANTONIO RETES, ANGEL JIMENEZ, J. LUIS ARIETALEANIZBEASKOA , ANTONIO PATO, MANU DIAZ, ENRIKE NIETO, AITOR BLANCO ETA MIGUEL BASTERRA
BERGARA KIROL ELKARTEA
BERGARA

Aurreko astean Iñigo Iñurrategik GOIENAn idatzitakoari erantzun nahiko genioke.

Uste dugu oso arriskutsua izan daitekeela gai baten gainean inongo informazio gabe idaztea. Eta are arriskutsuago izaten da, askotan, kasu zehatz bat hartuta orokortasunetan erortzea.

UDAk duen euskara plana goraiпатzea bazen zure helburua, ados egon gaitzek. Baina ba al dakizu Bergara Kirol Elkarteak ba al duen

euskararen erabilera sustatzeko horrelako planik? Norbaitekin hitz egin duzu informazio eske gaiaz idatzi aurretik? Klubera iristean, zuzendaritza honen lehentasunetako bat, beste gai batzuen artean, euskararen erabilera sustatzea zela argi utzi genuen, eta Bergarako Udalarekin batera euskara plana dugu martxan; emaitza positiboekin, gainera. Barne komunikazioa, formakuntza saioetan eta sare sozialetan euskara hutsean aritzea, gurasoen bilerak ele bitan egitea... ez dira gauza berriak gurean, baina, galdetzen ez baduzu, normala ez jakitea. Noski, ez gara perfektuak, akatsak ere egiten ditugu eta beti izango dugu zertan hobetu.

Lehen aipatu bezala, informazio gabe idaztea bezain arriskutsua da kasu zehatz batetik orokortasunetara pasatzea. Eguneroko bizitzan bezala, euskaraz dakitenei, erabiltzeko konpromisoa hartzeko eskatu behar diegu, baina euskaraz ez dakitenek ere eskubide osoa izango dute entrenatzen jarraitzeko; gurean, behintzat.

Akatsak onartuz, uste dugu zuzenagoa izango litzatekeela gutariko edonorekin harremanetan jarriko bazina eta martxan ditugun ekimenak ezagutu. Bergarakoa izanda, are errazagoa duzu. Harriak botatzea baino, hobe ideiak ematea euskararen sustapenaren alde.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna • Eskertza-gutuna • Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali **gutunak@goiena.eus** helbidera!

Erantzun-gutuna • Aldarrikapen-gutuna • Kexa-gutuna



ZABALIK

AINHOA VITORIA

Telefono dei bat

"Deituko didala esan dit. Baina, oraindik ez dut deirik jaso. –17etan deituko dizut, maitia–. Baina, deirik ez. Seguruena zerbait garrantzitsua suertatu zaiola. Pazientzia izan, emakumea, deituko dizu eta. Baina ez badit deitzen? Horrek esan nahi du ez nauela maite? Eta, zerbait gaizki egin badut? Bada, ez badit deitzen, ez diot deituko. Bueno, agian, arrazoi potolo batengatik ez dit deitu. Jo, baina, zergatik ez dit deitzen? Zer egin dut gaizki?".

2017ko emakume gazte batek idatzitako testua izan zitekeen.

Nik neuk idatzitako testua, agian.

Bada, ez.

Dorothy Parker idazlearen *A telephone call* ipuinaren egokitzapena da. 1928an idatzitakoa.

Ameriketako Estatu Batuetako lege lehorraren garaiko emakumearen egoera salatu nahi izan zuen testu honen bitartez.

LEGE LEHORRAREN GARAICO EMAKUMEAREN EGOERA SALATU NAHI IZAN ZUEN

Emakume gehienek etxeko-andre finak, ama onak eta ederrak izan nahi zuten.

Senarra zoriontsu mantentzea zen beraien helburu bakarra.

Eta ezkontzen ez ziren neskak ezkontuta zeuden

gizonen amorante izateaz konformatzen ziren. Telefono horren zain zeuden amoranteak. Eta, noski, Dorothy Parkerrek gogor kritikatu zuen emakumeek bizi zuten egoera. Bai emazte perfektuak zirenak, baita amorante perfektuak zirenak ere. Azken finean, egoera bertsuan zeuden denak: gizonen menpe.


Parkerren hitzak irakurrita, garai hartatik hona ezer gutxi aldatu dela esango nuke. Nik ere inoiz horrela pentsatu eta sentitu izan dudalako. Telefono horren zain egon naizelako. Eta, ziurrenik, zu ere bai.

Baina, aizu. Emakumeen aldeko borroka inoiz baino indartsuagoa omen. Manifestazioak ugariak dira. Lasterketak, zer esanik ez!

Gure independentziaren alde borrokatzen ari garen emakume askeak gara. Manifestazioen ondoren eta lilatoiak korritu ostean, telefonoak noiz joko duen zain dauden emakume *askeak*.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Euskaldunok jende gisa

MANEX AGIRRE

HTTPS://LABUR.EUS/VL50G

Euskaldunok jende gisa atsegin gara Madrilen, baina ez euskaldun gisa. Joseba Tapiaren ahotsak dakartza, hamar urte bete berri dituen diskoan, Bitoriano Gandiagak 1977an idatzitako hitzak, eta galdetu Itziar Ituñori ea aktualitaterik baduten, aste honetan bizi izan baitu bere haragitan jende gisa atsegin dutela han, baina ez gehiago. [...] Eztabaidari ihes egin zale ez bazara, eta euskal auzia urrun samar bizi duten lagun eztabaida-zaleak badituzu, gai egokiagorik gutxi, pipertzeko. Eta solaskide amorragarri

samarrak izan daitezke, bereziki, espainiarrak (espainiar ezkertiarak oraindik amorragarriago, esango nuke; eta bai, orokortzen ari naiz, plazer baita noiz edo noiz kategoriko samar jartzea, pulpitu-zaletasuna konfesatzea), beraien ustez iritzi ondo formatua baitute gure "arazo" honetaz, baina hizketan hasi eta laster ikusiko diozu diskurtsoari kolore bakarra duela, norabide itxian datorrela, informazio eta kontraste faltak eragindako hutsaltasuna duela.

Ba ni jardun izan naiz, lagun minekin, eta mimoz gogoratzen dut, adibidez, Burgoseko bati gure herrietako umeek

euskaraz hitz egiteko joerarik ez dutela esan nionekoa, eta nola adierazi nion horrek sortzen zigun ezina, eta bere argudiaketa libertario samarra, umeen aukera-askatasuna aldarrikatuz; edo, beste behin, sutsuki erreferendum baterako dugun eskubidea defendatzen ari nintzela, Huelvako lagun batek nola esan zidan guk nahi genuena egitea geneukala, baina nafarrei, gaixo horiei, bakean uzteko behingoz. Gerora, ika-mikak oroitu eta argudio berriak asmatzera jostatzen naiz, diskusioa berritzera, eta amets egiten dut beti ni irteten naizela irabazle, hau da, konbentzitu egiten dudala bestea, gizajoa ni.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber
Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Eiorza, Jokin
Uribeetxeberria.
Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Aulkiaren maneiua hobetzen jarraitu behar dut"

ARITZ BIKUÑA EUSKADIKO TXAPELDUNA ESLALOMEAN

Oihana Elortza BERGARA

Euskadiko Eslalom Txapelketako finala jokatu zuten zapatuan Bergarako Udal Pilotalekuan, eta etxeko batek lortu zuen sari nagusia, Aritz Bikuña.

Zorionak!

Eskerrik asko. Oso pozik nago, ez nuen irabazterik espero.

Aurkariengatik diozu?

Ezagutzen nituen, baina ni urduri samar nengoen egun hartan.

Zergatik?

Etxean jokatzeko nuelako, Bergaran.

Baina han zeuden etxekoak eta lagun batzuk ere animoak ematen.

Bai, eta hori asko eskertzen dut, asko. Dena dela, urduri ere jartzen naiz. Kanpoan, agian, lasaia ibiltzen naiz. Baina etxean eta, gainera, familiakoak eta lagunak begira daudela... Hala ere, asko eskertzen diet ni ikustera Udal Pilotalekura etorri izana.



Aritz Bikuña, zapatu goizean Bergaran egindako txapelketan. IMANOL SORIANO

Nolakoa izan zen proba?

Hiru proba egin behar genituen bakoitzak. Zirkuituak, ibilbide txikiak, ziren, baina ezberdinak. Lehenengo probaren bigarren zatia, esaterako, oso zaila izan

zen. Hori izan zen zailena, niretako. Gorpil aulkia ondo maneiatu behar duzu eta trukoak jakin behar dira jarritako oztopoa eta lerro zuzena ez zapaltzeko. Eta proba hartan zaila izan zen

hori. Baina lortu nuen ahalik eta denbora laburrenean egitea eta eta oso pozik nago. **Eta Euskadiko txapelduna izanda, Espainiako txapelketara orain?** Ez dakit oraindik. Txapelketa horretara joateko gutxieneko markak lortu behar dira eta ez dakit iristen naizen edo ez. Datozen egunetan esango didate hori. Espainiako aurtengo txapelketa Granadan egingo dela uste dut.

Noiz eta nolakoak izaten dira entrenamendu saioak?

Astean behin entrenatzen naiz; ordu eta erdiko saioa egiten dut astelehenero. Txapelketan bezala, oztopoz betetako ibilbide bat jartzen dut eta ahalik eta denbora laburrenean egiten saiatzen naiz, akatsik egin gabe.

Non ikusten duzu hobetu beharra?

Aulkiaren maneiuan. Nahiko ondo moldatzen naiz, baina hobetu beharra daukat. Jartzen ditugun konoak eta marrazkiak ez ukitzen saiatu behar dut, eta, hori azkar baldin bada, hobeto.

Badakit bisita gidatu bereziak ere egin zenituela txapelketa egunean.

Bai. Kar-kar-kar. Lehiatzera etorri ziren lagun batzuek ez zuten Bergara ezagutzen, lehenbiziko aldia zuten hemen, eta herria erakusten aritu nintzaizen.

HAU BE BADOGU!

#Kupoa eta aurrekontuak, hizpide



@iurkullu: "#Kupoa. Akordio horrek Euskadi eta Estatuaren arteko aldebikotasun finantza-harremanetan ziurtasuna bermatzen du. Akordioa bikaina da".

@ArnaldoOtegi:

"Aurrekontuak PPrekin adostu eta gero, antzerki denboraldia bukatutzat eman du PNVk".

@NaguaAlba: "Kupoaren negoziaketa eta aurrekontuak bateratzea axolagabekeria da; euskal herritarren eskubideak alderdi ustel baten menpe jartzea da" (itzulita).

Itziar Ituñori elkartasun mezuak

Asteartean estreinatu zen *La casa de papel* telesaila, eta sare sozialetan boikota egiteko deia zabaldu zuten, Itziar Ituño aktorea euskal presoen eskubideen alde azaldu delako. Egoeraren aurrean, hainbat erabiltzailek elkartasun mezuak partekatu dituzte:

@XabierEuzkitze:

"Elkartasun eralekoa **#itziarituño**-ri Askatasunak eta Giza Eskubideek zergatik egin behar dute talka lanerako eskubidearekin?".

#Maiatzak1 'trending topic' izan da

Langileen Nazioarteko Eguna izan zen astelehenean, eta sare sozialak euskarazko aldarrikapenekin bete ziren, **#maiatzak1** traola trending topic bilakatuta:

@uonederra: "Batasunak indarra dakar, baina **#maiatzak1** elkarrekin ez egiteak esango nuke ez duela indarra kentzen, akaso kontrakoa".

@mikelsanj6: "Borrokatu lanak langileriaren duintasuna lortzeko **#maiatzak1**".

ITURRI ONETIK

Bost debagoiendar Errumanian

Uztailaren 25etik 29ra Errumanian egingo den *Red Bull Romaniacs Hard Enduro Rally* proban parte hartuko dute bost debagoiendarrek: Oñatiko Unai Lopezek, Xabier Arnaizek, Gorka Guridik eta Gorka Egañak eta Arrasateko Luis Rey Nuñezek. Duela bi urteko lasterketan izan ziren parte hartzen bost horietako hiru: Arnaiz, Rey Nuñez eta Guridi. Eta Guridi izan zen amaitu zuen bakarra. Arnaizek min hartu zuen eta Rey Nuñezek matxura mekanikoa izan zuen. Beste biendako lehenengo aldia izango da.

GORA ETA BEHERA



Labegarietako tirolina konpondu egin dute

Pozik hartu du Bergarako Labegarietako parkeak duen erabiltzaile ugarietako batek bertako tirolinaren konponketa. "Umeekin joaten gara Bergarako parke horretara, eta tirolinan ibiltzea da haiek gustuko duten ekintzetako bat. Pena handia hartu genuen norbaitek apurtu egin zuelako; baina konpondu egin dute, eta asteburu luze honetan ederki aprobetxatu dugu".



UBANE MADERA



Asmobiko hainbat langile, martitzenean, enpresaren aurrean. IKER OÑATE

Asmobiki enpresa, ixteko prozesuan murgildurik

Urte luzez izan dituzten arazo ekonomikoei buelta eman ezinda, Arrasateko galdaragintza enpresak ateak ixteko prozesua hasi du. Gaur egun 36 langilek osatzen zuten eta horietako batzuk asteazkenean hasi ziren kontratuen etetea sinatzen

Iker Oñate ARRASATE

Asmobiki ixteko asmoak ez ditu ezustean harrapatu bertako langileak. Azaldu dutenez, galdaragintza enpresak urteak zeroatzen egoera ekonomiko "kaskarrean" korapilatuta. "Azken urteetan, oster, nekez ordaindu zitzakeen maileguak eskatzen jardun du Asmobik. Alegia, zir-

kulu amaiezin batean zegoen sarturik: eskaturiko mailegu horiek ordaintzeko maileguak eskatzen zituen. Gero eta kezagarriagoa zen egoera".

24 urteko ibilbidea

1993ko otsailaren 11n jaio zen Asmobiki; beste enpresa batzuen tzat lanean jardun du ordutik,

galdaragintzari loturiko lehen-gaiak ekoizten. Besteak beste, trenbideen, energia berriktagarrrien eta makinaren sektoreetara bideratu du ekoizpena. Zehatz esanda, azken urteetan, batez ere, trenbideen sektorea izan dute erdigunean.

24 urte besterik ez du enpresak, baina gorabehera ugari bizi

izan ditu tarte horretan. Batetik, "urte oparoak" bizi izan ditu, langileen hitzetan: "Oso urte onak bizi izan ditu Asmobik; Duela zazpi urte, adibidez, 2010ean, lan asko zegoen, eta orduak sartu behar izaten genituen, ekoizpenaren tamaina zela eta".

Bada, enpresak azkeneko urteetan izandako gainbeheraz galdetuta, "kudeaketa txarrari" egotzi diote errua langileek. "Diru larregi inbertitu da, eta inbertsio horietako batzuk ez dira egokiak izan. Horrek zor izugarria ekarri dio Asmobiri". Enpresak 2013 eta 2016 urte bitartean izan du beherakada nabarmenena.

Enpresako zuzendaritza taldeak, berriz, ez du GOIENArekin gaiaz berba egin gura izan.

32 langileko enpresa

Guztira, 32 langile ditu enpresak, 25 eta 59 urte bitartekoak. Horien arabera, egoera ekonomikoaz jakitun eta enpresaren jarraipena bermatu guran, bitartekoak jartzen jardun dute azken urteetan: "Geure esku zegoen guztia egitea erabaki genuen. Batetik, uko egin genion paga gehigarria jasotzeari; hiru urte daramatzagu halako ordainsaririk jaso barik. Bestetik, urtean hitzartutakoak baino 70 ordu gehiago sartzen jardun dugu azken hamar urteetan".

Ahaleginak ahalegin, egoerari buelta eman ez, eta enplegu-e-

regulazio prozesuari ekin zitzaien; hala jardun du azken sei hilabeteetan. Esan beharra dago egungo gerenteak bi urte daroatzala karguan.

Gaur-gaurkoz, hala ere, enpresa ez dago guztiz itxita. Egun, sei langilek jarraitzen dute lanean, enpresa itxi aurretiko azken jardueretan murgildurik. "Lan horiek amaitzean, guztiz etengo da Asmobiren jardura. Orduan kaleratuko dituzte oraindik lanean dirauten langileak", adierazi dute.

Kontratuen etetea, atzeratuta

Enpresako langileek astearterako, maiatzaren 2rako, egin zuten kontratuen etetea sinatzeko hitzordua. Langile talde bat bildu zen enpresa kanpoan, 12:00 inguruan. Dena den, bertaratu zirenean, dokumentazioa presatatu gabe zegoela esan zieten; ezin izan zuten ezer sinatu. Edozelan ere, astean zehar deituko zieten abisua jaso zuten, behin betiko kontratu etetea sina zezaten. Azkenean, baina, martitzen arratsaldean bertan hasi ziren adosturiko kontratu eteteak sinatzen.

LANGILE BATZUK ASTEAZKEN ARRATSALDEAN HASI ZIREN KONTRATU ETETEA SINATZEN

Enpresa batzordea desegiteko prozesua aktibatuta Iturbiden

Langileen gehiengoaren interesen aurka jarduteagatik egin dute muturreko erabaki sindikala hartzearen alde

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aita Menni enpresak kudeatzen duen Iturbide egoitzako langileek euren ordezkapen sindikala egiten duen enpresa batzordea desegiteko lege prozedura aktibatuko dute. Hala jakinarazi zuten pasa den egubakoitzean helarazitako prentsa oharrean, eta maiatzaren 17an egingo den puntu bakarreko batzarrean bozkatuko dute batzordea desegitearen alde. "Enpresa batzordea izan beharko litzateke gure aldarrikapenak egiteko berezko organoa. Baina langileen gehien-

goak hartutako erabakiei kasurik egiten ez dienez, prentsa oharra ateratzea erabaki genuen gure egoera gizarteratzeko asmoz", adierazi du langileen gehiengoak ordezkatzeko lantaldeak.

Lan egutegia adibide gisa

Oharrean jasotzen zenez, gehien-goaren interesak defendatu beharrean, euren interesen arabera jokatu izanak eragin du batzordearen eta langileen arteko haustura, eta lan egutegiaren ausia jarri zuten adibidetzat.

Urtarrilaren 30ean egindako batzarrean, lan egutegia onartu edo ez bozkatu zuten. Aurretik, enpresa batzordeak kontzentrazioak eta prentsa oharrak egin zituen lan egutegi justua aldarrikatzeko. Batzar hartako aktan jasotzen denez, langileen gehien-goak bozkatu zuen proposatzen zitzaizen lan egutegia onartzearen alde. Hain zuzen, 26tik 18k eman zuten aldeko botoa, eta, bide batez, eskatu zuten lan egutegi justua aldatzeko ekintzak etetea. Baina hori onartu beharrean, kontzentrazioak egiten, pankartak jartzen eta prentsa oharrak bidaltzen jarraitu dutela adierazi zuten.

Kasu gehiago

Haustura eragiteko beste argumentu batean, langileen gehien-goak lan-jarduna handitzeko

eskaria babestu zuela adierazten zuten, baina enpresa batzordeak ez zuen onartu eta ez zion eskaria zuzendaritzari helarazi. Oharrean adierazten zenez, Aita Menniko zuzendaritzari lanpostuen errotazioa lortzeko eskaria ere helarazi zion enpresa batzordeak, aurrez langileei galdetu gabe. CCOO sindikatuak praktika horiek onartzea eta babestea ere kritikatu zuten.

Udalaren oharra

Apirilaren 27an agerraldia egin zuten enpresa batzordeak Irabazi eta Baleike alderdietako ordezkarien babesarekin, udaletxe parean. Udalak oharra kaleratu zuen, bertan eta herrian banatutako eskuorrietan bi udal langileren izenak erabili eta haien kontra egindako lintxamendua salatuz.

Toti Martinez de Lezearen hitzaldia martitzenean

Goienagusi elkarteak, Arrasateko Udalarekin lankidetzan, *Pueblos malditos de Euskal Herria: Agotes, Judíos* hitzaldia antolatu du maiatzaren 10erako. 2016-2017 ikasturteko ekintza garrantzitsuenetakoa izango da, batez ere, Toti Martinez de Lezea izango delako hitzaldia eman go duena.

Bi ordutik gora

Jende asko hurbildu daitekeela kontuan izanik, Kultureko areto nagusian egingo dute saioa. 10:00etan hasiko da, eta 12:15ean amaitzea espero dute antolatzaileek. Elkartearen izaerari jarraiki, ekitaldi irekia eta doakoa izango da.





Joan den urteko Musakolako mendi bizikleta martxa. GOIENA

300 lagunek hartuko dute bizikleta Musakolan

Musakolako mendi bizikleta martxak 10 urte beteko ditu domekan. Aurten, parte hartzaileak ez dira gutxi izango, 300 lagunek eman baitute izena; horrekin, dudarik gabe, orain arteko parte-hartzaile kopurua gaindituko dute

Ane Vitoria ARRASATE

Domeka goizean izango da Musakolako BTT irteera. Antolatzaileek bi ibilbide prestatu dituzte eta norberak hobeto dagokiona aukera dezake. Ibilbide motzak 32 kilometro izango ditu eta luzeak, aldiz, 40. Musakolako Ziar-Ola kultura elkarte partetik irtengo dira, goizeko berderatzietan. Ibilbidearen eta parte hartzaileen babesa bermatu nahian, 300 pertsonarendako proba finkatu dute. Eta dagoneko bete dute parte-hartzaile kopurua. Horrenbestez, orain, izena emateko aukera bakarra egunean bertan izango da. Ekitaldiaren antolatzaileek 50 plaza mugatu erreserbatu dituzte azken momentuan izena eman nahi dutenentzako. Horregatik, funtsezkoa da martxan jardun nahi dutenak domekan lehenbailehen bertara gerturatzea izena ematera. Kasu horretan, parte hartzaileek apur bat gehiago ordaindu beharko dute, 23 euro, hain zuzen ere. Proba egin

ostean, oparien banaketari ekin go diote. Izan ere, aurten, hainmargarren urteurrena ospatu nahi dute antolatzaileek. Eta, hala, lehenengo 300 parte hartzaileei maillota bana emango diete.

Umeen bizikleta jaia

Helduek ez dira izango bizikletak hartuko dituzten bakarrak. Umeen bizikleten jaia ere prestatu dute Musakolan domekarako, eta ibilbidea, helduena bezala, Ziar-Ola kultura etxean hasiko da. 10:30ean ekingo diote martxari txikienei, baina, adina kontuan izanda, pertsona helduen laguntzarekin parte hartu dezaten eskatu dute antolatzaileek.

HAMAR URTE HAUEN GAIKEKO BALORAZIOA OSO POSITIBOA DA; ANTOLATZAILEAK POZIK DAUDE

Martxaren 10. urteurrena

Jendearen parte hartzea geroz eta handiagoa dela dio Iban Diazek, Musakolako mendi bizikleta martxaren antolatzaileak: "Lehen urtean 80 pertsona inguruk eman zuten izena. Eta, geroztik, urteek aurrera egin ahala, jende gehiago animatzen da. Adibidez, iaz, 216 parte hartzaile izan ziren". Hamar urte hauen gaineko balorazioa oso positiboa dela aitortu du, eta antolakuntza oso pozik dago proba izaten ari den oihartzunarekin eta arrakastarekin.

Igoera faseko lehen partidurako prest da Mondrate

Tellatuberri zaldibiarren aurkako partidua galdu ostean, Tolosan jokatu du igoera faseko lehen partidua

Iker Oñate ARRASATE

Denboraldiaren zati handiena sailkapeneko lehen postuan igarobatu ere, azkenean, Mondrateko mutilak laugarrenak izan dira txapelketan. Dena den, Euskal Ligan jokatzeko igoera faserako sailkatzea lortu dute; egubakoitzean dute hitzordua, Tolosan, 21:30ean, Iurre Taberna taldearen aurka. Datorren asteburuko partidua irabazten badute, maiatzaren 12ko asteburuan jokatu dute finala.

Esan beharra dago lehen postuari eutsi izan baliote, igoera

faseko lehen norgehiagoka etxean lehiatzeko aukera izango zuketela arrasatearrek; baina, esan bezala, ez da hala izan.

Taldeko entrenatzaile Josu Uribarrenek aitortu duenez, Arrasateko mutilak "indartsu eta ilusioz" joango dira Tolosara.

Bi taldeek ondo ezagutzen dute elkar, batera ekin baitzioten ibilbideari, eta, gainera, elkarrekin igo dira mailaz birritan. Uribarrenen hitzetan, "neurri batean, derbi kutsua izango du asteburuko partidua".

Zaldibarko txapelketak beste jardunaldi bat du asteburuan

Zaldibarko areto futbol txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu du asteburuan, maiatzaren 6 eta 7 bitartean. Aipatzekoa da Aldatz eta Legends taldeak elkarren aurka lehiatu direla; bi jardunaldi jokatu, haiek biek soilik lortu dituzte puntu guztiak. Bi egunetan, 10:30ean hasiko dira partidua.

Bilboko Mendi Film Festivaleko hainbat film ikusgai

Bilboko Mendi Film Festivaleko ikus-entzunezko onenak izango dira Amaia antzokian ikusgai, maiatzaren 9an, martitzenean. 19:30ean hasiko da. Besteak beste, *Boys in the Bugs*, *The Trail to Kazbegi* eta *Link Sar West* filmak ikusteko aukera izango dute bertaratutakoek. 5 eurotan jarri dute sarrera.



ARRASATE DRAGOI GIMNASIA TALDEA

"Oso pozik" emaitzekin

Donostiako Belodromoan antolatutako Tximeleta txapelketan esku hartu zuten Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeko hainbat kidek asteburuan. Emaitza onak lortu zituzten. Arrasateko ordezkariak lehen postua erdietsi zuen alebin eta gazte mailetan. Taldeko kideak "oso pozik" daude emaitzekin eta hurrengo txapelketei begira jarri dira dagoeneko.

Asteburua musikaz blai

Musikaldiari esker

Arrasate Musikaleko Orkestrak eta Goikobalu Abesbatzak kontzertua eskainiko dute, asteburuan, Musikaldia Jaialdiaren barne. Horrez gainera, Musikaldiaren barruko beste bi ekitaldi ere izango dira: Iberian Quartet eta Musica Boscareccia

Ane Vitoria ARRASATE

Elkarrekin bi entsegu egin ondoren, dena prest dute Arrasate Musikaleko Orkestrak eta Goikobalu Abesbatzak bihar arratsaldean eskainiko duten kontzerturako. "Egutegian azpimarratuta dagoen data da hau. Urte dezente gabilitza elkarrekin, eta espero dugu hola jarraitzea urte askotan", dio Goikobaluko zuzendari Iñaki Maidaganek. Kontzertuaren nondik norakoak zehazteko urtarrilean elkartu zirela aitortu du Iker Olazabalek, orkestra sinfonikoaren zuzendariak: "Dena prestatzea erronka handia da; izan ere, ehun bat lagun izango gara ohol-tza gainean. Gainera, aurten berezia izango da, Amaia antzokian jotzea lortu dugulako". Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengoa Arrasate Musikaleko Orkestraren eskutik joango da eta Itoiz taldearen kantu batzuekin osatutako errepertorioa eskainiko du: "Bilboko Orkestrak moldaketa egin zuen eta asko gustatu zitzaidan. Juan Karlos Perezekin harremanetan jarri nintzen eta materiala utzi zigun", dio Olazabalek. Bigarren zatian, aldiz, Goikobalu Abesbatza gehituko da kontzertura, eta, horretan, bi pieza izango direla entzungai nabarmendu du Maidaganek: "Euskal musika defenditzea tokatu zaigu eta Juanito Arzamendi ilustraren *Oihuska* joko dugu. Baita Jesus Guridiren *Eusko irudiak* ere". Kontzertua bihar arratsaldeko zortzietan eskainiko dute Amaia Udal Antzokian eta sarrerak 5 euro balioko du. Hain zuzen ere, arrasate.eus atarian eta Amaia antzokiko leihatilan eskuratu daitezke.

Bi ekitaldi gehiago

Musikaldia Jaialdiaren baitan beste bi ikuskizun eskainiko dira Arrasaten: batetik, saxofoi laukotea osatzen duten Iberian Quartet taldearen emanaldia;



Arrasate Musikaleko Orkestra eta Goikobalu Abesbatza, Udaberri Musikaldian. GOIENA

gaur arratsaldean izango da, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan. Eta, bestetik, Musica Boscarecciaren ikuskizuna. Instrumentazio aldakorrek taldea da hori, eta, batez ere, XVII. eta XVIII. mendeetako ganberako ahots errepertorioa interpretatzen du. Musica Boscareccia domekan izango da, San Juan Batailatzailearen parrokan, 20:00etan.

Musika banda Katalunian

Asteburu honetan, Arrasate Musikaleko 40 bat ikasle Sant

Feliu de Guixols herrira joango dira, kontzertua eskaintzeko asmoz. Arrasate Musikaletik, Arantzazu Idigorasak zuzentzen dituen hiru talde joango dira, eta, han, Arrasateko eta Sant Feliuko musika eskolen arteko elkartruke musikala egingo dute. Joan den urtean, Kataluniakoek Arrasaten emanaldia eskaini zuten, eta, harremanak sendotu dituztenez, aurten alderantzizko bidaia egingo dute. Arrasatekoak Katalunia aldera joango dira musikaz eta esperientzia horretaz gozatu nahian.

Aste Kulturala ospatuko dute

Corazon de Encina elkarteak

Askotariko ekintzak izango dira horren barruan, eta bihar arratsaldetik datorren domekara arte iraungo du

Ane Vitoria ARRASATE

Bihar, zapatua, hasiko da Aste Kulturala extremaduraren elkarteak eta astebete iraungo du. 17. urteurren honetan, hainbat izango dira Corazon de Encina elkarteak eskainiko diren ekintzak; hain zuzen, gazteei eta nagusiei zuzenduta egongo dira.

Ekintzaz betetako astea

Bihar arratsaldean emango zaio hasiera Aste Kulturalari, mahai-jokoen lehiaketekin; mus, tute eta txintxon karta-jokoen kanporaketekin, zehazki. Domekan ere mahai-jokoekin jarraituko dute; izan ere, kuartrola, domino eta billar kanporaketak izango dira. Maiatzaren 11n, eguena, umeentzako marrazki lehiaketa izango da arratsaldean, eta ondoren, txokolate-jana eta puzgarriak zentroko terrazan. Ho-

rrez gainera, *Extremadura, paisaiak, dantzak eta abar* izeneko argazki erakusketa ere eskainiko dute. Egubakoitzean, hilaren 12an, saiheski-jana izango da, eta, gaua girotu nahian, kontzertuak eskainiko dituzte: Javi Gil Y Su Grupo eta Iker Alonso eta Sara Carmona izango dira. Zentroko sevillana taldeak ere ikuskizuna eskainiko du, eta, jarraian, Azahar flamenko taldea ikusteko aukera ere izango da. Zapatuan, besteak beste, tortilla lehiaketa, lehen-dakariaren brindisa eta Raices Y Brotes eta Alegria De La Sierra folklore taldeen ikuskizunak izango dira. Aste Kulturalako afaria egingo dute eta dantzaldia ere izango da. Asteari amaiera emateko, txikiteo herrikoia, txapelketen finalak eta sari banaketak izango dira domekan, hilaren 14an, hain zuzen ere.

Rock musikarien

erretratuen

erakusketa hilabetez

Gaur arratsaldean inauguratuko da Koldo Orue bilbotar argazkilariaren erakusketa. Eta, bertan, rock musikarien 20 erretratu ikusteko aukera izango da. Erakutsiko dituen argazkien artean daude: Nashville, Bells-rays, The Wizards, Wyoming... Talde horiek Euskal Herrian egin dituzten kontzertuetan aterakoak dira, hain zuzen.

Inaugurazioa arratsaldeko zazpi eta erdietan izango da, Kajoi tabernan; han, Mundu Inigoatek, Plan B taldeko gitarra-jole donostiarrak, Ramones taldearen bertsio akustikoak joko ditu. Erakusketa gaur hasi eta ekainaren 5era arte egongo da; eta, argazkiak erakusgai egoteaz gain, salgai ere izango dira. Hau da Gipuzkoan dagoen bigarren aldia; izan ere, Bergarako gozotegi baten izan zen alde zurretik. Gainera, Bilbon ere hainbat alditan izan da.

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta

arrasate

beinke



Duela urtebete Agurainen egin zuten antzeko formatu bateko saio bat, proba modura. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Altxa Kopla Hori ekimena jarriko dute martxan gaur

Arabako Bertsozale Elkartek antolatuta, kopla doinueta oinarritutako zortzi saio egingo dira probintziako udalerrri desberdinetan, gaur hasi eta ekainaren 23ra bitartean; Aramaioko sei bertsolari arituko dira, baita alkatea ere, gai-jartzaile lanetan

Eneko Azurmendi ARAMAIO

"Bertsolariek kopla doinueta oinarrituta kantatuko duten zortzi saio izango dira gaur martxan jarriko den Altxa Kopla Hori ekimenean", adierazi du Asier Lafuentek, antolatzaileetako batek. Izan ere, gaur hasi eta ekainaren 23ra bitartean, doinu "herrikoi" horretan abes-

ten ariko dira Arabako 28 bertsolari herriz herri, sei gai-jartzailearen eta hainbat musikariaren laguntzarekin. Saioaren erdia musikarik gabe kantatuko dute bertsolariek eta beste erdia, berriz, kopla musikatuarekin osatuko da –aurrez erabakitako doinuekin–. Saio bakoitzean, lau bertsolari, gai-jartzaile bat

eta bi musikari egongo dira", zehaztu du Lafuentek.

Horrez gain, herri bakoitzean herriko talde batek kopla sorta bat kantatzea da helburua. "Herri bakoitzean saiaturako gara sustatzen herriko talde batek kopla sorta bat kantatzea, aurrez prestatuta eta paperean idatzita. Saioaren aurreko asteetan ira-

kasle bat joango da herri horretara eta izena ematen dutenekin kopla bat ekoiztuko dute, ondoren egunean bertan kantatzeko", dio Lafuentek.

Lagunartean

Arabako Bertsolari Txapelketa bukatu berri da. Txapelketa bezalako ekimen "itxi" baten ostean, parte-hartzaileagoa eta irekiagoa izango den ekimen bat martxan jarri nahi izan du Bertsozale Elkartek, Lafuentek esanetan. "Txapelketa oso formatu konkretua da, oso itxia eta bertsozaleek ere nolabaiteko maila bat duten bertsolariak entzun nahi dituzte bertan. Hain zuzen ere, txapelketako giro hori ez nagusitzeko helburua du ekimen honek, Arabako bertsogintzan txapelketa ez izatea erreferente eta foku bakarra". Izan ere, Lafuentek dio gizarteak askotan bertsolaritza txapelketarekin bakarrik lotzen duela eta hori baino askoz gehiago dela nabarmendu nahi izan du.

Gainera, azaldu du bertsolari guztiak ez direla ondo moldatzen txapelketetan eta horientzako beste aukera bat izan daitezkeela horrelako ekimenak, "lagunartean eta umore onean" egiten direlako, "txapelketak exijitzen dizun presio hori gabe". Hala, 28 bertsolarik eman dute izena.

Sei bertsolari aramaioar

Manex Agirre, Paula Amilburu, Andere Arriolabengoa, Xabi

Igoa, Aitor Ugarte eta Peru Abarrategi izango dira Altxa Kopla Hori ekimenean parte hartuko duten sei bertsolari aramaiorarrak. Horrez gain, Lierni Altuna alkateak ere parte hartuko du, gai-jartzaile.

Araian izango da, gaur, lehenengo saioa, 20:30ean, herriko plazan, eta bertan Manex Agirre arituko da koplatan; bigarren saioa Bastidan izango da –Bitoriano Txokoaren ondoan–, maiatzaren 12an, eta Paula Amilbururen txanda izango da orduan; hirugarrena Kanpezun, maiatzaren 19an, Andere Arriolabengoa eta Xabi Igoa ariko dira; maiatzaren 26an izango da laugarrena, Artziniegan, baina ez da Aramaioko ordezkariarik egongo; bosgarrenean Aitor Ugartek kantatuko du, ekainaren 2an, Oionen; ekainaren 9an Paula Amilburu izango da berriz, Lierni Altuna gai-jartzaile duela, Bastidan; zazpigarren saioa Agurainen izango da, ekainaren 16an, eta Peru Abarrategiren txanda izango da orduan; Azkeneko saioa Amurion eskainiko dute, ekainaren 23an. Xabi Igoak bigarrenez kantatuko du Amurrioko azken saio horretan.

TXAPELKETA BEZALAKO SAIO ITXI BATETIK ALDENDU ETA EKIMEN IREKIAGOA EGITEA DA HELBURUA



NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA

Istorio erreal bat

Gela ilun eta txiki bat. Izkina batean kokaturik dagoen leiho ñimiñotik aspaldian ez da eguzki printzarik sartzen. Txokoan, porlanezko koadro baten gainean utziriko koltxoi zahar eta zikin baten gainean erortzen utzi duzu zure burua.

Azkenengo kimioterapia sesioak lur jota utzi zaitu. Hezur eta azala besterik ez den gorputzak ehun kilo pisatzen duela dirudi. Goragalea da nagusi. Sabela hutsik izan arren, azkenengo okaren arrastoak nabari dira

ohe deitzen diotenaren alboan. Fisikoki bertan egon arren zure burua ihesi doa, imajinazioak eta esperantzak uzten dioten bezain urrun. Minak burua galtzera eramaten zaitu. Ahal bezain ozen egiten duzu oihu. Ez duzu erantzunik jasotzen.

INOIZ GERTATU BEHAR EZ ZENA INOIZ BERRIRO GERTATU EZ DADIN, LARUNBATEAN DENOK GASTEIZERA!

Orain imajinatu etxetik mila kilometrora zaudela, bakartuta, isolatuta. Eusten zaituzten hitz eta besoetatik aldenduta. Maite dituzun eta maite zaituzten guztiengandik urrun.

Arrazoi gehiago behar al duzu maiatzaren 6an, Gasteizen, Sare Herritarrak preso gaixoen kaleratzearen alde deitu duen mobilizazioan parte hartzeko?

Inoiz gertatu behar ez zena inoiz berriz gertatu ez dadin, larunbatean denok Gasteizera!

Aurtengo udalekueetan izena emateko epea zabalik dago

Maiatzaren 26ra arte egongo da horretarako aukera, ludotekara deituta, 945 44 53 74 telefono zenbakira

E.A. ARAMAIO

Urtero moduan, uztailean izango dira aurtengo udalekuak, eta izena emateko epea zabalik dago jadanik. Horretarako, eskaera orria eta bankuko agiria ludotekan entregatu beharko dira, maiatzaren 26a baino lehen.

Matrikularen prezioari dagokionez, familia bakoitzeko lehenengo umeak 60 euro ordaindu beharko ditu; bigarrenak 40 eta hirugarrenak, berriz, 30.

Esan bezala, uztailaren 5ean hasi eta 21era arteko hiru asteetan egingo dira udalekuak,

10:00etatik 13:00etara. Gainera, auzoko umeentzako autobusa egongo da.

Begiraleentzako deialdia

Begirale lanak egiteko deialdia zabaldu du Udalak. 17 urtetik gorakoa izan behar da derrigorrez, eta baloratuko dena da: begirale titulua, irakasle-ikasketak, EGA titulua, umeekin esperientzia eta Aramaiokoa izatea. Interesatuak 945 44 53 74 zenbakira deitu beharko dute, maiatzaren 26a baino lehen. Soldata 310 euro izango da.

"Ikastaro parte-hartzaile bat egingo dugu bihar"

JON ETXEANDIA GARAGARDOGILEA

Etxeandia Garardauak enpresako jabeak ikastaro praktikoa eskainiko du, eta, haren esanetan, bertan garagardoa egitea da interesgarriena, azalpenetan galdu beharrean

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Lorabarri Asteari hasiera eman-
go dion ekintza garagardo ikas-
taroa izango da. Jon Etxeandiak
emango du, hain zuzen ere, bihar,
zapatua, 10:00etatik 14:00etara,
Sastiñan. Garagardoa modu
sinplean egiten ikasteko auke-
ra aparta dela adierazi du hark,
bertan egiteko aukera egongo
delako.

**Zer da, zehazki, ikastaroan egingo
duzuen? Nola planteatzen duzu
horrelako ikastaro bat?**

Oso praktikoa izango da. Hel-
burua da jendea animatzea ga-
ragardoa etxean egin dezan.
Beraz, nire ustez, ariketa onena
da garagardoa bertan egitea,
guztien aurrean. Hala, ikusi
egiten dute nola egiten den. So-
lik teoria azaltzen baduzu, askoz
ere zailagoa da.

Teoria eta praktika, beraz.

Hori da. Interesgarriagoa da,
teoria azaltzen zoazen heinean,
garagardoa egiten joatea. Ikas-
taro parte-hartzailea izango da
eta lotea guztion artean egingo
dugu. Normalean, nik egiten
dudana da ikastaroa jasotzen
dutenak borobilean jarri egos-
ketaren inguruan, eta apurka-a-
purka azaltzen eta egiten joan
zer egiten ari garen eta zergatik.
Horrez gain, ze beste aukera
egon litezkeen ere azaltzen diet.



Jon Etxeandia. ETXEANDIA GARARDAUAK

**Zuk zeuk zer-nolako esperientzia
daukazu horrelako ikastaroak ema-
ten?**

Lantokian (Urduliz, Bizkaia)
bertan hilabetean behin ematen
ditugu ikastaroak. Horrez gain,
lantokitik kanpo ere bai, propo-
samenak jasotzen ditugunean.
Zazpi urte dira dagoeneko ha-
lako ikastaroak ematen dituda-
la; beraz, esperientzia apur bat,
behintzat, badut.

**Oro har, jendearen erantzuna zein
izaten da? Gustura gelditzen dira?**
Ikastaro hauek bete egiten dira
beti. Talde txikiak izaten saia-

tzen gara; izan ere, ikastaro
sakona da, lau ordu irauten du.
Horregatik, plazak mugatu egi-
ten ditugu, errazagoa delako bai
irakastea, baita ikastea ere. Jen-
dea, orokorrean, pozik irteten
da ikastarotik eta batzuk, gai-
nera, saiatu egiten dira etxean
garagardoa egiten.

**Zer zailtasun ditu garagardoa egi-
teak, zure ustez?**

Laburki, helburua da garaga-
rretik azukrea lortzea. Garaga-
rdoa egiteko zailtasun bakarra
osagaiak lortzean dagoela esan-
go nuke. Behin hori konpondu-

ta, oso erraza da. Gaur egun,
Interneti esker, gauzak asko
erraztu dira.

**Labur azalduta, zein da garagardoa
egiteko prozesua?**

Lehenengo helburua, azukrea
lortzea, beroarekin lortzen dugu.
Beraz, garagar aleak txikitu eta
berotu egingo ditugu; izan ere,
berez bihurtzen da azukre. On-
doren, iragazi, hau da, ura eta
hondakinak bereizi. Ur hori
ordubetez egosi berriro eta ba-
daukagu lehenengo mostoa.

**Zenbat garagardo mota egiten di-
tuzue zuek?**

Gure espezialitatea garagardo
desberdin asko egitea da. Azoka
askotara joaten gara, lantokian
bertan ere saltzen dugu gara-
gardoa. Beraz, oso erraz dauka-
gu garagardo mota ezberdinak
egitea. Baina gurea kasu berezia
dela esango nuke; izan ere, nor-
malean, ekoizpen handia duenak
lau edo bost garagardo desberdin
egiten ditu gehienez eta guk
20-25 inguru baditugu. Baina
arraroa da hori.

Asko dira, ezta?

Bai. Salmenta zuzena egiten
duzunean, jendeari garagardo
mota diferenteak probatzea gus-
taten zaio.

**Eta ikastaroetan zenbat zerbeza
mota egiten irakasten duzue?**

Niri, bi egitea gustatzen zait,
baina lantegitik kanpo emanda-
ko ikastaroetan zailagoa da hori,
denbora, azalpenak eta beste
hainbat faktore direla eta. Bai-
na lantegian bertan bai gustatzen
zait bi egitea, teknika desberdi-

**"20-25 GARAGARDO
MOTA DESBERDIN
EGITEN DITUGU, HORI
DA GURE
ESPEZIALITATEA"**

nak erabiliz eta azalpenak behar
diren moduan emanaz. Bihar-
koari begira, saiaturiko naiz bi
egiten, baina konplikatu izan-
go da. Ondoren, hala ere, mo-
kadutxoak izango dugu.

**Zein motatako garagardoa izango
da bihar erakutsiko duzuna?**

Nik beti esaten dut errazenetik
hastea dela onena. Hala, konpa-
ratzeko ere errazagoa da. Gaur
egun badaude fruituak eta bes-
te hainbat berezitasun dituzten
garagardoak, baina horiek askoz
zailagoak dira konparatzeko eta
garagardoa bera ona den jaki-
teko. Beraz, garagardo horia edo
gorria egingo dugu bihar.

**Gehien edaten direnak horiek al
dira?**

Guk gehien gorria saltzen dugu,
baina, orokorrean, gehien edaten
dena horia dela esango nuke.

**Aramaion eman al duzu ikastarorik
inoiz?**

Lehenengo aldia izango da bihar-
koa. Proposamena jaso genuen,
eta, normalean, horren urruti
ez dugu egiten. Baina familia-
rekin komentatu nuen, eta, ikas-
taroa emateaz gain, eguna ber-
tan igaroko dugu, irteera polita
irudituko zaigulako. Gainera, bes-
te ekintza batzuk ere badaude;
beraz, gustura joango gara.

**Nola salduko zenieke biharko ikas-
taroa parte hartuko dutenei?**

Aukera paregabea da garagardo
mundua gertutik ezagutu eta
garagardoa bera egiten ikasteko.
Gainera, jendeari ikasitakoa
etxean probatzeko gomendatuko
nioke, erraza eta merkea delako.

**"IKASTAROAN
IKASITAKOA ETXEAN
PROBATZEA
GOMENDATUKO NIEKE
GUZTIEI"**

**Astehenean odola
emateko aukera
egongo da**

Datorren astehenean, maia-
tzaren 8an, odola emateko au-
kera izango dute aramaiorrek.
Horretarako, autobusa jarriko
dute, 16:45etik 20:00etara bitar-
tean, kultura etxe ondoan.

Euskadiko Odol Emaileen El-
karteak ohartarazi du odola
ematea bizitza oparitzea dela
eta dei egin die herritar guztiei
odol eman dezaten.

**Zaborra lekuz kanpo
utzi izana salatu du
Aramaioiko Udalak**

Azkenaldian behin baino gehia-
gotan salatu izan du Udalak
zaborra eta traste handiak tokiz
kanpo eta egunez kanpo bota
izana, eta pasa den astean ere
Kruzetako kargadorean koltxoi
batzuk agertu zirela jakinarazi
du. Hori dela eta, Udal Gober-
nuak herritarrei eskatu die zen-
tuz jokatzeko eta toki eta egu-
nak errespetatzeko.

**1977an jaiotako
aramaiorrek kintada
egingo dute**

Uztailaren 15ean –zapatua– kin-
tada egingo dute 1977an jaiotako
aramaiorrek.

Otxandion izango da kintada
eta ondorengo deialdia egin dute:
1977an jaiotakoa bazara, Ara-
maiokoa izan edo bertan bizi
bazara, bidali mezu bat *aramai-
xo77@gmail.com* helbidera, zure
izenarekin, abizenarekin eta
telefono zenbakiarekin.

**Madriren astebete
pasatuko dute herriko
erretiratuek**

Maiatzaren 7tik 13ra bitartean
Madriren izango dira Aramaio-
ko erretiratuak. Torrejonon dau-
kate hotela eta, Madril hiriburua
bera bisitatzeaz gain, inguruko
zenbait herri ere bisitatuko di-
tuzte –Chinchon, Alcalá de He-
nares, Toledo, Aranjuez...–. 45
lagun inguru batuko dira bidaian
eta gidari pertsonalizatu bat
izango dute aste horretan zehar.

**Papargorri
abesbatzak lau
zozketa egingo ditu**

Papargorri haurren abesbatzak
saltzen dituen txartelak erosita,
maiatzeko egubakoitz guztietan
zozketatzen den ONCEko kupoian
ateratzen diren azkeneko bi zen-
bakiak saria izango dute. Ara-
maioko dendetako produktuz
osatutako otarre bat izango da
lau asteetan saria, eta, hain zu-
zen, zenbaki berak lau asteeta-
rako balioko du.



Neska-mutiko taldea Herriko Plazan elkartuta iazko udalekuetan. MIRARI ALTUBE

Bi aukera eskaini dituzte uztaileko udalekuetarako

Nagusienek 'Kirol Udalekuak' izango dituzte eta 3 eta 12 urte artekoek, 'Kirolez Blai'; batean zein bestean izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte eta Algara ludotekara edo Ibarra kiroldegira eraman daitezke izen-emate orria eta ordainagiria

Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko umeek eta gaztetxoek kirolez eta jardueraz betetako uda hasiera izango dute beste behin; uztailaren 3tik 21era bitartean ez dute aspertzeko astirik izango.

Kirol eskaintza nagusi

Bi eskaintza egin dituzte aurren. Batetik dago ohikoa, eta Loramendi elkartearen aisialdi taldeak izango du horren ardura. 3 eta 12 urte arteko umeak goiz eta arratsalde elkartuko dira Herriko Plazan hainbat jarduera egiteko, besteak beste, naturarekin uztartutako sormen ekintzak, txangoak eta ikuskizunak. "Aurren, haurrek, eurek, ere proposatu ahal izango dute egin gura dutena", jakinarazi dute aisialdi taldeko ordezkariak.

Kirolez Blai izena jarri diote eskaintza horri; izan ere, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailara artekoek, hau da, 8 eta 12 urte artekoek,

gutxienez astean hiru aldiz kirol jarduerak izango dituzte Ibarra kiroldegian zein kanpoan.

Bestetik, *Kirol Udalekuak* eskaintza dago, kiroldegiko begiraleen ardurapean. Eta Lehen Hezkuntzako bosgarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko gaztetxoei bideratu die. Horiek ere goizez eta arratsalde elkartuko dira –egubakoitzetan goizez bakarrik– kiroldegian bertan eta hainbat jarduera egingo dituzte: zenbati kirol modalitate, altxorren bila, eta kirolarekin zerikusia duten ekintzak eta jolasak.

Izen-emate epea zabalik

Izen-emate epea martitzena ezker dago zabalik eta hilaren 15ean, astelehena, itxiko dute. Prezioa 75 euro da bi kasuetan, eta Laboral Kutxan edo Kutxaban ordenatu behar da. Ondoren, izen-emate orria eta ordainagiria Ibarra kiroldegian edo Algara ludotekan utzi ahal izango dira.

Udalekuetako aukerak

Umeek uztailean izango dituzten aisialdi aukerak:

'Kirolez Blai'

- 3 eta 12 urte artekoak.
- Uztailaren 3tik 21era.
- Astelehenetik eguenera: 10:00-12:30 eta 15:00-17:00.
- 2013an jaiotakoak: 10:00-12:30.
- Herriko Plazan.

'Kirol Udalekuak'

- 5.LH eta 4.DBH artekoak.
- Uztailaren 3tik 21era.
- Astelehenetik eguenera: 10:00-12:30 eta 15:00-17:00.
- Egubakoitzetan: 09:30-14:00.
- Ibarra kiroldegian.



Oñatiko Natur Eskolakoek Arkupen jarritako erakusketa. M.A.

Okilen gaineko kontuak ezagutzeko erakusketa Arkupen

Euskal Herrian ohikoa den txoriaren bizimoduaren berri emango du eta bisita gidatua egingo dute hilaren 17an

M.A. ARETXABALETA

Oñatiko Natur Eskolak baso bihurtu du Arkupe kultura etxe-ko erakusketa aretoa okilaren bizimoduaren gaineko kontuen berri emateko, *Okilak eta biodibertsitatea* izenarekin.

Euskal Herrian zazpi okil mota bizi dira gaur egun, eta horietako bost ikusi izan dituzte Oñati aldean, horiek ikustea ez da eta hain arraroa.

Natur Eskolako kideek jakinarazi dute biodibertsitatea ez dela naturan espezie asko egotea bakarrik. Espezieen arteko harremanak edo oreka ere badela.

Izan ere, okilek enborretan egiten dituzten habiak eta zuloak beste animalia batzuek ere aprobetxatzen dituzte; muxarrek, esaterako. Hain zuzen, horren berri jaso dute erakusketan.

Bisita gidatua hilaren 17an

Horren gaineko argibideak bertatik bertara emango dituzte Natur Eskolako kideek maiatzaren 17an, eguaztena, 19:00etan. Erakusketa ikusi gura dutenendako ordutegia hauxe da: astelehenetik egubakoitzera 11:00-13:00 eta 18:00-20:00 eta zapatuetan, 11:00-13:00.



JOXE MIGEL URIBARREN

EGlko kideak batzokian

Aretxabaletako batzokian elkartu ziren Gipuzkoako EGIko hainbat kide –eskualdeko zenbait zinegotzirekin batera– joan den apirilaren 29an, Deustuko unibertsitateko historia irakasle J.A. Rodríguez Ranz lagun hartuta. Agirre lehendakariaren ondarearen bueltan jardun zuten *Bigarren errepublikatik gerra zibilera (1931-1936)* gaia aztertuta.

'Geroa Sortuz' futbol campuserako "gogotsu"

Zazpigarrenez egingo du Aretxabaleta kirol elkarteak eta izena emateko epea zabalik daukate maiatzaren 26a arte. Futboleko jardun, adiskidetasuna eta enpatia bultzatu, ingelesa praktikatu, eta aurtun, lehenengoz, adimen emozionala landuko dute



Hainbat ume eta entrenatzaile iaz egindako campusean. GOIENA

Mirari Altube ARETXABALETA

Futboleko jokatzeko gustuko duten neska-mutikoei aurtun ere aparteko aukera izango dute uztailaren 10etik 14ra lehenengoa, eta 17tik 21era bigarrena. Eta bakoitzean gehiekin 60 ume hartuko dituzte. Izena emateko epea, baterako zein besterako, maiatzaren 26an itxiko dute. Argibide gehiago gura dituenak hona bideak: gerosortuzkanpusa@hotmail.com eta [Facebook.com/gerosortuzkanpusa](https://www.facebook.com/gerosortuzkanpusa).

Entrenatzaile adituak

Orain arte legez herriko neska-mutikoei ez ezik, Euskal Herriko guztiei dago zabalik *Geroa Sortuz*, eta entrenatzaile eta begirale kualifikatuak gidatuko dutela iragarri dute UDAko ordezkariak. Astelehenetik egubakoitzera bitarteko egunez eguneko egitaraua zehaztuta daukate dagoeneko webgunean (udaretxabaleta.eus). Aurtengo nobedadeetako bat da herriko eta inguruko umeek gaua etxean pasatu ahal izango dutela gura izanez gero.



IMANOL SORIANO

futbola ardatz hartuta. Jolas kooperatiboak erabiliko ditugu, adibidez, horretarako. **Zein animatuko zenuke parte hartzera?** Futboleko jokatzeko gustuko duen edonor, noski, baina baita futbolzalea dena ere, Realzalea dena, adibidez, haiekin egotera joango garelako. Futbol entrenamendu asko izango ditugu, baina ez dugu lehiakortasuna bultzatuko, ondo pasatzeko da gure helburua, futboleko jarduna.

"Adimen emozionalari emango diogu garrantzi handia aurtun"

IKER ARRIOLABENGOA CAMPUSAREN ARDURADUNA

UDAKo futbol eskolaren arduradunak campusaren ardura ere izango du. **Berrikuntzarik izango da?** Azken urteotako egitaraua oinarri hartuta, aldaketa txikiak egingo ditugu; irteerak leku ezberdinetara, esaterako. Hala ere, oinarritzko saioak mantenduko ditugu: Anoetara joango gara, Zubietara Realeko jokalariekin egotera, ingelesa lantzen jarraituko dugu... **Zein balio landuko dituzue?** Futbolaren bueltako balio positiboak: errespetua, lankidetasuna, enpatia... Eta adimen emozionala. Horren gaineko lantxo bat egin dut neuk eta horri indarra eman gura diot campusean: kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia emozionala eta interakzio soziala landuko ditugu, betiere,

Bigarrenez egingo dute Dantza Astea maiatzaren 20tik 28ra

Dantzari eskainitako astea egingo dute Jaiki Gorputz Eremuak eta Udalak elkarlanean hilaren 20tik 28ra, eta egitarau mardula antolatu dute. Egun nagusia, hilaren 20a, zapatua, izango da eta ikuskizunak eta ikastaroak eskainiko dituzte orduan –izena aurretik ematea komeni da–. Swing saioa gidatuko dute Aiala Larreinak eta Paula De La

Fuentek (izena emateko: 688 86 21 87; langileek 12 euro eta langabeek 9 euro); hip-hop eta sormenezko dantza gaztetxoendako eta helduendako egingo dute (izena emateko: 688 81 96 65; gaztetxoak 4 euro eta gainerakoak 8 euro); eta *Kontakids* saioa Zigor Lasagabasterrek gidatuko du (izena emateko: 688 84 37 01). Klake ikastaroa, osterara, maiatzaren 21ean egingo dute Rafa Eizaguirrekin (izena emateko: 688 86 21 87; langileek 12 euro eta langabeek 9 euro).

Preso gaixoen aldeko manifestaziora autoetan joango dira

Larriki gaixorik dauden euskal presoak etxera! leloarekin bihar, Gasteizen, 17:30ean egingo duten manifestazioarekin bat egin du Aretxabaletako Sarek. Herritarrek ere hara gerturatzerako gonbidatu ditu, eta, autobusik antolatu ez dutenez Aretxabaletan, adierazi dute interesatuak Urbaltzen ager daitezela 16:00etan, handik autoetan joateko.

Guraso Foroko kideak Atxorrotxera joango dira domekan

Atxorrotxeko Egunarekin bat egingo dute Aretxabaletako Guraso Foroko kideak eta Eskoriatzako Hezkuntza Forokoak eta ikasturteko azken mendi irteerara hara egin datorren domekan, maiatzaren 7an. 10:00etan elkartuko dira Aretxabaletako Herriko Plazan, 10:30ean Eskoriatzakoan eta elkarrekin joko dute guztiek Atxorrotxera.

Flautarekin hasiko dituzte musika eskolako emanaldiak

Maiatzean hasi eta ikasturtea bukatu bitartean hainbat emanaldi eskainiko dituzte Leizarra musika eskolako kideak. Lehenengoa flautako ikasleena izango da, datorren martitzenean, hilaren 9an, 18:00etan, Arkupen. Bigarren kontzertua klarinete eta saxofoi ikasleek emango dute maiatzaren 16an, martitzena, 19:00etan.

'Baserrian amets' antzezlan domekan, umeendako

Eidabe taldeak *Baserrian amets* antzezlan eskainiko die 3 eta 6 urte arteko neska-mutikoei domekan, 12:00etan, Arkupen; sarrera 3 euro da. Amets nekatoa ezagutuko dute umeek, eta, bide batez, baserriko bizi-moduaren berri jasoko dute: ortua, abereak, lurra... Antzerkia, musika eta jolasak uztartuko dituzte Eidabekoek.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



aholkulariak-abokatuak

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura



Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus



Ama haurrarekin jolasean, biak poz-pozik. ZIGOR LASAGABASTER

'Contakids' lau saio egingo dira kirol etxean

Kontaktu fisikoaren, mugimenduaren eta jokoaren bitartez, umeen eta gurasoen arteko komunikazioa sakontzeko metodologia; 2, 3 eta 4 urteko haurrek gurasoei batera egitekoak dira, elkarren arteko konfiantzan oinarritutako erlazioa garatzeko

Imanol Beloki ARETXABALETA

Haurren garapenerako Kuku Miku elkartearen bitartez, 2, 3 eta 4 urtekoendako eta gurasoentzako ekintza bat egiten jarraituko dute Aretxabaletan, *Contakids* izenekoa.

Aste Santu aurretik 12 saio egin dira guztira, eta datozen bi hilabetetan lau saio egingo dituzte Aretxabaletako kirol etxean.

Lehenengo saioa maiatzaren 8an izango da; bigarrena, maiatzaren 22an; hirugarrena, ekainaren 5ean; eta laugarrena, berriz, ekainaren 19an. Guztiak, 18:00etatik 19:00etara bitartean. Saio bakoitzak 10 euro balio du, eta libreake dira; hala, saioko ordainduko da, eta ez dago zertan lehenengotik hasi beharrik. Irakaslea, berriz, Zigor Lasagabaster izango da, eta gurasoei dei egin die beraien haurrekiko konfiantza eta erlazioa hobetzeko saioetara animatzeko, eta, hain zuzen, probatuz zer den ikusteko.

ter izango da, eta gurasoei dei egin die beraien haurrekiko konfiantza eta erlazioa hobetzeko saioetara animatzeko, eta, hain zuzen, probatuz zer den ikusteko.

Onura handiko saioak

Contakids egitasmoa kontaktu fisikoaren, mugimenduaren eta jokoaren bitartez umeen eta

"Haurrek, pixkanaka, konfiantza hartzen dute, prozesu bat da"

ZIGOR LASAGABASTER IRAKASLEA

Contact dantza inprobisatua eginda dauka Lasagabasterrek, Haur Hezkuntza ikasketak ere bai, eta psikomotrizitatea lantzen ari da; hala, buru-bularri jarri da *Contakids* saioekin, eta horiek egitea oso garrantzitsua dela azpimarratu du.

Nola sortu zen *Contakids*?

Sortu baino gehiago, betidanik egin diren jokoak dira. Itai izeneko batek bere haurrarekin Youtube plataformara bideoak igo, eta jendea galdetzeraz joaten zitzaion. Hala, hark forma eman, eta hala sortu ziren saio hauek.

Zer egiten da saioetan?

Musika oinarri izanda, modu naturalean umeek gurasoei ariketak egitea da. Azken batean, elkarren artean konfiantza hartzeko eta umearekin denbora bat pasatzeko aukera ematen duena. Gaur egungo gizartearen



ZIGOR LASAGABASTER

ez dugu denbora hartzen horretarako eta...

Emaitzak nabariak dira?

Umeak ez ditugu derrigortzen ezer egitera. Hainbat arau azaltzen ditugu, eta garrantzitsuenak da umeak nahi duenean egiten uztea, presio barik. Hasieran, tentsioa ikusi daiteke, baina, pixkanaka, konfiantza hartzen dute. Prozesu bat da, eta hori da oinarria. Hala ere, gauza pertsonal bat da, emaitzak ere ezberdinak dira.

gurasoen arteko komunikazioa sakontzeko metodologia bat da. Bestalde, umeak gorputz mugimenduaren bitartez bere gaitasun motorrak eta bereganako konfiantza indartzen ditu. Gurasoek ere umeekin elkarrekiko konfiantzan oinarritutako erlazioa garatzen dute, euren burua berriro ume sentitzeko eta seme-alabak kondiziorik gabe laguntzeko. Zigor Lasagabasterrek honela azaldu du: "Gaur egungo gizartearen ez dugu denborarik hartzen haurrarekin jolasteko,

ezta berarekin egoteko, ez dago kontaktu fisikorik... Ondo pasatzeko saioak dira, baina haurrek 2, 3 eta 4 urte dituztenean egin behar den zerbait da, 5 urtetik aurrera independenteagoak izaten hasten dira-eta...".

UMEEN ETA GURASOEN ARTEKO ERLAZIOAN ETA KONFIANTZAN OINARRITUTA DAGO

Zapatuan ospatuko dute Udaberri Jaia Basabeazpin

Egun osoko ekintzez betetako egitaraua antolatu dute: kalejira, buruhandiak, bazkaria, euskal karaokea...

Goiena komunitatea

Basabeazpi / ARETXABALETA

Iritsi da maiatza, iritsi da udaberria eta udaberriarekin batera Aretxabaletako Udaberri Jaia, Arizmendi Ikastolak hamabigarren urtez antolatuko

duen jaia hain zuzen ere. Aurretik munduko jatorrizko herriekin bidaiatuko dugu, hauetako batzuk ezagutu, beraiengandik ikasi, eta era berean, gure identitate propioa munduan kokatzeko.

Goizean goiz Basabeazpin elkartuko gara guztiok, eta, jaiari hasiera eman ondoren, herriko txoko desberdinak bisitatuko ditugu munduko altxor desberdinen bila.

Kalejira, talo tailerra, buruhandiak, dantzak, Euskal Herriko doinu ezagunenekin euskal karaokea, eta bukatzeko, nola ez, ikastolako haur eta heldu guztien lagun den Argitxoren bisita izango dugu. 3, 2, 1, 0... Hasi da jaia! Gora udaberria!



Duela bi urte ospatutako Udaberri Jaian egindako bazkaria. GOIENA



Duela bi urte Atxorrotzeko Egunean batutako herritarrak. GOIENA

Atxorrotzeko Eguna ospatuko da domekan

Urtero lez, Eskoriatzako Atxorrotzeko Eguna maiatzeko lehen domekan ospatuko da; aurten, maiatzaren 7an, hain zuzen ere. Urteroko egitarau bera izango da, eta, eguraldiak laguntzen badu, jendez beteko dela aurreikusten dute antolatzaileek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urtero moduan, Eskoriatzako Atxorrotzeko Eguna ospatuko dute eskoriatzarrek maiatzeko lehenengo domekan; hau da, etzi. Hala, ohiturari jarraituz, 738 metro dituen tontorrera igoko dira herritarrak domeka honetan. Bertan goiza pasa eta arratsaldean herrian jarraituko dute ospakizunarekin.

Eskoriatzako Udalak eta Atxorrotx GKEk antolatutako jaia berrikuntza barik ospatuko da. 09:00etan, herria esnatzeko, txistulariek diana joko dute herriko kaleetan zehar, eta 10:30ean batuko dira herritarrak plazan, goranzko bidea hasteko, nahiz eta bakoitza nahi duen orduan igoko den. 11:00etan, berriz, meza izango da Atxorrotzeko Gurutze Santuaren ermitan, eta goiz osoan kanpai hotsak entzungo dira. Izan ere, ohiturak dioen moduan, bertako kanpaiak joz, ekaitzak uxatzen dira. Mezaz gainera, eguerdira arte taberna egongo da Atxorrotxen,

eta mokadutxo bat jan eta zer-bait edateko aukera izango da bertan.

Atxorrotxera igotzeko, berriz, hainbat bide erabiliko dituzte bertaratzen direnek: herrigunetik -zementuzko bidetik- igota, Bolibar auzotik, Leintz Gaztagako Dorleta Santutegitik gora... eta goiza bertan pasa ostean, arratsaldean, 18:00etan, herritarrek egindako tortillak salduko dituzte Herriko Plazan, Imanol eta Unai trikitilari eta pandero-joleek girotutako erromeriarekin. Atxorrotxen jarriko den tabernan eta plazako tortillen salmentan ateratako dirua, berriz, Atxorrotx GKEk bere proiektuetarako erabiliko du.

HERRITARRAK BIDE EZBERDINETATIK IGOKO DIRA ATXORROTX MENDIKO GAILURRERA

Egitaraua betikoa izan arren, modu askotan ospatuko dute herritarrek eguna. Mendi buelta eginaz, Atxorrotxen zerbait hartu eta behearantz bidea hartuz, gaztetxoek kasuan, kobazulotik sartu-irtenak eginaz... Hala ere, eguraldiak laguntzen badu, herritar ugari batuko da Atxorrotzeko gailurrean.

Hezkuntza Forotik hitzordua

Eskoriatzako Hezkuntza Foroak eta Aretxabaletako Guraso Foroak hitzordua jarri dute Atxorrotzeko Egunerako elkarrekin joateko. Plazan 10:30ean jarri dute ordua, bertatik goranzko bideari ekiteko. Aretxabaletako eta Eskoriatzako haur, guraso eta herritarrak gonbidatu nahi dituzte Atxorrotxera igo daitezen.

Domekan, 12:00etatik 14:00etara Atxorrotzeko Gaztelua. Denboraren Talaiatik dokumentala ikusteko aukera izango da Ibarraundin, eta DVDa salgai izango da.



Iñaki Ruiz de Egin eskultorea, Ibarraundin jarri duen erakusketan. I.B

Iñaki Ruiz de Eginoren erakusketa zabaldu dute Ibarraundin

'Arte bakarra bi hemisferiotzat' lana hilabete osoan egongo da ikusgai museoko ordutegian

I.B ESKORIATZA

Iñaki Ruiz de Egin eskultorea-*ren Arte bakarra bi hemisferiotzat* erakusketa zabalik da atzo ezkerreko Ibarraundi museoan, eta hilabete osoan izango da ikusgai, museoaren ordutegian.

Ruiz de Eginok, eskultore euskalduna izan arren, nazioartean egiten du lan, batez ere. Hala, oraingoan, bere lan zatitxo bat ekarri du herrira. Bere bildumako pieza gutxi batzuk jarri ditu Eskoriatzan, berak adierazi bezala: "Espazioaren arabera aukeratu ditut". Guztira, 16 eskultura jarri ditu: burdinazkoak, egurrezkoak, altzairuzkoak eta brontzezkoak dira. Horrekin batera, obra grafikoa jarri du, 12 grafikoz osatutakoa, figuratiboagoa.

Erakusketa maiatzaren 5etik 25era bitartean egongo da irekita herritarrentzat. Astelehenetik egubakoitzera bitartean,

12:00etatik 14:00etara goizez eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldean. Domeketan, 12:00etatik 14:00etara. Eta zapatuetan, berriz, itxita egongo da erakusketa.

Helburu zehatza

Erakusketa didaktikoa izatea nahi du egileak, marraztu eta diseinatze momentutik eskultura bilakatzerainoko bidea erakutsi nahi du. Batez ere, ikaste-teetatik joango diren haurrei zuzenduta egongo da.

Maiatzaren 16an, hitzaldia

Maiatzaren 16an *Una dimensión creativa* hitzaldia eskainiko du obra jarri duen eskultorea. 18:30ean izango da, Ibarraundin bertan. Artistaren lana nolakoa den, zer egiten duten, zergatik... azaltzen ahaleginduko da, eta hainbat artista ezagunekin izan duen erlazioa eta esperientzia kontatuko du bertan.

'Bullying'-aren gaineko tailerra izango da kultura etxean

Maiatzaren 10ean eta 17an, Hezkuntza Foroak antolatuta, *Bullying-a. Non dago muga?* tailerra eskainiko dute Eskoriatzako kultura etxean. Bi zatitan banatuta egongo da hitzaldia, gazte-leraz, eta Eli Moreno Carrillok emango ditu azalpenak; psikologoa, sexologoa eta bitartekari familiarra da hura, eta *bullying*-ari eta *ciberbullying*-ari

buruz arituko da. Bi saiotan banatuko da hitzaldia eta 18:00etan hasiko da, aurrez aipatutako bi egunetan.

Hain zuzen, *bullying*-a zer den, *bullying*-ari aurre egiteko zein protokolo dauden eta horiek nola erabili behar diren azalduko ditu hizlariak. Bestalde, *bullying*-aren eta gatazkaren arteko desberdintasunak argituko ditu. Tailerrera joateko ez dago izenik eman beharrik, eta bertaratzen denak aukera izango du dituen zalantzak argitzea.

"Ez garela ezberdinak helarazi nahi dugu"

TEO LAZARO MOTXILA 21 TALDEKO MANAGERRA

Atxorrotx Kultura Elkartearen egunean, maiatzaren 13an, Motxila 21 taldeak kontzertua eskainiko du Eskoriatzako plazan, 20:00etan hasita

Imanol Beloki ESKORIATZA

Motxila 21 ezohiko rock taldeak maiatzaren 13an Eskoriatzako plazan eskainiko du kontzertua, 20:00etan, Errekan Gora jaialdiaren harira, Atxorrotx Kultura Elkartearen egunean.

Nola sortu zen Motxila 21 taldea?

Duela hamabi urte sortu zen, emanaldi bat egiteko asmoz; bertan jotzeko abesti bakararra prestatu zen. Ordutik aurrera, rock taldea osatzea pentsatu zen, eta gaur arte.

Taldea nortzuek osatzen dute?

Down sindromea duten hamabi gaztek osatzen dute taldea, eta laguntzaile gisa dabilen beste bederatzi boluntario ere bai; tartean dira Barricadako Enrique Villarreal *El Drogas*, Marea taldeko *Kutxi* eta *Piñas*... Azken hirurak ahal duten guztietan etortzen dira kolaboratzaile gisa; Eskoriatzara etorriko diren ez dago jakiterik. Hala ere, gonbidapena egin diegu.

Zein da taldearen helburua?

Nire kasuan, manager moduan, ahalik eta emanaldi gehien lotu behar ditut ordainsaria handiagoa izateko. Motxila 21en kasua guztiz kontrakoa da. Gure helburua gazteen bizitza kalitatea ahalik eta hobereena izatea da. Estres barik ibiltzeko eskatzen diegu, disfrutatzeke, azken fi-



Teo Lazaro. MOTXILA 21

nean, afizio moduan izateko. Horregatik, emanaldi kopuru bat ezartzen dugu; hilean bi kontzertutik gora ez ematen saiatzen gara. Hala ere, bira egiteko proiektu bat daukagu.

Nora joango zarete?

Talde autofinantzatua gara. Ez daukagu diru laguntzarik, musikari boluntarioek ez dute sol-datarik... Beraz, gazteei ordaintzeko modu bezala taldean inbertitzea eta bidaiatzearen alde egiten dugu, opari gisa. Abuztuaren 5etik 12ra bitartean, Erromara joango gara. Bertan, aste

batean bi edo hiru emanaldi egingo ditugu, asko jota.

Hala ere, hainbat gastu izango dituzue?


Guk *cache* bat dugu, diru bat kobratzen dugu emanaldietarako alokairuetako, entsegu lokaleko gastuetarako... Gazteek ez diote diruaren pertzepzio horri perspektiba berarekin begiratzten. Horregatik, emanaldien ostean, merendola bat izatea eurentzat oso garrantzitsua izaten da, eta, aurrez esan bezala, bidaiak egitea, kontzertuak eskainiz, entseguak balira bezala.

Errepertorio zabala eskainiko duzue?
Bai; abesti batzuk bereziki taldearentzat idatziak eta eginda-koak izan direnak; batez ere, *El Drogas*-ek eta *Kutxi*-k eginak. Fitoren abestiren bat... Leire taldeko neska bat abesti askotan abeslaria da, baina perkusioa ere jotzen du... abesteaz gain, instrumentuak ere jotzen dituzte. Fermin Muguruzaren *Big Beñat* abestia jotzen dugunean, batek dantza egiten du...

Zer helarazi nahi du taldeak?

No somos distintos abestia aldarrikapen bat da, ez garela ezberdinak. Hala, esfortzu eta gogoia jarritz edozein helburu lortu daitekeela helarazi nahi dugu.

LEINTZ GATZAGA



Iazko Gatzagako auto igoera. GOIENA

Berrikuntzekin dator Gatzagako hogeigarren auto igoera

A+GAS taldea arduratu da antolaketa lanez, eta aurten lasterketa berezia izatea nahi dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatzagako auto igoerak hogeitau urte beteko ditu aurten, eta lasterketa Gatzagako errepide zaharrean egingo da. Iaz ere, bertan egin zen, Arlabango asfalto egoera txarrean zegoelako. Hala ere, iaztik hona aldaketa asko ez egon arren, aurten, Eskomotor eskuderiak Arrasateko A+Gas taldeari utzi dio antolaketaren ardura eta berrikuntzekin datoz.

Iazko bide bera egin beharko dute pilotuek, Kuartuenako etxeetan hasi eta Gatzagainera arte 4,8 kilometroko bidea, baina, parte-hartzaileei dagokienez, berrikuntzak sartu nahi izan dituzte A+GAS taldekoek. Honela adierazi du Oxel Etxebarria kideak: "Hemengo lasterketetan ikusten ez diren autoak ekarri nahi ditugu. Zerbait aurreratzearren, *Norma m20* auto bat izango da lasterketan... besterik

ez dugu aurreratu nahi, hala, jendea bertaratu dadin...". Gatzagako auto igoera uztailean egin izan ohi da azken urteotan, baina aurten orain egitea erabaki dute; horren arrazoia zein den azaldu du Etxebarriak: "Denboraldiko bigarren lasterketa izango da Gatzagakoa, eta horregatik aldatu dugu igoera eguna. Hain zuzen, jende gehiago gerturatzeko". 14:00etan hasiko da lasterketa, eta, 50 pilotu eta 30-35 boluntario izango direla aurreikusten dute. Beraiegatik ez balitz, ezingo genuke lasterketa gauzatu".

Errepide tartea itxita

Aingeru Guardako biribilgunean itxi egingo dute bidea, baina Mazmela eta Kuartuena auzoetan bizi direnek ez dute arazorik izango etxera joateko, betiere, kontrolean esanez gero nora doazen.

'Play-off'-eko finalerdia dute seniorrek, Idiazabalak

Areto futbol taldeko senior mailako emakumezkoek Idiazabalak aurka jokatuko dute, kanpoan. 18:00etan izango da, eta irabazleak finalerako sailkatuko dira. Saskibaloiko seniorrek, berriz, finalurrekoa Ibarra kiroldegian jokatuko dute Cafes Aitona Askatuak B-ren aurka, eta, irabazten badute, finala Eskoriatzan jokatuko dute domekan, 12:00etan.

Eskoriatzako udaleku irekietarako begiraleak behar dira

Txirikilak antolatutako udaleku irekiak uztailaren 4tik 21era izango dira aurten eta begirale izateko izen ematea maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik. Begirale izan nahi dutenek curriculum bidaliko beharko dute, bide hauek erabiliz: kultura etxera edo Tortolis ludotekara eramanda edo txirikila@gmail.com helbidera bidalita.

Hontza Extremara irteera antolatu du Tortolis ludotekak

Maiatzaren 13rako, Tortolisek Otxandion dagoen Hontza Extremarentzako abentura parkera joateko irteera antolatu du. 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako irteera egun osokoa izango da eta joan nahi duenak 15 euro ordaindu beharko ditu. Izena emateko, gazteria@eskoriatza.eus edo txirikila@gmail.com helbidera idatzi beharko da.

Ingurumen Astea ospatuko dute datorren astean

Aurten ere Ingurumen Astea izango dute Leintz Gatzagan. Aste osoko egitaraua prestatu dute eta ekintza ezberdinez osatuta egongo da.

Maiatzaren 8an, astelehenean, ekarpen-gunean batuko dira, 16:00etan, eta bertan, konposta galbahetu eta ontziratutako ingurumen dute, konpostaren egoera aztertzeke. Martitzenean, Gatzagako

eskolako umeei konposta banatuko zaie, hainbat azalpen emanda. Eguenean, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan batuko dira. *Gure ereduaz aztergai* hitzaldia emango dute, eta ondoren, pintxo dastaketa izango da. Egubakoitzean, ekarpen-gunean batuko dira, 16:00etan, eta hondakinen karakterizazioa nolako den aztertuko dute. Azkenik, zapatuan, San Miguel plazan umeendako jolasak eta Zirika Zirkus taldearen *Konpost eroak* antzez-lana izango da, 11:00etan hasita.

KILOMETROAK 2017



LEKAIXOKA!
KILOMETROAK 2017 OÑATI

www.kilometroak.eus

 [kmk17Onati](https://www.facebook.com/kmk17Onati)

 [@kilometroak](https://twitter.com/kilometroak)

 [kilometroakbideoak](https://www.youtube.com/kilometroakbideoak)



Ahotsa galdu arte, lekaixoka

Lekaixoa hedatzen hasi da, Oñatiko Txantxiku Ikastolak antolatuta irailaren 24an egingo den Kilometroak festaren abestia eta bideoklipa aurkeztearekin bat.

oerlikon
balzers

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08
info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es

Abesti bizia, Kilometroak iragartzeko

'Euskaraz gatoz lekaixoka' esaldiaren bueltan osatu da irailaren 24an Oñatin egingo den Kilometroak 2017 eguna iragartzeko abestia. Dantzagarria eta alaia da, Oñatiko hainbat musikarik auzolanean sortutakoa

Kilometroak 2017k baditu abestia eta bideoklipa eta biak ala biak aurkeztu dira joan den egubakoitzean, Zubikoa kiroldegian egindako ikuskizunean. Abesti alaia da, bizia, eta dantzagarria; Irailaren 24ko Kilometroetarako deia, lekaixoka, Euskal Herrira zabaltzeko aproposa. Iraunkortasuna, parekidetasuna, aniztasuna, inklusibitatea eta halako balioak barne-barnean ditu abestiak.

Badira ia bost hilabete oñatiar musikari talde bat aurtengo Kilometroak jairako abestia prestatzen hasi zela. Urtarrila zen, eta bi hilabetetan bazituzten, auzolana ardatz, abestia osatuko zuten melodia eta hitzak. Musika eta moldaketak auzolanean egin dira, Oñatiko hainbat musikariren eskutik. Hitzak, berriz, Oñatiko Txinparta Bertsu Eskolak sortu ditu.

Grabaketa martxoan

Martxoaren erdialdera egin zen abestiaren grabaketa. Elkarrek Donostian dituen estudioetan egin zen. Grabazioa, nahasketa eta masterizazioa Victor Sanche-

zen eskutik egin da. Abestia sortu auzolanean egin bazen, grabaketa ere modu berean egin da, hogeitaz inguruk hartu dute eta parte horretan. Gehienak oñatiarrak, baina badira kanpoko kolaborazioak ere.

Aurpegi ezagunak

Hain zuzen ere, herriko musikariak dira melodia landu eta grabatu dutenak. Trikitia, gitarra, baxua, tronpetak, ukelelea, bateria... Instrumentuetan musikari guztiak, herrikoak. Ahoz ipintzeko, kanpoko kolaborazioa ere eskatu da. Hain zuzen ere, ahotsa Amaia Azpiazu sopranoak, Agurtzane Mujika trikitilariak, Txantxiku Ikastolako ikasleak, Aitor Uriartek -Latzen-, Ruper Ordorikak, Zuriñe Hildalgok eta Anjel Alkainek ipini dute.

**HOGEI MUSIKARITIK
GORA ARITU DIRA
KILOMETROEN
ABESTIAREN
GRABAKETAN**



ARGAZKIAK: BERNAT ALBERDI



Natra Oñati



Arantzazurako bidean z/g • 20560 Oñati | Tel.: **943 71 63 69**

Landua eta berritzailea den bideoklipa, kalean

Iraunkortasuna, parekidetasuna, aniztasuna eta halako balioak transmititu gura ditu bideoklipak. Oinarrian, Kilometrotako logoak irudikatzen duen uhina dago. Uhin horrekin, bideoklipak Euskal Herrira zabaldu du, lekaixoka, Oñatira etortzeko deia

Apirilean grabatu da *Lekaixoka* bideoklipa. Kepa Aranburu eta Bernat Alberdi aritu dira zuzendari lanetan, eta, aktoreei dagokienez, nabarmendu behar da Uxue Murguzurrek egindako lana. Bideoklip berritzailea da, inondik inora. *Stop motion* teknikan oinarrituta, orain arteko bideoklipetatik desberdina den proposamena aurkeztu dute zuzendariak. Lanketa itzela eta zaindua egin dute. Gidoia pentsatzeari aspaldi ekin zioten eta apirilean egin dute grabaketa. Ia bi aste eman dituzte gau eta egun lanean eta emaitza joan den egubakoitzean aurkeztutako bideoklipa da. Txantxiku Ikastolaren alde egingo den Kilometroak jaiaren lan-ildo diren iraunkortasuna, berdintasuna eta inklusibitatea ditu bideoklipak ere oinarrian.

Euskal Herriari keinua

Euskal Herriko zazpi lurraldeei keinu egiten die bideoklipak. Hala, Iparraldeko zamaltzaina, Donostiako pirata, Iruñeko dultzaineroa, Bizkaiko arraunlaria eta Arabako ardo ekoizlea Oñatira datoz Kilometroetara. Txantxiku Ikastolako ikasleek ongietorria egiten diete ikastolako patioan bertan. Kontua da, baina, hori guztia neska gazte baten



Aranburu eta Alberdi zuzendariak eta Uxue Murguzur, protagonista.

irudimenean gertatzen den istorio bat dela. Protagonistak, supermerkatu baten dagoela, irrati esataria entzuten du esaten irailaren 24an Oñatin egingo dela, Kilometroak 2017 jaia. Horrek bere irudimena martxan ipini, eta amets moduko baten murgiltzen du.

Zuzendariak "nahiko pozik"

Kepa Aranburu zuzendariak azaldu du "nahiko gustura" gelditu direla emaitzarekin. Hala ere, penaz azaldu da ideia batzuk kanpoan utzi behar izan dituz-

telako: "Ez da denborarik egon dena egiteko". Bideoaren konzeptua da nabarmenduko lukeena: "Bideoa *Lekaixoka* logoa-ren metafora bezala landu izana... Asmatu dugula uste dut". Zuzendari Bernat Alberdik, bestetik, azaldu du Kilometroak jaiak inguruan sortzen duen ilusioa, balioak eta parte-hartzea islatu gura izan dituela bideoklipak: "Ikastolek inguruan sortzen duten dinamika, alegia. Horretarako, ume baten irudimenean sartu gara, kolorea eta dinamismo ikaragarria emanaz".



ARGAZKIAK: BERNAT ALBERDI ETA KEPA ARANBURU



egaralur
construcciones eraikuntza lanak

- > Eraikuntza lanak
- > Industria-nabeen eraikuntza
- > Obra Zibila - Urbanizazioak

- > Industrialde eta etxebizitzaren promozioa
- > Etxebizitzaren eraikuntza

50
años-urte
1967 | 2017

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 07 15 • Faxe 943 78 08 62 • www.egaralur.net



Txantxiku Ikastolako neska-mutikoak, Olatz Zugastiren 'Bizirik gaudelako' kantua abesten. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Juan Carlos Irizarrek sortutako 89ko Kilometroak jaiko kantua abesten.

Latzeneko abeslari Aitor Uriarte, ikastolako ikasleekin *Laztana* abesten.

Xuxurlaka eta deiadarka, lekaixoa badoa hedatzen

Juan Carlos Irizarrek, Latzeneko Aitor Uriartek, Ruper Ordorikak, Hor Konpon, Sharon Stoner eta Malenkonía taldeek eta Txantxiku Ikastolako neska-mutikoek hartu dute parte aurtengo Kilometroak jaiko kantua eta bideoklipa aurkezteko ekitaldian

Kilometroak 2017k baditu abestia eta bideoklipa. Jende lepo zegoen Zubikoa kiroldegian egindako ikuskizunean aurkeztu ziren, joan zen egubakoitzean. Emanaldi herrikoia izan zen, herriko hainbat musika taldek hartu baitzuten parte bertan. Bideoen eta esketxen bidez irudikatu zuten 1989tik gaur arteko ibilbidea eta urte horietan guz-

tietan Oñatik musikaren alorrean izandako bilakaera izan zen ikuskizuneko ardatza.

Juan Carlos Irizar musikari oñatiarrak sortutako 1989ko Kilometroak jaiko abestiarekin hasi zuten emanaldia; ikastolako neska-mutikoek eta irakasleek abestu zuten hori, musikaria pianoan zutela. Hor Konpon taldearen txanda izan zen gero,

eta, 21 urteren ostean, zuzenean aritu ziren. Txinparta bertso eskolakoek hartu zuten ondoren oholta; Iñaki Olalde eta Joseba Lasagabasterrek hiru bertso kantatu zituzten, herrian kulturaren alde sekulako lan egin zuten eta gure artean ez dauden Patxi Hipolitori eta Jose Mari Agirrebengoa *Txinpartari* keinu eginda. Latzeneko abeslari Aitor

Uriartek ere txalo zaparrada jaso zuen. Baita Sharon Stoner eta Malenkonía taldeek ere. Ruper Ordorikak, Ander Etxanizen laguntzarekin, *Zaindu maite duzun hori* abestu zuen. Eta Olatz Zugastiren *Bizirik gaudelako* kantua abestu zuten ikastolako ikasleek, ikastola posible egin zutenei omenaldi gisa.

Antzerkiak ere izan zuen bere protagonismoa, herriko Irazan Antzerki Gunearen eskutik, eta Markel Irizar txirrindularia eta Amaia Txintxurreta kazetaria ibili ziren aurkezle lanetan.

Bideoklipa, berritzailea

Bukaeran aurkeztu zen Kepa Aranburuk eta Bernat Alberdik zuzendu duten *Lekaixoka* bideoklipa. Ume batek Kilometroak jaiatzeko imajinatzen duena irudikatzen du ikus-entzunezkoak. *Stop motion* teknika erabilia

osatu dute hori eta ikastolako ikasleek eta herriko beste hainbat taldek hartu dute parte. Konfiantzaren pedagogia eta auzolana ere izan dute oinarri.

'Lekaixoka' abestia bukaeran

Zubikoa kiroldegia bete zuten ikusleek txalo zaparrada luze batekin hartu zituzten bai bideoklipa, baita abestia bera ere. Bukaeran, musikari talde ederra batu zen agertokian aurtengo Kilometroak 2017ren melodia *Lekaixoka* zabaltzen ari den abestia eskaintzeko.

89KO KILOMETROAK JAITIK GAUR EGUNERA BITARTEAN OÑATIN MUSIKAK IZAN DUEN BILAKAERA IKUSI ZEN

UGARTE

OÑATI

> HORMIGOIZKO EGITURAK
 > IGELTSEROTZA
 > ZAHARBERRITZEAK
 > PROMOZIOAK

ERAIKUNTZAK

943 78 05 54
 663 973 164

ugarte@cnes-ugarte.com



Nork bere irlatik ekarpena eginda, denon gozagai

Maiatzaren 21ean helduko da Oñatira Andoni Egaña bertsolariak, Belen Ibarrola artistak, Ainhua Garmendia sopranoak eta Pello Ramirez, Garikoitz Mendizabal eta German Ormazabal musikariek indarrak metatuz osatu duten 'Artxipielagoa' ikuskizuna

Elkarrengandik hurbil irla ugari dituen itsas zatia da, hiztegiaren arabera, artxipielago bat. Hori horrela, maiatzaren 21ean Oñatiko San Migel parrokiaren eskainiko duten ikuskizunari ezin hobeto jarri diote izena sortzaileek: *Artxipielagoa*. Izan ere, musika eta bertsolaritza, narrazioa, abestia eta bideo-proiektzioa dira ikuskizuna prestatzeko erabilitako osagaiak, artxipielagoa eratzen duten irlak.

Diziplina batean edo bestean, artearen eta kulturaren munduan dabilen sei pertsona izan dira indarrak, ametsak eta gaitasunak metatuz *Artxipielagoa* posible egin dutenak: Andoni Egaña bertsolaria, Belen Ibarrola artista, Ainhua Garmendia sopranoa, Pello Ramirez txelo eta eskusoinu jotzailea, Garikoitz Mendizabal txistularia eta German Ormazabal piano jotzailea. Ikuskizun ezberdin bezain berritzailea lortu dute elkarrekin.

Gogoetak eta beste

Ordu eta erdi inguru iraungo duen emanaldian, bertsolari zarratza izango da esatari lanean ibiliko dena, eta bere hizketaldian zehar irlen eta artxipielagoen inguruko gogoetak plaza-ratuko ditu, baita musikaren eta kulturaren inguruko hainbat hausnarketa eskaini ere. Egañaren esanek Garmendiaren, Ramirezen, Mendizabalen eta Ormazabalen musika eta Ibarrolak ikuskizunerako propio sortu dituen irudi eta bideo-proiektzioak izango dituzte bidelagun. Gogoetak zein musika entzunaz eta kantuan ere beraien aletxoak jarritz,

IKUSKIZUNEAN ZEHAR ANTZINAKO KANTA KLASIKOAK ZEIN ABESTI BERRIAGOAK ESKAINIKO DITUZTE



Ainhua Garmendia eta Pello Ramirez, Iruñean egindako emanaldian. ARTXIPIELAGOA

ezinbestekoa izango da, gainera, ikusleen parte-hartzea.

Bi atal

Ikuskizunak bi zati ditu: lehenengo atalak antzinako zaporea izango du, kultur ondare klasikoko abestiek eta abesti herrikoiek izango dute-eta protagonismoa –Jose Mari Iparragirre, Jesus Guridi, Eduardo Gorosarri...–; bigarrenean, aldiz, abesti berriagoak entzun ahalko dira, besteak beste, Mikel Laboaren, Itoizen eta Ken Zazpiren kantak. Mikel Otaolea arduratu da ikuskizunean entzungo diren abestien moldaketaz.

Sarrerak salgai

Maiatzaren 21eko emanaldia 19:00etan izango da, eta sarrerak eskuragarri daude dagoeneko. 12 euro balio du bakoitzak, eta Txan-txiku Ikastolako idazkaritzan, Txokolateixan eta *kilometroak.eus*-en eskuratu daitezke.

Ikuskizuneko programa

- 'Itsasoaren emazteak' Pello Ramirez
- 'Hara nun diran' Joxe Mari Iparragirre
- 'Nere amak baleki' Joxe Mari Iparragirre
- 'Adio Euskal-Herriari' Joxe Mari Iparragirre
- 'Idiarena' Eduardo Gorosarri
- 'Loa, loa' Herrikoia
- 'Oñazez' Herrikoia
- 'Ala baita' Jesus Guridi
- 'Aldapeko' Herrikoia
- 'Aurtxo seaskan' Gabriel Olaizola
- 'Ume eder bat' Tomas Garbizu
- 'Adiorik ez' Pello Ramirez
- 'Dantza nazazu' Pello Ramirez
- 'Nere herriko neskatxa maite' Benito Lertxundi
- 'Lau teilatu' Itoiz
- 'Ilargia' Ken Zazpi
- 'Txoria txori' Mikel Laboa
- 'Xalbadorren heriotzean' Xabier Lete



www.lana.eu

LANA





Martxoaren 25ean egin zuten aurtengo World Kafea gaztelekuan. GOIENA

Sormenak pisua izango duen eredua definitzen

Etorkizuneko Kilometroak jaiak izango duen eredua lantzen hasita daude eta hiru ezaugarri finkatu dituzte: orain arteko auzolana mantendu, komunikazio sarea indartu eta sormenari lekua utzi. Abenduan aurkeztuko dute hausnarketaren emaitza

Kilometroak jaiaren orain arteko ereduaz hausnarketa egin eta eredu berria diseinatzen ari dira azken urte honetan Gipuzkoako Ikastolen Federazioko kideak. "Oholtza, kontzertuak eta txosna. Hiru ezaugarri horiekin lotzen ditugu Euskal Herriko edozein jai. Eta Kilometroak jaiaren etorkizuneko eredu berria lantzen ari gara orain. Sormenak pisua izango duen eredu bat, adibidez", dio Kilometroak

jaiaren Ikastolen Elkarteko koordinatzaile Mikel Egibarrek.

Oñatin

Helburu horrekin, 2016ko urtarilean jarri zuten martxan Kilometroak Bidea izeneko prozesua. Jai horrek jatorrian eta egun dituen ezaugarriak aztertu, konparatu, eta etorkizunean nolakoak izan beharko dituen aztertu eta definitu gura dute prozesu horrekin.

Joan den urtean Bergaran egin zituzten jardunaldietan, 1977an Beasainen egin zen lehenbiziko Kilometroak jaiak eta Bergaran egin behar zutena alderatu zituzten. Bigarren World Kafea Oñatin egin zuten, martxoan, eta ondorio batzuk atera zituzten. "Auzolanak jarraitzen duela ikusi dugu. Egia da pisu nostalgikoa duela eta herri mugimenduaren dinamika beste bat zenean indar be-

rezia zuela. Gaur egun gizartea indibidualistagoa da, eta, higitu bada ere, badu bere misioa. Egun, 2.500 lagun inguruk auzolanari bideratzen diote euren aisialdiaren zati bat. Hori kontserbatu beharra dago. Nola? Komunikazio sarea indartuz", dio Egibarrek.

Auzolanaz gain, funtsezko ikusten du Egibarrek komunikazioa eredu berri horretan. Era berean, baina, kritikoa da teknologia berriekin: "Kontua ez da bakarrik informazioa ematea, informazioa trukitzea soilik, lanketa egitea baizik: aurrez aurre eginda eta sormenari ere aukera emanda".

2020an

Kilometroak Bidean prozesu horretan lantalde ezberdinak ari dira parte hartzen. Batzuetan, esaterako, federazioko eta ikastola ezberdinetako zuzendaritza taldeetako kideek hartzen dute parte. Beste batzuetan, orain arte egin diren Kilometroak jaietako batzorde konkretuetan parte hartu duten boluntarioek; txosten teknikoa landuko dute azken horiek. Eta ereduak horrela hartuko du itxura.

Egibarren esanetan, 2017ko abenduan aurkeztuko dute eredu berria: "Euskal Herri mailako eragile ezberdinen aurrean egingo da aurkezpene; batez ere, hezkuntza eragileen aurrean". Eta 2020an egingo den Kilometroak jaiak antolatzen duen herria izango da lehenbizikoa eredu hori aplikatzen, edo ez: "Egun, 2019ra arteko Kilometroak jaiak esleitura daude dagoeneko eta urtarilean esleitu da 2020koa zein herri antolatuko duen. Horko ikastolari tokatuko zaio auke-

ratzea eredu berri hau probatzea. Parte-hartzeari indarra eman eta kontsumo unilaterala murriztu gura izango duen eredu".

Ibilaldia eta Araba Euskaraz

Gipuzkoan bakarrik ez. Euskal Herriko gainerako lurraldeetako ikastolen federazioetan ere hasi dira eredu berri baten aukerari buruz berba egiten. "Eztabaida txikiena, agian, Iparraldean dago momentu honetan, han nahiko argi ikusten dutelako lakuaren bueltan egitea Herri Urrats. Bizkaian, Araban eta Nafarroan, berriz, hasi dira honen inguruan berba egiten. Dagoeneko mahai gainean dute jaietara datorren jendeari beste eredu bat eskaintzearen gaia. Egia da prozesu hau Gipuzkoan dagoela garatuen, besteetan ez dagoela hemen beste landua, ez dutela hemen beste aurreratuta". Geroko helburuak berdinak izango direla adierazi du, amaieran, Egibarrek: "Ikastola mundua eta Euskal Herriko jendartea elikatzea eta zerbitzua eskaintzea".

JATORRIZKO EZAUGARRIAK ETA ORAINGOAK KONPARATU ETA GEROKOAK ZEHATZU

BERGARAN ETA OÑATIN EGIN DITUZTE KILOMETROAK BIDEA PROZESUA LANTZEKO BI WORLD KAFE

Zure seme-alabek ezin hobeto pasako dute, ingelesa ikasten duten bitartean.

- Udaleku irekiak**
Arrasate eta Oñatiko zentroetan. Lanegunetako goizetan, ingelesa erabiliko dute ekimen dibertigarrien bitartez.
- Udaleku itxiak** (Ingeleseko Murgilketak)
Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa). Ingelesa modu oso naturalean barneratuko dute, egonaldi ahaztezin batean.
- eta askoz gehiago...**
Udaleku asko dauzkagu, orduetgi eta data eskaintza zabalarekin.

Informa zaitetz zure MONDRAGONLINGUA zentroan:

ARRASATE
Araba etorbidea, 4.
Tel. 943 71 20 55

OÑATI
Motxion, 7
943 71 60 00

Udalekuak

30 urte baino gehiagoko esperientzia dugu.

English

Aukera asko
2-4 aste uztailen

On line bidez izena emateko aukera badago:
www.mondragonlingua.com

mondragonLingua

Udaberriko eta udako moda ere lekaixoka dator

Denboraldi berriko moda iritsi da Kilometroak 2017ko dendara. Mahuka bako kamisetak, kirol-jertseak, monoak... Eta sasoi berriko eurtik babesteko, aterki berriak ere bai. Hori guztia eta gehiago egunero eskuragarri, Hankaluze dendan



ARGAZKIAK: ROBERTO MAIZTEGI

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak



Mekanizazio zerbitzu integralak

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es

Euro baten truke, txartel guztiek dute saria

Aste bukaera honetan eta Kilometroak egunean ipiniko duten tonbolan 20.000 sari inguru egongo dira. Oñatiko, bailarako eta Gipuzkoako enpresek emandako sariak dira: bizikleta, landa-turismoan egonaldia, museorako sarrera, aterkiak...

Tonbola batean txartela erosten duenak saria lortu gura izaten du. Hara joan eta aurrean dau den sarietako bat irabazi gura izaten du. Sari bat, euro bateko txartelaren truke. Bada, hori da Kilometroetako tonbolaren filosofia: ez dadila inor sari barik geratu. "Askotariko sariak lortu ditugu. Erantzuna oso

positiboa izan da. Pozik gaude. Txartel guztiek dute saria eta hori oso erakargarria izaten da", esan du Ainara Diaz de Gereñuk.

Txaketuanekeo bidegurutzean

Kilometroetako ekonomia batzordearen ardura izan da tonbola antolatzea eta sariak lortzea.

Bergarako jaialdia erreferentzia bezala hartuta –han 20.000 sari lortu zituzten–, enpresen eta merkatarien ateak jo dituzten, handik eta hemendik. Oñatiko, bailarako eta Gipuzkoako museoetara, tabernetara, dendetara, jatetxeetara, aisialdigunee-tara, landa-turismoetara... eta beste hainbat lekutara bidali

dituzte eskaerak, eta bueltan jasotako sariak prest dituzte dagoeneko. Oraingoan, 19.000 batu dituzte, baina helburua 25.000ra iristea da. "Aste bukaerako San Migel txiki jaiak aprobetxatuko ditugu tonbola zabaltzeko. Horren ostean, Kilometroak egunean egongo da txartelak erosteko aukera. Tartean badugu denbora opari gehiago lortzeko", esan du Diaz de Gereñuk.

Gaur, egubakoitza, arratsaldean zabalduko dute tonbola. Txaketuanekeo bidegurutzean egongo da. Bihar, zapatua, eta, etzi, domeka, ere leku berean egongo dira txartelak saltzen.


Askotariko sariak

Beheko argazkietan dituzue sarietako batzuk, baina askoz gehiago daude. "Ahalegindu

gara sari erakargarriak lortzen, baina, hor, betiere, saria eman duenak dauka azken hitza", diote antolatzaileek.

Euro baten truke, bizikleta berria, landa-turismo baten egonaldia, museo bat ikusteko sarrerak, ilea mozteko bonua, aterkiak, ipuinak... "Aukera zabala dago. Okerrenera, boligrafo bat edo txokolate-tableta irabaz daiteke; baina, zorte apur batekin, sari potoloren batekin joango dira etxera", azaldu dute ekonomia batzordekoak.

ORAINGOZ, 19.000 SARI DITUZTE BANATZEKO, BAINA HELBURUA 25.000RA HELTzea DA





ZUBIA

TECNOLOGIA
TUBULAR



**Espezialistak
hodi-formako piezetan**

NEMESIO ZUBIA S.A.
Zubillaga auzoa 74 • 20560 Oñati | Tel.: **943 78 14 10** | www.zubia.biz - zubia@zubia.biz



Zaharren egoitzan, kiroldegian eta Eltzian jarri ziren eguzki plakak duela hamar urte; 120.000 kW sortzen dute urtean. GOIENA

Energia berriztagarrien garapena zehazteko beka

Ingurumen arloko bigarren ikerketa beka zabalik dago. Energia berriztagarrien egoera eta horien garapena aztertu eta etorkizunean ze aukera egongo diren Oñatin jaso gura da beka honekin. Goiener kooperatiba bidelagun izango du Udalak

Oihana Elortza OÑATI

Anfibioei eta narrastiei buruzkoa izan zen lehendabizikoa eta energia berriztagarrien gainekoa izango da Udaleko Ingurumen Sailaren bigarren beka; *Energia berriztagarriak: iragana, oraina eta etorkizuneko aukera Oñatiko udalerrian* da ikerketaren izenburu zehatza. "Lortu gura duguna da energia berriztagarriek zein garapen izan behar duten etorkizunean eta zein arlotan. Proposamen horiek ikertu eta jaso gura ditugu", dio Ingurumen teknikariak, Aitor Gerenabarrenak.

Mende bat

Gaia aukeratzeko, herriko errealtatea hartu dute oinarri udal ordezkariak. "Oñatiko herriak 100 urteko historia du energiaren sorkuntza eta banaketari dagokionez. Alde horretatik iruditu zaigu badaudela arrazoiak aurtengo beka deialdia helburu horretara bideratzeko", adierazi du alkateak.

Mikel Biainek dioen moduan, 1890eko hamarkadan Hipolito Biain eta Juan Zubia oñatiarrek lortu zuten lizentzia ekimen pribatuaz lehen aldiz erretrako ura elektraindar bihurtzeko: Olate, Lamiategi, Ubao, Tokillo, Jaturabe. Ondoren, UCEMi saldu zioten. 1908-1915 bitartean Oñatiko Udalak energia ekoizpenerako bi lizentzia administratibo lortu zituen: Olaran eta Urdantegieta. Ondorioz, lehen elektraindar banaketa sarea sortu zen. Elektraindar beharra gora zihoan neurrian, beste pauso batzuk egin zituen Oñatiko Udalak. 1989an Union Cerrajerari Oñatiko Ur Jauziak erosi zion EVE-EHErekin batera eta

2016an EVE-EHE Oñatiko Ur Jauziak enpresatik atera zen.

Oraina

Egun, herriko energia kontsumoa bi multzo nagusitan bereizten da: industrial eta etxetiarra. "Lehenengoan, herriko kontsumoa, urteko, 140 milioi kilowatt (kW) da, batez beste. Etxetiarrean, aldiz, urteko kontsumoa 15 milioi kW da, batez beste. Esan beharrik ez dago kontsumo etxetiarra industrialarekin alderatuta oso baxua dela; kontsumo osoaren %10, alegia", zehaztu du Mikel Biainek.

Testuingurua asko aldatu dela ere badi Biainek, eta etorkizunari begira Udalak "zuhurtziaz" jokatu duela adierazi du: "Batez ere, aholkularitza egokiarekin jardutea da garrantzitsua. Legez ezarritako betebeharrak bete eta, aldi berean, elkartearen biziraupena bermatuko duen oreka bilatzea. Beka honekin etorkizunerako aukerak jaso gura ditu Udalak".

22RAKO ENTREGATU BEHAR DIRA PROPOSAMENAK ETA AUKERATUTAKO LANA, 2018KO ABENDUAN



IKER OÑATE

Badute arropa jasotzeko lokala

Kale Zaharreko 52. zenbakiko lokala ari da prestatzen Hermansoloña elkarteak, Caritasendako eta beste behar batzuetarako arropa jasotzeko. Udalak bi urterako alokatu du. Ekainaren hasieran egongo da herritarrendako erabilgarri eta elkarteko kideak lekualdatzea egiten ari dira orain; atzo, eguna, Saharara bidali zuten kargamentu bat.

Gaztetxoendako karaokea bihar San Miel Txikien barruan

Gaur, egubakoitza, hasiko dira San Miel Txiki jaiak, 19:00etan. Etzi gauera arte, musika, herriko artisauen azoka, mendiko bizikleta irteera, txorimaloak, auzoko emakumeendako luntxa eta auzoko enbaxkaria egingo dira. Berritasunen artean, bihar, 17:00etan, egingo den gaztetxoendako karaokea dago.

'Sirian jaioa' dokumentala emango du Hotz Oñatik

Sirian jaioa dokumentalean, Herman Zin argentinarrek haur aurpegia jartzen dio, gerratik ihesi Europara etorkizun bila heldu diren errefuxiatuen egoerari buruz hausnartzeko. Dokumentalak zazpi haurren bidaia kontatzen du, haien begiradatik abiatuta. Eguenean eskainiko dute, 20:00etan, zinema aretoan.

Beste bost tailer izango dira BiziPoz egitasmoaren barruan

Hauek dira maiatzerako eta ekainerako BiziPoz egitasmoaren barruan antolatu dituzten tailerrak: *Gaurkotatuna munduan: Brexit, Trump eta erre-fuxiatuak* (maiatzak 16); *Alkoholak, tabakoa eta kafea* (maiatzak 23); *Zaintzailea zaintzen* (maiatzak 30); *Globalizazioa* (ekainak 6); eta *Teknologia berriak eta mugikorren erabilera* (ekainak 13).

Ikastaro guztiak Euskaldun Berria gelan eskainiko dituzte, 17:00etatik 19:00etara. Doan izango dira, baina aurrez eman behar da izena. Horretarako bideak: ider@bizipoz.org helbidea edo 638 51 69 73 telefono zenbakia. Plazak mugatuak dira.

Aldarrikapen ekintzak antolatu ditu Trautik bihar goizetarako

Mugikortasun arazoak dituzten aldeko eguna antolatu du, biharko, Trauti elkarteak: "Mugikortasun Urriaren Bataurrekoak jantzita begiratzen hastea eskatuko dugu: zailtasunak dituenari bidea erraztu, eta ez atzeko bide bat egokitu". Horretarako, hainbat ekintza egingo dituzte bihar, Foruen plazan, 11:00etatik 14:00etara. Taldeko bazkide egiteko aukera ere egongo da, gainera.

Martitzenean Pedro Solis animazio film zuzendaria egon zen *Cuerdas* lanarekin eurak gonbidatuta: "Harrera ona izan zuten bi saioek, hunkitu ere egin ziren entzuleak", diote.



Miren Manias eta Susana Arrese, egitasmo horretako bi kide, unibertsitateko klaustroan. AMAIA TXINTXURRETA

Oñati Community, handituz doan ekimena

Oñatiko Lege Soziologia Institutuak sortutako plataforma horrek legearen bueltan herrian izan diren adituak eta ikerlariak jartzen ditu harremanetan. Oñatiri eta euskal kulturari buruzko atala ere badu, Oñati munduan zabaltzeko

A.T. / O.E. OÑATI

Oñatiko Lege Soziologia Institutua duela 28 urte zabaldu zuten eta bertatik 130 herrialdeetako 8.000 ikasle, irakasle eta ikerlari pasa dira. Horien arteko harreman sarea osatzeko, Oñati Community plataforma sortu dute. Dagoeneko 300 pertsonak eman dute izena, eta euren helburua da aurtengo 500era iristea zifra hori.

Harremanetan

"Konturatu ginen duela bi urte etorri ziren adituek ez zituztela duela 20 etorri zirenak ezagutzen, nahiz eta gai bera jorratu denek. Lantalde bat sortu genuen orduan, ezagutza hori guztia nola elkartu edo batu dezakegun lantzeko, eta horrela sortu zen plataforma hau", dio Susana Arresek.

Gune horrek jasotzen duen informazio guztia bisitariena, ikasleena, ikerlariena nahiz adituena, beraiek sartu dute. Legea da oinarria: "Legeak ezin dira

berdinak izan toki, arlo eta momentu guztietan eta gure ikerlariak horixe egiten dute, egungo legea zein den ikusi eta, aldatu behar bada, nola aldatu behar den aztertu. Adibidez, emakume indigenak eta feminismoa jorratu berri dugu. Oñatiarrek euren esperientzia kontatu dute, baina Kanadan, Afrikan edo Guatemalan nola bizi den ere entzun dugu. Ez da berdina, eta bata bestearekin ikasi eta entzundako proiektuak eurengana nola eraman landu dute", azaldu du Arresek.

Gai baten inguruan munduko herri edo kultura ezberdinetan legeak zer dioen edo bertakoek nola jokatzaren duten lantzen duten ikerlari eta adituak harremanetan

**MEXIKON EKAINEN
EGINGO DEN
KONGRESUAN 'OÑATI
SESSION' EKITALDIA
EGINGO DUTE**

jartzen ditu plataforma horrek, baina ez hori bakarrik. "Adibidez, oñatiar bat Mexikora badoa ikastera zein lanera, plataforman begiratu dezake Oñatin egondako norbait dagoen han, berarekin harremanetan jartzeko. Badakigu Afrikan, Sierra Leonako ikasle bat plataforma honen bidez jarri zela harremanetan Ghanako batekin", azaldu du Arresek.

Liburutegia

21.000 liburu eta beste horrenbeste aldizkari daude unibertsitateko liburutegian, munduko liburutegi aberatsena da lege soziologia arloan, eta hortxe ezagutu zuen Oñati Community dagoeneko bertako parte den Miren Manias. Oñati Community-ren barruan Euskal Kultura izeneko atalaren koordinatzailea da, egun, Manias: "Oñatiri eta euskal kulturari lotutako edukiak sartzen ditugu: gastronomia, paisaia, dantzak... agertzen dira, nortzuk garen eta non bizi garen jakin dezaten".

"Jabekuntza eskolak harrera ona izan du eta pozik gaude"

LEIRE ZUMALDE BERDINTASUN ZINEGOTZIA

Egitasmoa proiektu bihurtu gura du Udalak, elkarlanean

O.E. OÑATI

Andraitz Talde Feministak jarri zuen martxan Jabekuntza Eskola eta aurtengoa Udalak antolatu du. Ez da bakarria izango, ordea; jarraipena izango du.

Nolako harrera izan du aurtengoak?

Oso ona, eta oso pozik gaude emandako emaitzarekin.

Zer helburu zuten tailerrek?

Berdintasun batzordean adostu ziren, herriko talde feministen ekarpenak kontuan izanda. Sei ikastaro, hitzaldi bat eta ekitaldi bat antolatu dira, eta, bakoitzak bere helburu propioak izan baditu ere, guztietan helburu orokorra sexismoak emakumeon bizitzan duen eragina ezagutu eta bere ondorioak gainditzeko eta aurre egiteko tresnak eskuratzea izan da.

Nortzuek hartu dute parte?

70 izen-emate egon dira; 61 emakumek hartu dute parte. Gazteenak 22 urte zituen eta zaharrenek 63.

Zein izan da euren ekarpena?

Parte-hartzaileen balorazioak oso onak izan dira. Egin dituzten ekarpenei dagokienez, ikastaroen iraupena luzatu



Leire Zumalde. GOIENA

eta eskaintza handitzea eskatu dute. Irakasleen lana eta gaitasuna bikain baloratu dute.

Datorren urtean berriz antolatzeko asmorik badu Udalak?

Bai, noski, aurtengoa hasiera baino ez da izan. Ekimena sortzen ari gara eta jada 2017-2018 ikasturteko proposamenak prestatzen ere bai. Gainera, Oñatirako Jabekuntza Eskolaren proiektua egin nahi dugu, prozesu parte-hartzaile batekin baliatuz; herriko emakumeekin elkarlanean zer-nolako eskola izan nahi dugun erabakitzeko.



NIRE USTEZ

MARINA ETXEGOIEN

Faltsukeriak

"Egia lokarriak lotzen ari den bitartean, gezurrak munduari buelta ematen dio", hauxe entzun nion aurrekoan irratiko esatari bati, modan jarri diren *fake news*-ei buruz ari zela. *Fake news*-ak berri faltsuak dira; alegia, betiko gezurrak. Albiste faltsuak ez dira oraingo kontuak, betidanik existitu dira, baina orain inoiz baino azkarrago hedatzen dira Interneti eta, batez ere, sare sozialei esker.

Berri faltsu hauek, gehienetan, asmatutako albisteak dira. Nahita sortzen dira, interes eta helburu jakinarekin eta ia beti ondokoa mintzeko edota norbera goraipatzeko. Izan ere, herri mailako betiko zurrumurruek izaera globala hartu dute sareari esker. Zurrumurruekin gertatzen den bezala, gezur digitalek izugarritzko interakzio maila lortzen dute sare sozialetan eta hauen hedapena kontrolaezin bilakatzen da berehala.

Informazioak –benetakoa edo faltsua, hori gutxiengoa da– mundua mugitzen du. Politikariek eta agintariek ondo dakite hori, beraien mesederako erabiltzen baitute uneoro.



Antolatzaileak ekimenaren aurkezpenean, San Lorentzoko ermitan. GOIENA

Badatoz kontzertu ibiltariak, ermitaz ermita

'Ermitaz ermita, Oñati ezagutzen' bataiatutako egitasmoa antolatu dute herriko hainbat eragilek elkarlanean. Gisa guztietako emanaldiak antolatu dituzte maiatzaren 13an hasi eta uztailaren 1era bitartean egingo dituztenak

Iker Oñate OÑATI

Egitasmoak, herriko hainbat eragileren arteko elkarlana izan du oinarrian. Zehatz esanda, Ganbara Abesbatzak, herriko ikastetxeek, Oñatiko Parrokiak, Artixa taldeak eta zenbait argazkilarik antolatu dute egitaraua; horiek guztiak presente daude hitzorduetan.

Ermitaz ermita, Oñati ezagutzen izenpean aurkeztutako ekimenaren bultzatzaileek argi dute xedea: "Kultura eta hezkuntza bateratuz, musika korala aprobetxatuz, herriko ondarea ezagutzea". Aipatzea, egitasmoa eta egitaraua San Lorentzoko ermitan aurkeztu zituztela egubakoitzean, apirilaren 28an.

Bost kontzertu

Guztira, bost kontzertu ibiltari biltzen ditu egitasmoak; herriko ermita batean gauzatuko da horietako bakoitza. Zehazki, San Martineko, Zubillagako, San Lorentzoko, Araotzeko eta Madalenako ermitak izango dira

emanaldien agertoki. Ganbara ko kideez gain, ikastetxeetako ikasleek ere esku hartuko dute kantaldi horietan.

Liburuxka, ermiten bueltan

Herriko ermiten presentzia ez da egitarauko ekimenetara mugatzen. Izan ere, berorien argazkiak eta horien bueltako pasarte laburrak bilduko dituen liburuxka argitaratu dute. Argitalpenak, ikastetxeetan eta herriko bestelako gune publikoetan –kultur etxean, turismo bulegoan eta parrokian, kasurako– egongo dira eskuragai.

Bestalde, Artixa elkarteko kide Jerardo Elorzak liburuiko edukari hertsiki lotutako hitzaldia eskainiko du; Oñatiko ermiten

ERMITEN IRUDIAK ETA HORIEI BURUZKO PASARTEAK BILDUKO DITUEN LIBURUXKA ARGITARATU DUTE

inguruan gehiago jakiteko parada izango du bertaraturikoak. Oraindik ez dituzte hitzorduen eguna eta ordua finkatu.

Erakusketa, parrokiako klaustroan

Erakusketa ere antolatu dute. Bertan, liburuxkan argitaratu dituzten irudiak eta herriko zenbait ermiten maketatxoak izango dira ikusgai; horrez gain, ikasleek egindako zenbait lan ere bilduko ditu erakusketak. Santi Mendiola eta Joxe Fernandez argazkilariek hartu dituzte irudiak.

Hori hala, Mikel Goiangeruaren parrokiako klaustroan kokatu dute erakusketa; eta, maiatzaren 6an, 7an, 13an eta 14an irekiko ditu ateak.

Esan bezala, ikastetxeek ere zeresana dute ekimenean. Kontzertu ibiltarietan esku hartzeaz gain, herriko hamabost ermiten aurkezpen bideoak sortu dituzte; horiek, parrokiako klaustroko erakusketan eta kontzertu ibiltarietan izango dira ikusgai.

Lasterbidean-en esku hartzeko izen-ematea zabaldu dute

Ekimenaren baitan antolaturiko hainbat hitzordutan aurrez eman behar da izena

Iker Oñate OÑATI

Lasterbidean Nazio Elkartasun Lasterketaren bueltan antolaturiko egitarauko zenbait hitzordutan izena emateko epea zabaldu dute; maiatzaren 22ra bitartean egongo da apuntatzeko aukera.

Batetik, lasterketa luzea prestatu dute; 8,3 kilometro egin beharko dituzte korrika parte hartzaileek. Horrez gain, patin gainean egiteko zirkuitua ere antolatu dute ekimenaren bultzatzaileek: 9,2 kilometro izango ditu. Horietan bietan aurrez eman beharko da izena, www.herri-krosa.eus webgunean.

Horrez gain, aurrekoak baino lasterketa laburragoan esku hartzeko aukera ere izango da; hiru kilometroko ibilbidea prestatu dute horretarako. Bertan parte hartu nahi duenak, dena den, momentuan eman dezake izena.

Bestetik, 14:30ean, herri bazkaria egingo dute kiroldegian. Eskuragai jarri dituzte txartelak; Oñatiko Arrano Tabernan eta aurretik aipaturiko herri-krosaren webgunean izango da horiek eskuratzeko aukera, 15 euroren truke. 660 pertsonarentzat egongo da lekua; eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, menu vegetarianoa eskatzeko aukera ere izango da.

Aurkezpen ekitaldia

Maiatzaren 13an aurkeztuko dute Lasterbidean. Egun horretan, lasterketa luzerako prestatu duten ibilbidea egiteko aukera izango da. Gero, prentsaurrekoa egingo dute, ekainaren 4ko egitaraua aurkezteko. Dena den, oraindik ez dituzte aurkezpen eguneko orduak zehaztu; aurrerago emango dute behin betiko hitzorduen berri.

Mailari eusteko partidu garrantzitsua du Aloña Mendik

Asteburuan Martuteneri, sailkapenean azken postuan den taldeari, 4-0 irabazita, maila ez galtzeko lehiari berreldu dio Aloña Mendik. Hamabosgarren postuan den Beti Gaztek galdu ostean, gainera, hiru puntu aurretik dituzte lesakarrak. Garapenen bidea hartu nahian, Hernaniren aurka jokatu dute zapatuan, Zubipe futbol zelaian.

Zabaltzear da Arte Udalekuetan izena emateko epea

Aurten, seigarrenez, Arte Udalekuak antolatu ditu Udaleko Haur eta Gazteria Sailak. Besteak beste, marrazkigintzan, eskulturan eta margogintzan jarduteko aukera izango dute LH-3 eta DBH-3 bitarteko ikasleek. Maiatzaren 8tik 26ra bitartean egongo da udalekuetan izena emateko aukera, gaztelekuan. Plaza mugatuak dira.

Azken partidua saskibaloia saileko taldearentzat

Mailari eusteko urrats garrantzitsua egin ostean, asteburuan amaituko du Natra Oñatik denboraldia. Barakaldon jokatu du, zapatuan, Paules Skodaren aurka. Dena den, oraindik ez dute maila mantenduko duten ziurtasunik, beste taldeen emaitzek ere zeresana izango baitute horretan. Zapatuan 69-64 irabazi zuten partidua.

Eceolazaren liburu berria aurkeztuko dute kultura etxean

Joseba Eceolazaren Camino *Oscos y otras historias del 36* lana aurkeztuko dute gaur, kultura etxean; 19:00etan hasiko da. Zehatz esanda, 1936ko Nafarroako fusilatuen kontakizuna landu du egileak, Camino Oscos irakasle errepublikanoaren hilketatik abiatuta; Urban hil zuten. Bada, aurkezpenean egongo da Eceolaza bera.

Holokaustoa gogoratzera datorren omenaldia bihar

1944ko abenduaren 18an Alemaniako Dachau kontzentrazio-esparruan hil zen Pedro Axpe bergararrari omenaldia egingo diote bihar Munibe plazan (13:00); biktimaren senitartekoei hartuko dute parte eta Axperen omenezko plaka bat jarriko dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Ezohiko omenaldia izango da bihar Munibe plazan, holokausto naziaren biktima bat izango da-eta protagonista. Pedro Axpe (Bergara, 1906 - Dachau, 1944) izango da omendua, lau eragilek elkarlanean antolatutako ekitaldian: La Ilusion-ek, Amical de Mauthausen-ek, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak eta Bergarako Udalak. Omenaldia bihar izango da, hilak 6, Munibe plazan (13:00), eta bertan, besteak beste, Axperen omenezko plaka oroigarri bat jarriko dute eta biktimaren senitarteko batek hartuko du hitza. Lora eskaintzarik eta aurreskurik ere ez da faltako.

Memoria gogoratzera eta aitortzea

"Historian izandako gertaerarik ilunenetako eta laggarrienetako bat gaitzesteaz gain, nazien biktima izandako herritarraren memoria gogora ekarri nahi du Udalak. Bizikidetzeta lasaian eta errespetuan sinesten dugu. Uste dugu arraza, erlijio, kategoria sozial, sinesmen eta aldarrikapen politikoenatik edota sexualitateagatik inor ezin dela baztertua edo gutxietsia izan. Horregatik, naziek ehunka milaka pertsona hil eta jazarri zituztela gaitzesteaz aparte, horien artean izandako bergararraren memoria



Antolatzaileak, bihar Muniben jarriko den Axperen omenezko plaka erakusten. I. B.

gogoratu eta aitortu nahi dugu", agertu du asteon egindako aurkezpenean Elena Lete alkateak. Biharko omenaldiaren aurretik, atzo, hitzaldia eskaini zuten La Ilusion elkarteak Florentino Mariñelarenak eta Maria Jesus Amenabarrek udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Mariñelarenaren arabera, "oso garrantzitsua" da Axpe moduko holokaustoaren biktima izan ziren euskaldunei gertatu zitzaiena ezagutzera ematea: "Halako baldintzetan normalena hiltzea da, bizitzea baino. Gure

asmoa da Axperi gertatu zitzaiona jakinaraztea, eta, harago joanda, kontzentrazio-esparruen liberazioan hartutako erabakia eta adostasuna azpimarratzea. Hau da, halakorik berriro ez gertatzea".

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan bertan erakusketa jarri dute antolatzaileek, kontzentrazio-esparruetako argazkiekin.

Errepublikanoa eta sozialista

1906an Bergaran jaioa, 12 urte zituela Aretxabaletara joan zen bizitzera. Politikoki Union Re-

publikana eta Gaztedi Sozialista Batuko kidea zen, UGT sindikatukoa eta Nazioarteko Sorospen Gorriko herriko komiteko partaidea. 1934ko urriko iraultzan aktiboki hartu zuen parte; atxilotu egin zuten, eta hamasei urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Iruñeko San Kristobal gotorlekuan egon zen preso, 1936ko hauteskundeetan ostean Fronte Popularrereko gobernua amnistia eman zuen arte. 36ko Gerran Dragones batailoian aritu zen borrokan, hainbat frontetan, eta 1939. urtearen hasieran Kataluniatik Frantzia aldera egin zuen ihes.

1940ko ekainean harrapatu zuten naziek, 1944ko abenduaren 18an Dachauko kontzentrazio-esparruan lan behartuak egiten ari zela hil zen arte.

"Duintasunaren aldeko" borroka

Nazien basakeriaren biktima izan zen Axpe, eta, Elena Lete alkatearen arabera, gaur egungo gizartearen oinarriak ezarri zituenetako bat izan zen bergararra: "Naziek erakutsi zuten faxismoa eta totalitarismoa borrokatzen saiatu zen Pedro, pertsonen askatasuna eta azken finean, duintasunaren alde borrokatuz. Gaur egungo gizartearen oinarriak eratu zituztenetako bat da, eta oroimen historikoaren zati garrantzitsua. Horregatik, merezitako omenaldia egingo zaio". Antolatzaileek bergarar guztiak gonbidatu dituzte biharko ekitaldian parte hartzera. "Historia ez dugu inoiz ahaztu behar, berriro gertatzeko arriskua dago eta", gaineratu du alkateak. Bailaran, Elgetan ere omendu zituzten holokaustoaren biktimak; Gipuzkoan, Zarautzen, Hernanin zein Errenterian ere antolatu dira omenaldiak.



Pedro Axpe. JOSE RAMON INTXAUSPE

Lan behartuak egiten hil zen, errepidean

Pedro Axpe Bergaran jaio zen, 1906ko irailaren 20an. Errepublikaren aldeko borrokalari aktiboa, 1939an Kataluniatik Frantzia aldera joan behar izan zuen, Franco errepublikanoen setioa ixten ari zelako. Frantziako hiru errefuxiatu-esparrutan egon zen eta 1940ko ekainean, naziek Frantzia okupatu zutenean, kontzentrazio-esparruetara pasatu zuten.

1944ko abuztuaren 28an Alemaniako Dachau kontzentrazio-esparrura deportatu zuten. Dachauan sei hilabete iraun zuen bizirik; errepide bazterrean utzi zuten naziek, lan behartuak egiten ari zela lantaldeari jarraitu ezinik zegoelako. Dachau hil zen Axpe, abenduaren 18an, holokausto naziaren biktima.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxe: 943 76 04 77

Azoka eta lehiaketa giro onez eta modaz jantzita

Bergara Bizik, Bedelkarrek eta Udalak lehenengoz antolatu dute Street Style Gaua deritzon azoka urbanoa, Santa Ana parkean (18:00-23:00); herriko hamasei dendak udaberriko produktuak saltzeaz gain, hogeitaz lagunek 'look' lehiaketan hartuko dute parte

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara Bizi ekimenak, Bedelkarrek eta Udalak elkarlanean antolatuta, lehenengoz egingo dute bihar, maiatzak 6, Street Style Gaua deritzon azoka urbanoa, Santa Ana parkean. Parkea 18:00etan irekiko dute eta 23:00ak arte aisialdirako tartea egongo da. Gaur egun modan dauden udaberriko produktuekin eta material berrerabilgarriekin osatutako azoka izango da. Herriko hamasei saltokik erakutsiko dituzte euren eskaintzak azoka berezi horretan; arropa, osagarriak, dekorazioa, estetika... Azokarekin batera Eruanek taberna postua jarriko du eta

musika saioak izango dira, Moitui eta Mary May taldeen eta Pino Voice DJaren eskutik.

Antolatzaileek bergararrak parte hartzeri animatu nahi dituzte: "Herriko saltokien azken eskaintzez, lehiaketaz, gastronomiaz eta musikaz gozatzeko".

Bat-bateko 'look' onenari saria

Street Style Gaueko ekintza berezi moduan, jantzi lehiaketa egingo dute. Izen-ematea eguaztenean itxi zuten eta antolatzaileak "pozik" daude lehen lehiaketa horretarako animatu den jendearekin. "Hogeitaz lagunek eman dute izena; hamasei emakume eta lau gizonezko. Ko-

puru polita da; izan ere, bederatziz jantzi dendak hartuko dugu parte lehiaketan eta gainerakoek osagarriak saltzen dituzte. Hala, bi parte hartzaile izango ditugu dendako; hori zen gure helburua, eta bete dugu", adierazi du Bedelkarreko Ainhoa Garitanok.

Parte hartzaileek praka bake-roak eta kamiseta zuria jantzita joan beharko dira azokara. Aurrez izendatutako postuan goiko arropak eta elementuak hartu eta 30 minututan *look* urbanoa prestatu beharko dute, dendararen aholku barik. Ondoren, agertokian jarriko dira eta herriarrek erabakiko dute, boto bidez, zein den *look* irabazlea.

Udalak 15.000 euro bideratu ditu Erasmus Plus proiektura

Herriko gazteen formazioa zabalteko Erasmus Plus proiektuari esker, 15 eta 17 urte arteko hamabi nerabek Alemaniako Wiesbaden hiriko gazteekin elkartrukea egingo dute, irailaren 18tik 24ra –Bergaran– eta urriaren 9tik 15era –Alemanian–. Izena eman behar da www.bergara.eus webgunean hilaren 19a baino lehen; Udalak 15.000 euro bideratu ditu.

Maiatzean ere ez da aspertzeko astirik Xabalote Gaztelekuan

Goiena komunitatea

Jardun eta Udala / BERGARA

Aste Santuko programazio bereziaren ostean, berriz ireki ditugu Xabalote Gaztelekuko ateak. Sekulako egitaraua prestatu dugu maiatzerako, eta zutailera bitartean zabalik egongo da; lagunekin egoteko toki lasaia, eta tailerrak, irteerak zein lagun berriak egiteko primerako lekua!

Auzolanerako deialdi irekia bihar Kartzela Zaharra txukuntzeko

Bihar, maiatzak 6, 09:00etan elkartuko dira gaztetxean eta goiz osoan zehar arituko dira lanean. "Espazioak egokitzeaz gain, urteurrenari begira txukun-txukun jarriko dugu. Hamaika lan egingo ditugu". Bilera gela berria egin, zinema areto txikia sortu, sukaldea eta jangela egokitu, hainbat ziega margotu, patioa txukundu, garbiketa lanak...

OHARRAK

Bergarako hitanoa

Gaur da ikastaroan izena emateko azken eguna. Izena emateko: 943 76 44 53 (Udal euskaltegia). Prezioa: 10 euro.

1952an jaiotakoak

Maiatzaren 27an elkartuko dira. Izena emateko azken eguna da maiatzaren 19a. 20 euroko ordainketa egin behar da: ES17-3035 0009 18 0090098783 (Laboral Kutxa).



CLINICA DENTAL BERGARA

20 urte
baino
gehiagoko
esperientzia
inplantologian

*Izugarri kostatzen zaizu
dentistarengana joatea?
Gurekin ez!*

- Lehen bisita doan eskaintzen dizugu.
- Beste iritzi bat konpromiso barik.
- Gertuko tratu profesionala.
- 60 hilabeterainoko finantzazioa.
- Hortz aseguruetan estaldura

(DKV, Mapfre, IMQ/ADESLAS, Santa Lucia, Ocaso, Previsora Bilbaina, Orbita...).

RPS: 207/12

"Ohorezko Maila da gure tokia, merezi izan dugu"

IOSU ELORTZA ETA IÑAKI MARDARAS BERGARAKO PRESIDENTEA ETA JOKALARIA laz puntu bakarragatik ez zen lortu eta aurtan, hasieratik ligari ondo heldu ostean, bi jardunaldi sobratu zaizkio Bergarari Ohorezko Erregional Mailarako txartela lortzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Getariako 5-0 menperatuta lortu du Bergara Kirol Elkartek igoera. Behin-behineko presidentea eta lehen taldeko atezaina asteen izan dira Goiena telebistan, luze eta zabal berbetan. **Zorionak! Nahikoa ospatuta?**

Iosu Elortza: Zapatukoa egun ederra izan zen, bixamona pasatu dugu. Aurrerago etorriko dira ospakizun gehiago.

Iñaki Mardaras: Astelehenean jai izateak asko lagundu zigun bixamonarekin [barreak].

Esperotako igoera izan da?

I.E.: Iaz gutxiagatik egin zuen ihes igoerako txartelak, puntu bakar bategatik ez ginen igo. Aurtan hasieratik ikusi dugu maila handiko taldea zegoela eta ia denboraldi osoa egin dugu lehen postuan.

Zer da mailaz igotzea?

I.M.: Bergarak Ohorezko Mailan egon behar du. Iaz pena handia izan zen ez igotzea; entrenatzailer berria, hasiera zaila... Iaz, ez igo arren, oso pozik amaitu genuen. Aurtengo lanarekin oso harro egon gaitezke.

Eta ze ondorio dakar maila galtzeak?

I.E.: Gipuzkoan Ohorezko Maila da lehena eta bilarako taldeak, orokorrean, maila horretan daude. Lehia horrek zale gehiago erakartzen ditu, eta aurkariak



Iosu Elortza eta Iñaki Mardaras, asteen, Goiena telebistako platoan. JOKIN BEREZIARTUA

"AKATSAK EGITEN DITUGU, EZ GARA PERFEKTUAK, BAINA EUSKARAREN GAIA AURRERA GOAZ"

ere hobeak dira. Erregional Preferenteko talde asko bigarren taldeak dira... Igartzen da. Bergarak, duen harrobiarekin eta historiarekin, Ohorezko Erregional Mailan egon behar du. Merezitako lorpena izan da.

Datorren denboraldiko erronkari hiltzeko gogotsu zaudete?

I.E.: Bai. Liga oso exigentea da baina uste dut taldea badagoela erronka berriari aurre egiteko. Gerra emango dugu, seguru.

I.M.: Lagunak ditugu bilarako beste taldeetan eta derbiak jokatzekeo partidu oso politak izaten dira. Erronka handia izango da liga berria, baina uste dut Bergarak ondo helduko diola.

Igoera alde batera utzita, joan den asteko GOIENA aldizkariako iritzi artikulu baten azaltzen zen Bergararen gazte mailako partidu baten

gaztelania hutsez aritu zirela. Zergatik haserretu zineten?

I.E.: Kasu puntual bat aipatzen zen eta hortik orokortasunean erortzea arriskutsua da. Duela bi urte sartu ginenean, gure lehentasunetako bat izan zen euskararen erabilera sustatzea. Plana jarri genuen martxan Udalarekin batera. Zuzendaritzan pertsona bat arduratzen da gaiaz eta Udaletik ere, hiru hilean behin, jarraipena egiten dute entrenamenduetan zein hizkuntza erabiltzen den jakiteko; bereziki entrenatzaileengan zentratzen dira. Uste dut emaitza onak ematen dabilela; badakigu perfektuak ez garela eta akatsak egiten ditugula, baina uste dugu gutxika aurrera goazela. Kirolean, gazteen formazioaz gain, euskara sustatu gura dugu.

I.M.: Euskaraz egiten dugu gehienbat. Entrenatzailea Azkoitiko da eta gaztelaniaz gutxitan egiten du. Jokalari batzuekin gaztelaniaz egin arren, orokorrean euskaraz aritzen gara.

Eibarrek Kirol Hiria Bergaran egitearen inguruan zer duzue esateko?

I.E.: Modu ofizialean ez dugu berrik. Eibar ez da jarri gurekin harremanetan. Kirol Hiriak aurrera egingo balu, ez dakigu onuragarria edo kaltegarria izango zen guretako; izan ere, guk badugu hemen oinarria eginda. **Eta Athleticek Bergara harrobiko talde moduan hartzearen inguruan?** **I.E.:** Harremana egon da, baina marko normal baten barruan kokatuko nuke, Realarekin dugun moduan. Ona da klub profesional baten laguntza eta erreferentzia izatea; biekin izan ditugu harremanak, baina ez dira, oraingoz, harago joan. Guk nahi duguna da Bergaran kirola sustatzeko ahalik eta baliabide egokiak eskaintzea gure jokalariei.

Giroko porra egiteko aukera dago gaur eta bihar, Irala kalean

Ziklismozale batzuek antolatu dute Giroko porra, Lokatzaren laguntzarekin. Parte hartzeko aukera egongo da gaur -19:00etatik 21:00etara- eta bihar -11:00etatik 14:00etara-, Irala kalean. Saria lehen hamarrek jasoko dute eta beste hamar sari ere egongo dira, herriko komertzioek eskainita. Sailkapenak www.lokatza.com webgunean jarriko dituzte.

Udal Musika Bandak kontzertu pedagogikoa eskainiko du domekan

Musika Eskolako ikasleak izango dira protagonista Udal Musika Bandak domekan -Pilota-lekuan, 12:30ean- eskainiko duen kontzertuan, hurrengo ikasturtean joko duten instrumentua aukeratu ahalko dute eta egun horretan. Bestalde, Musika Eskolako 2017-2018 ikasturterako matrikulazioa zabalik dago ekainaren 2ra arte (943 76 57 80).

Zirkua eta antzerkia bateratzen dituen 'Spazi...o' Zabalotegin


Dikothomia konpainiaren *Spazi...o* obra bereziaz gozatzeko aukera egongo da gaur Zabalo-tegi aretoan (20:00). Barbara Govanek eta Endika Salazarrek dantza, antzerkia eta bereziki zirkuan lantzen diren teknikak ekarriko dituzte Bergarara, ikus-entzulea axolagabe utziko ez duen obran. Sarrera zortzi euro ordaindu beharko da.



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

**TELEIXA
BILTEGIAK**

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegaraia)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA



Eguaztenean egindako entseguan parte-hartutako neska-mutiko taldea bi irakasleekin batera. L.Z.

Intentzio irmoa dantzak ikasten jarraitzeko

Martxan da ikasturte honetako euskal dantzen ikastaroa. Bi taldetan banatutako 32 neska-mutikok hartuko dute parte. Aurrerantzean, astean behin elkartuko dira, Irati Kortabitarteren eta Amaia Rodriguezen laguntzarekin jaietako emanaldia prestatzeko

Larraitx Zeberio ELGETA

Borobil handia egin eta aurreko urtean ikasitako dantzak gogora ekartzen aurkitu zituen GOIENAK, eguaztenean, lehen taldeko neska-mutikoak. Tarte-ka, okarren bat eginez, baina, pixkanaka, forma hartzen joan ziren dantzak. Intentzioa, hori bai, irmoa zen. Dantzak politikak dira eta ondo egiteak meritu handia du 5 eta 9 urte arteko neska-mutikoendako. Bi hilabetez, eguazten oro jasoko dituzte Eibarko Kezka dantza taldeko Irati Kortabitarteren eta Amaia Rodriguezen eskolak. "Hemen izango gara 18:15etik 20:00etara. Lehenengo taldean 22 neska-mutiko ditugu eta bigarrenen, 14 eta 18 urte bitarteko hamar neska gazte", azaldu dute. "Saiatzen gara oinarritzko dantza erraz batzuk egiten, betiere, jaietako emanaldian eskaintzeko. Iaz neska gazteek esan zuten dantza-jauziak, fandangoa eta arin-arina ikasi nahi zituztela. Horretan eman genuen ikastaroa eta

dantza horiek eskaini genituen jaietan". Umeek ondo pasatzea

eta euskal dantzak ikastea da, azken finean, helburua.

"Dantza berriak ikasi nahi izaten dituzte"

IRATI KORTABITARTE
DANTZA IRAKASLEA

Bosgarren urtea da Elgetako neska-mutikoendako euskal dantzen ikastaroa egiten duela. Pozik da ekintzak herrian duen erantzunarekin.

Martxan zarete berriz ere. Aurreko astean hasi ginen, eta errepaso moduko bat egin dugu. Aurretik ikasitakoak errepasatzea eta dantza berriak ikastea da, azken finean, ikastaroaren helburua.

Dantza berriak ikasiko dituzue, orduan, aurten ere?



L.Z.

Bai; normala denez, dantza berriak ikasi nahi izaten dituzte urtero izena ematen duten neska-mutikoek. Ikusiko dugu zer iriteten den.

30 lagunetik gora dituzue aurten ere.

2013an hasi ginen ekimen honekin, eta, egia esan, urtero 30-50 neska-mutiko inguru izaten ditugu. Batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago, baina jende faltarik ez dugu izaten!

Tomate landarearen zainketari buruzko tailerra astelehenean

Herritar guztiei zabalik, ordu eta erdiko iraupena izango du saioak eta zainketa ekologikoa izango du oinarri

L.Z. ELGETA

Badator tomate-landareak zaintzeko urte sasoi eta Elgetako Udalarekin elkarlanean ordu eta erdiko tailer praktikoa eskainiko du Baratze Parke Sareak. Astelehenerako, maiatzak 8, iragarri dute. Elgetako baratze parkean egingo dute, 18:00etan hasita.

Tailerra elgetar guztiei dago zabalik eta doan da. Herrian aurretik ere ezagunak diren Aitziber Sarobek eta Mitxel Igarataundik gidatuko dute saioa. "Oraintxe dator tomate-landareak zaintzeko sasoi", azaldu du Kutxa Ekoguneko Landa garapen jasangarriaren arduradun Amaia Virtok. "Tailer praktikoa izango da. Landareak eramango ditugu, landatu egingo ditugu, ikusiko dugu nola kimatu behar diren eta baita ere nola ureztatu behar diren...". Tomate-landarearen hainbat barietate ba-

natuko dituztela ere jakinarazi du Virtok. "Elgetako baratze parkean egin nahi dugu tailerra. Erakutsi beharrekoak pantaila batean ikusi beharrean bertatik bertara erakustea da asmoa. Hori bai, eguraldi oso txarra egingo balu udaletxeko osoko bilkuren aretora mugituko genuke saioa". Virtok dio tomate-landarearen zainketaren inguruan beti sortzen direla galdera ugari: "Horiek ere argitzen saiatuko gara, noski. Landareen artean utzi behar den distantzia dela, izozteak direla, sor daitezkeen arazoak direla...". Elgetak, bestalde, bere kokapena dela eta baditu baratze lanetarako kontuan hartzea komeni diren zenbait ezaugarri. "Komeni izaten da, esaterako, landaketa berandutzea azken orduko izoztereren bat ez harrapatzeko. Saiatuko gara galdera horiek ere erantzuten", dio Virtok.



Landaketak Elgetako baratze-parkean. L.Z.

OHARRAK

Mendi irteera

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta, domekan umeendako mendi irteera Andastora. Taldea 09:00etan abiatuko da Elgetatik.

'Zumba' maratonia

Maiatzaren 13rako iragarri dute. Prezioa hamar euro da —ikasleendako zortzi euro—. Izen-emateak: 680 68 28 83 / 666 71 20 73 / 615 74 68 89.

ZUZENKETA

2016ko udal aurrekontuaren likidazioaren inguruan aurreko astean orri honetan argitaratutako albistean akats bat zegoen. Elgetako Udalak ez du gastuaren araua betetzen zaintzaren soberakina erabili duelako. Horrela adierazi zitzaion udalbatzari aurreko astean egindako osoko bilkuran. Ez dago, hortaz, plan ekonomiko finantzarioa egin beharrik. Zaintzaren soberakina ez erabiltzeagatik gertatu zela agertu zen argitaratuta orri honetan.

Irumendi, mende erdi abeltzaintzaren bueltan

Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko eta egiten duten lana ezagutarazteko asmoz, egitarau berezia prestatu dute biharko. Besteak beste, hitzaldia izango da Torresoroan, eta Loidiko etxaldea eta Gorlako larreak bisitatzeko aukera izango da

Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Abeltzaintzan diharduen Irumendi elkarteak 50. urte betetzen ditu aurten. Biharko, maiatzak 6, egun berezia antolatu dute, eta elkarteak hobeto ezagutzeko hainbat ekintza izango dira.

Lehenik eta behin, hitzaldia izango da Torresoroan. Kontatutako dute zer-nolako ibilbidea izan duten 50 urteotan, baina egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkez ere arituko dira. Ondoren, elkartekideekin bisita gidatuak egingo dituzte Irumendik Loidi gainean duen etxaldera eta inguruko belardietara. Gero, luntxa izango da Gorla Zurin. Biharko eguna bederatzi fundatzaile haiendako omenalditxo izatea nahi dute.

Kooperatiba moduan jarduten dute Irumendin, eta ganadua hazten dute, haragitarako, gehienbat, baina baita bizirik saltzeko ere. Gaur egun lau bazkide ditu Irumendik: Peio Legorburu, Mikel Mujika, Aitor Aranguren eta Anjel Zabaleta.

Bertako arraza

Irumendik gaur egun daukan egitura hartu zuenetik, herri behiekin dihardute lanean, pirinioar arrazarekin.

"Hasi ginenean, Gipuzkoan arraza horretako 40 behi baino ez zeuden kontrolatuta", dio Peio Legorburuk. Aezkoatik eta Zaraitutik ekarri zituzten lehen bigantxak, eta horrela hasi ziren.

"Urteotan, ernai dauden 2.500 bigantxa zabaldu ditugu Euskal Herrian eta estatuan zehar", azaldu du Legorburuk. Pirinioar arraza horren hobekuntza genetikoan ere jarduten dute. "Bertako arraza izanik hobekuntza horiek hemen egin behar ditugu, beste inork ez du egingo eta".

Belardi jasagarriak

Irumendikoek azalduko dute biharko bisita gidatuan belardien iraunkortasunari buruz



Irumendi elkartekoen behiak, Gorla inguruko larreetan. JOSU BILBAO

arituko direla. "Duela 30 urte otalorea bakarrik zegoen inguru hartan". Esfortzu handia egin behar izan zuten belardia jartzeko. "Harrezkero, errotazio sistema erabili dugu", azaldu du Legorburuk. Horrek esan nahi du, lehenik, bigantxa txikiak eta txahaldun behiak ibiltzen direla, eta atzetik, berriz, behi antzuak eta belarra gehiago moztzen duen ganadua. Neguan behorak ere eramane ohi dituzte, belar txarrik izan ez dadin.

Gorla eta Itxumendi inguruko gainetan dituzten larreez gain, beherago ere badituzte belardiak, Ugarrria inguruan, esaterako. 220 bat hektarea, guztira.

Etorkizunera begira

Irumendikoek diote eurei gauzak orokorrean nahiko ondo joan zaizkiela, eta erreleboa topatzeari ere ez diote aparteko arazorik ikusten. Izan ere, haiek jadanik badituzte belardiak, tresnak eta baliabideak, eta, hortaz, gazteak egin behar duen hasierako inbertsioa askoz ere txikiagoa da nork bere ustategia muntatzearekin alderatuta.

Dena den, Irumendikoek ez dute ukatzen etorkizunera be-

Egitaraua

- **10:00** Hitzaldia Torresoroan: *Irumendi: sorrera, ibilbidea, gaurkotatua eta etorkizuna.*
- **12:00** Ate irekiak Loidiko etxaldean eta bisita gidatua Gorlako larreetan.
- **Ondoren**, luntxa Gorla mendiko elkartean.

gira badutela kezka bat edo beste. Batetik, "abeltzaintzaren jarduna nahiko lotuta dago laguntzetara", eta bestetik, okelaren kontsumoak behera egiteak ere kezkatzen ditu. Ez hori bakarrik, ganaduaren gaitzak areagotzea ere arazo izan daiteke: "Iazko ehiza denboraldian Antzuolan ehun basurde ehizatu zituzten. Horrelakorik ez da orain arte sekula ere ikusi". Animalia basatien gainpopulazio horrek jada menderatuta zeuden zenbait gaitz berragertzea ekar lezake.

Jolasenea, mahai-jokoen inguruko elkarte berria herrian

Maiatzeko 'Catan' eta 'Carcassonne' mahai jokoen txapelketa bana antolatu dute Olaran Etxean

M.T. ANTZUOLA

Mahai-jokoetan aritzeko zaletasuna duen lagun talde batek Jolasenea elkarte sortu du herrian. Euren asmoa jendeari jokoak erakustea eta zaletasuna zabaltzea da.

Maiatzeko hitzorduak

Hilabete honetarako bi hitzordu iragarri dituzte: datorren astean, hilaren 14an (domeka), *Catan* txapelketa egingo dute, 17:00etan hasita, Olaran Etxean. Irabazleari *Exploradores* jokoa eman go diote, eta, horrez gain, estatutuko mailako finalean egoteko aukera ere irabaziko du.

Bigarren hitzordua hilaren 28an izango da, 17:00etan. *Carcassonne* txapelketa antolatu dute. Kasu horretan ere, irabazleak estatu mailako finalerako pasea eskuratuko du, baita *San Juan* jokoa ere.



Catan mahai jokoa. WIKIMEDIA

Parte hartu nahi dutenek Jolasenearen Facebookeko orrialdetako formularioa beteta eman dezakete izena. Aipatutako jokoak ezagutzen ez dituztenek edo bestelako argibideak behar dituztenek jolasenea@gmail.com -era idatzi dezakete.

'Agian (argian)' antzeztanaren estreinaldia bihar

Bihar, zapatua, maiatzak 6, *Agian (argian)* antzeztanaren estreinaldia izango da Torresoroa aretoan, Antzuolako Txiruli taldearen eskutik. 19:00etan hasiko da emanaldia, eta sarreraren prezioa 5 euro da. Antzeztan berezia izango da; izan ere, Juan Carlos de Petre dramaturgoak sortutako Antzerki Ezezaguna-

ren metodologiaren bitartez landu dute, "aktorea sortzaile autonomo moduan ulertzean datzan metodologia" erabiliz, Marisol Abreu zuzendariaren esanetan.

Sinopsia: Hiru gizon elkarrekin dira bidean, eta bideari aurre egiteko orduan, zailtasunean eta itxaropenean, konplize bihurtu dira. Aldizka, lagun egiten dien argi bat ere sumatzen da, eta berarekin ordena berria dakar argiak.

Antzuolan egingo dute aurtengo Auzoko Jaia, bihar, zapatua

Bihar, zapatua, Auzoko Jaia egingo dute Antzuolan. Herri desberdinetako Auzoko egitasmoan dihardutenendako zein herriar ororendako jaia izango da, eta bertan, talde dinamika irekiak, munduko janariaren dastaketa eta plaza dantzak egingo dituzte, 11:30etik 14:30era. Jaia-aren egitaraua eta informazio osatuagoa, bigarren orrialdean.

Argazki lehiaketako sari banaketa eta musika Aitz-Garbin

Bihar, zapatua, Iker Piris & Thomas Troussierren kontzertua izango da Aitz-Garbi tabernan, 19:00etan. Horrez gain, domekan, argazki lehiaketako sari banaketa egingo dute. Bezeroek gustukoaren alde botoa emateko aukera izan dute, eta, lehen hiru sarietaz gain, sari sorpresa bat ere zozketatuko dute ekitaldian, parte hartzaile guztien artean.

Emakumeen Birak Antzuola bisitatuko du

Hirugarren etapa, maiatzaren 19koa, herrian hasi eta bukatuko da; herriak proba horretako etapa bat jasotzen duen lehen aldia izango da. Ibilbideari dagokionez, Deskargako portua izango da zatirik gogorrena, eta erabakigarria izan daiteke

Maite Txintxurreta ANTZUOLA

Emakumeen Birak 30. edizioa izango du aurtengoa, eta etapetako bat, hirugarrena, zehazki, Antzuolan hasi eta bukatuko da.

Maiatzaren 17tik 21era bitartean izango da aurtengo Emakumeen Bira, emakumezkoen profesional mailako txirrindularitza probarik garrantzitsuenak Euskal Herrian. Hala, mundu mailako izarrak bertatik bertara ikusteko aukera izango da. Hilaren 19an, egubakoitza, iritsiko da Antzuolara. Lehen aldia izango da herriak proba honekiko etapa bat jasotzen duena. Beñardo Kortabarria alkateak dio "ilusioz" hartuko dutela lasterketa; izan ere, hark dioten moduan, herrian badago txirrindularitzarekiko zaletasuna.

"Beste edozein arlotan bezala", kirolean ere emakumea protagonista izateari garrantzia eman dio alkateak. Alde horretatik ere "oso gustura" jaso du Udalak etapa herrira ekartzeko aukera.



Beñardo Kortabarria, antolatzaileekin eta gainontzeko udal ordezkariekin. B.K.

Etaparen ezaugarriak

15:30ean abiatuko dira txirrindulariak, eta etapa 17:30 inguruan bukatuko da. Bergarako noranzkoa hartuko dute, eta lehendabizi Eskoriatzaraino joango dira; han buelta hartuko dute, atzera

ere Antzuolatik pasatzeko eta Deskargako portuari ekiteko. 77,6 kilometro izango ditu etapak. Handik Legazpi aldera, Udanatik Oñatira jaitsiko dira, eta handik Antzuolako helmugaraino.



Ibai Zabalo kapitaina erasoan. AKE

Zaleen aurrean ospatuko du Antzuolak mailaz igo izana

Azken partidua eten egin zuten, baina federazioak balekotzat jo du antzuolarren aldeko 0-2ko emaitza

M.T. ANTZUOLA

Uste baino korapilatsuagoa izan bada ere, azkenean, lortu dute helburua Josu Larrearen mutilek, eta Antzuolak Erregional Preferente Mailan jokatu dute datorren denboraldian.

Atzo jaso zuten albistea. Izan ere, gorriek hiru puntu nahikoa zituzten matematikoki igoera lortzeko, eta bide onetik zihoan dena zapatuan Oreretako partiduan. Ander Aranaren eta Ibai Zabaloren gol banarekin, 0-2 aurretik ziren antzuolarrak. Bukatzeko hamar minuturen faltan, baina, Touringeko hainbat jokalarik epailea jotzen saiatu ziren, eta hark norgehiagoka bertan behera laga zuen.

Bada, federazioak erabaki behar zuen ea emaitza balekotzat emango zuen edo hamar minutuak jokatu behar izango zituzten. Azkenean, antzuolarren garaipena ofizial egin dute.

Zapatuan lehen gola egin zuen Aranek adierazi du "oso pozik" daudela taldekideak, eta zaleekin batera ospatzeko gogoz.


Asteburuan, ospakizunak

Atzoko entrenamendura tortilla batzuk eramanaz ospatu zuten garaipena, eta bihar zaleekin batera egingo dute, Estalan. 16:30ean jokatu dute, Amara Berriren aurka. Gerorako kamisetak eta guzti prestatu dituzte, eta, musikaz lagunduta, kalean zehar ospatuko dute igoera. Merezitako afaria ere egingo dute, eta gero, gerokoak.

Igoeraren berri ona borobiltzeko, Amara Berriren aurka irabazten ahaleginduko dira. Izan ere, finala jokatu nahi dute, eta, horretarako, lehen postuan bukatu beharko dute liga. "Azken hiru partidua irabazi nahi ditugu", dio Aranek. Ziur ez zaie la zaleen babesik falta izango.

Antzuola-Antzuola

ITURRIA: EMAKUMEEN BIRA



MUJKA HARATEGIA



LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

"Defentsa pertsonala egiten hasi nintzen, eta..."

ARIANE PIÑERO ATAMA KENPO TALDEKO KIDEA

BORROKA ARTEA Eskoriatzako taldeko ordezkariak asteburuan irabazi du, Portugalen, Munduko Txapelketa. Joseba Izurrategi laugarren izan da bi modalitatetan



Ariane Piñero, aste barruan Atama taldeko ordezkariekin, entrenatzen. XABIER URZELAI

Xabier Urzelai / Mireia Bikuña
ESKORIATZA

Santurtzikoa da Ariane Piñero (1993), baina, Eskoriatzara ikas-tera etorri zenetik, denbora luzeagoa egiten du hemen etxean baino. Rafa Carriet borroka arteetako maisuak konbentzitu-ta hasi zen kenpoan, unibertsitatean defentsa pertsonala probatu eta gero; bost urte geroago, munduko txapeldun da: "Denbora laburra daramat borrokan, baina gogor entrenatu naiz".

Berba potoloak dira, munduko txapelduna zara.

[Barre] Bai, baina txapelketan bertan ez nintzen jabetu zer lortu nuen. Oso pozik itzuli ginen Portugaldik, baina domeka gauean itzuli ginen Eskoriatzara, goizaldean, eta hurrengo egunean egin ziguten omenaldian konturatu ginen benetan zer lortu genuen. Jendea gure zain ikustea plazan, zorion mezu guztiak... Orduan jabetu ginen egindakoaz.

Ze asmorekin joan zinen Portugalera?

Ez zen esperientzia berria niretako, bigarren aldia zen halako mailako txapelketa batean parte hartzen nuena, eta nire lehentasun handiena gozatzea zen. Portugalen aurretik egon barik nengoen... Hortaz, beldurak uxatu eta esperientzi-az gozatu gura nuen.

Espainiako selekzioa ordezkatzeko hartu duzue parte Joseba Izurrategi eta biok, ala kluba ordezkatzeko?

Ez, txapelketa horretarako Espainiako hautatzaileak 25 lagun aukeratu zituen, eta Joseba eta biok ginen Euskadiko ordezkari bakarrak.

Momenturen batean pasa zitzaizun burutik domina ekartzeko kapaz izango zinenik?

Momentu batean ere ez. Halako txapelketa baten aurretik beti izaten dut sentsazio bera, ez naizela nahikoa entrenatu. Oraindik hilabete behar dudala prest egoteko, edo bi hilabete, edo hiru... [Barre]. Lehen aipatu dudan moduan, buruan nuena zen txapelketarekin gozatzea, KO-rik ez jasotzea eta etxera minik hartu barik etortzea.

Ezustean harrapatu zintuen finalak.

Bai; epaileak finala jokatu behar genuela esan zuen arte ez nintzen kontziente izan non nengoen. Ordura arte borrokaldiak gaitzen joan nintzen [finalera iristeko Arianek borrokalaria portugaldar bat, argentinarr bat, holandar bat eta finalean errumaniar bat gaitzitu zituen] eta egia da kanpotik babes osoa neukala, selekzioako ordezkari-ekin batera Josebaren eta nire entrenatzaile Rafaren oihuak ere entzuten nituelako.

Zelan ezagutu zenuen kenpoa?

Eskoriatzara ikasle moduan etorri nintzen, eta unibertsitatean Rafak defentsa pertsonaleko ikastaro bat antolatu zuen. Bertan parte hartu, eta oso gustura ibili nintzen. Hiru hilabete-ko kontua-edo izan zen, eta

kenpoa probatzeko konbentzitu ninduen. Eta, gaur arte. Gaur egun, ikasketak amaitu ditut, baina Gipuzkoan jarraitzen dut federatuta, nahiz eta askotan Galdakaon ere entrenatzen naizen.

Eskoriatzartu egin zarela, beste modu batean esanda.


Zalantza barik. Pentsa, Rafaren etxean esan nezake logela propioa dudala [Barre]. Rafarekin batera bere emaztea eta alaba, Maite eta Garbiñe nire familia izatera pasa dira.

Halako lorpenetarako garrantzitsua izango da atzean talde bat izatea.

Beharrezkoa da, kirol honetan bakarrik ez dagoelako ezer egiterik. Txapelketa prestatzeko ordu gehiagotan entrenatu behar nuenean, taldekideen laguntza izaten nuen; giro ederra dugu bertan, familia moduko bat gara. Hori barik ezinezkoa da.

"TXAPELKETAN BAINO GEHIAGO, OMENALDIAN JABETU NINTZEN EGINDAKOAREKIN"

"HALAKO TALDE BARIK EZINEZKOA DA AURRERA EGITEA; BAKARRIK EZ DAGO ZEREGINIK"



Ariane Piñero, Joseba Izurrategi eta Rafa Carriet entrenatzailea. ESKORIATZA KE

Portugaldik bueltan, omenaldia

Munduko txapelketatik bueltan, Ariane Piñero eta Joseba Izurrategi Atama Kenpo Taldeko borrokalaria omendu zituzten udaletxean astelehenean. Atamako ordezkari-ekin batera Javi Corval presidentea eta Joxerra Zubizarreta alkatea izan ziren.



Duela bi urte egin bezala, Kanpanzar Arrasatek eskura du mailaz igotzea; erretratua Mojategin, Elorrioren kontra. GOIENA

Mungiatik liga ekar dezake ARTk zapatuan

ERRUGBIA Liga txapelketa amaitzeko jardunaldi baten faltan, Kanpanzar Arrasatek eskura du urteko sari nagusia, Euskal Ligako bigarren mailako txapeldun izatea; biharko partidura joateko, Mungiara, klubak autobusa jarri du zaleendako, doan

Xabier Urzelai ARRASATE
Ligako azken jardunaldira arte eutsiko dio Kanpanzar Arrasatek emozioari, nahiz eta matematikak aldeko dituzten ARTko ordezkariak oraindik ez dira eta ligako txapeldun. Duela hamabost egun bigarren sailkatu Zaisa Txingudiri partidu garrantzitsua irabazi ostean (25-20), zuri-moreek ezin dute asteburuan

kalerik egin (zapatua, 17:00, Mungia). Liga txapelketa lortzeko biderik errazena da bihar Uribealdeari irabaztea, baina partidua galduta ere posible da txapela Arrasatera berdin-berdin ekartzea, baldin eta Txingudik punturik batzen ez badu: "Irundarrek euren partidua galduko balute, automatikoki txapeldun izango litzateke Arrasate, Mun-

giatik esku-hutsik bueltatu arren", adierazi du klubak.

Autobusa zaleendako
Klubak doako autobusa jarriko du zaleendako -15:30ean Garibaiko geltokia-. Aldez aurretik eman behar da izena, info@arrasaterugby.eu helbidera idatzita edo Whatsapp bidez, 696 334 912 telefono zenbakian.

Euskal selekzioarekin esperientzia ederra

Arrasate Errugbi Taldeko Danel Argoitia eta Joseba Santa Cristinak euskal selekzioarekin jokatu dute asteburuan, 18 eta 16 urtez azpiko kategorietan. Bi partiduetan Nouvelle Akitania izan zituzten kontrario; Argoitiak 18 urtez azpikoekin jokatu zuen eta ondo irabazi zuten (27-24). Santa Cristinaren taldeak ere, 16 urtez azpikoetan, irabazi egin zuen (26-24).



Danel Argoitia eta Joseba Santa Cristina, selekzioarekin. RICARDO SANTA CRISTINA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Hondarribia-Aretxabal.

Zapatua. 16:30. Ondartz.

Mondra-Touring

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Hernani-Aloña Mendi

Zapatua. 16:30. Hernani.

ERREGIONAL PREF.

Aretxabaleta-Eibar

Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra-Zumaia

Zapatua. 18:30. Mojategi.

LEHEN ERREG. IGOERA

Elgoibar-Bergara

Zapatua. 16:00. Elgoibar.

Antzuola-Amara Berri

Zapatua. 16:30. Estala.

EMAKUMEZKOAK, IGOE.

Arizmendi-Anaitasuna

Zapatua. 17:30. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Mondra-Ilintxa

Zapatua. 12:00. Mojategi.

Bergara (atsedena).

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKET.

Eskoriatza-Elorrietako

Zapatua. 18:00. Intxaurtx.

Tudanca-Aretxabaleta

Zapatua. 18:00. Miranda.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Zaldibi-Mondrate

Gaur. 21:15. Zaldibia.

SENIOR EMAKUMEZK.

Idiazabal-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Idiazabal.

SASKIBALOIA

EUSKADIKO BIG. MAILA

Natra Oñati-Salleko

Zapatua. 19:00. Castañe.

GIP. SENIOR MAILA

MU-Hernani

Domeka. 18:00. Iturripe.

GIP. BIGARREN MAILA

Soraluce BKE-

Zapatua. 16:00. Labega.

GIP. HIRUGARREN MAI.

Aloña Mendi-Easo

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Askatuak B-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Ibarra kir.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

Ford Mugarri-Basauri

Zapatua. 18:00. Iturripe

(lagunartekoa da).

EMAKUMEZKOEN KOPA

Egia-Iturritxo Aloña

Gaur. 19:45. Donostia.

GIZONEZKOEN KOPA

Tolosa-Izarraitx Aloña

Zapatua. 18:00. Tolosa.

Soraluce BKE-Urola

Zapatua. 19:15. Labegar.

Arrasate-Gure Auzune

Domeka. 12:30. Iturripe.

AUTOMOBILISMOA

GATZAGAKO IGOERA

Zapatua, 14:00.

PILOTA

Eskoriatzan: Gaur, 19:30ean hasita bi partidu. Bihar, zapatua, 18:30ean hasita lau partidu.

Oñatin: Gaur, 20:00etan hasita partidu bat. Bihar, zapatua, 18:30ean hasita bost partidu.

Bergaran: Bihar, zapatua, 19:15ean hasita lau partidu.

Arrasaten (Herri

Arteko Txapelketa):

Gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita, Herri Arteko Txapelketako partiduak Uarkapen.

Herri Artekoa gaur Arrasaten

PILOTA

Herri Arteko Txapelketa hasiko dute asteburuan, eta Arrasateko ordezkariak gaur, egubakoitza, bertan neurtuko dituzte indarrak Donostiako pilotarien kontra.

19:30ean hasiko dituzte partiduak, kadeteen mailako partiduekin. Oñatikoe datorren astean hasiko dute txapelketa.



GOIENA

FUTBOLA Mondrak, Antzuolak eta Arizmendik etxean

Ohorezko Erregionalean, Aloña Mendik eta UDAk etxetik kanpo jokatu dute. UDA bigarren postua harrapatzen ahaleginduko da liga amaitu bitartean, eta Aloña Mendik beste final bat du; oraingoan, Hernanin. Hala, kategoria horretan, Mondra da etxean jokatu duen ordezkari bakarra. Zubiaren mutilek Touring hartuko dute bihar (16:30).

Antzuolak etxeko zaleen aurrean
Erregionaleko igoera fasean, Antzuolak etxeko zaleen aurrean gura du igoera ospatu (ikus 37. orria); Amara Berriren kontra jokatu dute (16:30).

Eta emakumezkoetan, Arizmendi geroago eta gorago dago igoera fasean. Bigarren astez jarraian etxean jokatu dute (zapatua, 17:30), eta, joan den asteko garaipen garrantzitsuen ostean, bihar, hiru puntura dagoen liderra hartuko dute, Anaitasuna.

Aniztasunari buruzko euskarazko iragarkiak

Seigarren Euspot lehiaketako sariak banatuko dituzte maiatzaren 11n, 19:00etan, Arkupe kultura etxean; antolatzaileak gustura dira, orain arteko edizioekin alderatuz, marka guztiak gainditu dituztelako, jasotako lan kopuruari zein kalitateari dagokionez

A. Aranburuzabala ARETXABALETA
Berdintasunaren eta integrazioaren aldeko spot onenak sarituko dituzte datorren egunean, seigarren Euspot lehiaketan. Publizitate arloan euskararen erabilera hedatzea eta euskaraz lan egiteko gai izango diren profesionalen harrobi lana egitea du helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak Aretxabaletako Udalarekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Arizmendi Ikastolarekin eta Arteman enpresarekin batera antolatutako sariketak. Maiatzaren 11n, 19:00etan, Arkupe kultura etxean egingo dute sari-banaketa.



lazko Euspot lehiaketako sari-banaketa ekitaldia. MAITE TXINTXURRETA

Aurten, 51 lan jaso dituzte

Jasotako lanen kopuruarekin eta kalitatearekin gustura daude antolatzaileak. "Orain arteko edizioekin alderatuz gorako hazkunde nabarmena izan da; aipatzekoa da jaso ditugun 51 lanetatik 30 hamazortzi urtetik beherakoek egindakoak direla.

Horren azalpena da aurten Euspot eta orain arte Arizmendi Ikastolak antolatu duen BHKlip lehiaketa fusionatu egin direla; hortaz, 14-18 urte bitarteko parte-hartzaileendako sari bihurtu da garai bateko BHKlip zena.

Kalitateari dagokionez ere pozik gaude; urtero jaso izan ditugu oso lan onak, horien artean badaude maila profesionalagoak dituztenak, baina, orokorrean, maila oso onekoak dira aurten go guztiak, baita gazteenek aur-

keztu dituztenak ere. Urtetik urtera lan hobeak edo landuagoak aurkezten direla ikusi dugu", dio Gorka Zubizarretak, antolatzaile taldeko Arteman enpresako kideak.

Parte-hartzaileen profilari begiratuta, adin ezberdinetako ikasleak, ikus-entzunezkoen arloan jarduten duten profesionalak eta euskararekin edo proposatutako gaiarekin lotura duten sortzaileak daudela dio Artemanekoak: "Ikasleei dagokienez, batetik, Mondragon Unibertsitateko ikasleek hartu dute parte, baita gazteagoek ere; aurtentzen lehiaketaren antolatzaile taldean izan den Arizmendi Ikastolakoez gainera, Debagoieneko beste hainbat ikastetxetatik ere bidali dizkigute lanak. Jatorriari begiratuta, bailarakoez gainera, kanpotik ere lan asko jaso ditugu: Donostiatik, Bilbotik, Gasteiztik, Errenteriatik, Oriotik, Trebiñutik... Badira aurreko edizioetan izan diren egile batzuk, baina gehienak berriak dira".

Aniztasunaren aurpegi asko

Aniztasunak aberastu egiten gaitu izan da aurten proposatu duten gaia: "Gai zabala izanda, nork bere irakurketa egitea zen gura genuena. Horrenbestez, lan guztiek aniztasuna balioan jarrit, besteak beste, diskriminazioari, elkarbizitzari eta giza eskubideei buruz egindakoak jaso ditugu".

Euspot.eus atarian daude ikusgai aurtentzen aurkeztutako lanak, baita orain arteko edizioetan saritutako lanak ere. "Lehiaketaz harago, beste ekimen batzuekin elkarlanean, saritutako iragarkiak hainbat tokitan ikusteko aukera eskaintzen dugu: Durangoko Azokako Irudienea gunean, Topagunea elkarteak bultzatzen duen Laburbira euskarazko film laburren zirkuituan, eta, horrez gainera, EITBren *Zinez* saioan".

Sari-banaketako atea zabalik

Lau sari banatuko dituzte egunean: Sari nagusia (1.000 euro); MUko ikasleen saria (500 euro); BHKlip saria (250 euro) eta publikoarena (500 euro). "Martitzenean bukatu zen publikoaren saria bozkatzeko aukera eta 2.800 bototik gora jaso ditugu. Arkupe epaimahaiak aukeratutako 20 lan eskainiko ditugu, eta sariak banatu ondoren luntxa izango da. Umoretik joko du ekitaldiak, Aitziber Garmendia eta Iker Galartza aktoreak dira-eta aurtengo jaialdiko aurkezleak. Interesa duen edonorentzako daude atea zabalik; beraz, gonbidatuta zaudete!"

'ANIZTASUNAK ABERASTU EGITEN GAITU' GAIARI BURUZKO 51 EUSKARAZKO SPOT

"Irakurzaletasuna bultzatzeko 'booktuber'-ak sortu gura ditugu"

IZASKUN JAUREGI GALTZAGORRI ELKARTEA

Abian da 'Booktuberboom' gazteendako lehiaketa

A. A. ARRASATE

Urriaren 24ra bitartean dago aukera Galtzagorri elkarteak eta EAEko liburutegiek bultzatutako sariketan parte hartzeko. Gaur, egubakoitza, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 17:00etan, egitasmoaren gaineko azalpenak emango dituzte.

Norentzako eta zelakoa da *Booktuberboom* lehiaketa?

14-18 urte bitartekoendako dago pentsatuta. Eskatzen duguna da gustuko liburu bat hartu eta irakurri ondoren Youtubera iruzkin bat igotzea, beste gazte

batzuei liburu hori irakurtzeko gomendioa eginez horrela.

Hala ere, abian jarri duzuen egitasmoa zabalagoa da.

Hala da, bai; lehiaketa parte bat da, euskarazko *booktuber*-ak sortzea nahi dugulako, baina bestalde, gure asmoa plataforma bat sortzea da. Dagoeneko sortuta dugu *Booktuberboom.wordpress.com* bloga; bertan dituzue lehiaketan parte hartzeko egin beharrekoak eta egitasmoaren gaineko bestelako informazioa. **Euskal booktuber fenomenoaren indartu egin gura duzue. Zeintzuk dira?**



Izaskun Jauregi. GALTZAGORRI

Liburuen inguruko bideo laburrak Youtubeko kanal batera igotzen dutenak dira. Mundu mailan nahiko hedatu da fenomeno hori azkeneko urteetan; bereziki, Hego Amerikan oihartzun handia du. Hemen ez dago,

bila ibili gara Eusko Jaurlaritzako liburutegi zerbitzuekin abiarazi dugun egitasmoa dela eta. Euskal *booktuber*-ak sortzea da, beraz, erronka, iruditzen zaigulako irakurzaletasuna bultzatzeko baliagarria dela.

Informazio zabalagoa eskuratzeko aukera izango da gaur Kulturaten.

Sei *kedada* proposatu ditugu, eta gaur da lehenengoa. Gure asmoa saio erabat praktikoa egitea da: *booktube*-a zer den erakutsi, hori egiteko aholku batzuk eman... Mattin Zeberio Tolosako youtuber gaztea eramango dugu. Aurrez aipatutako blogean duzue hark egindako iruzkin bat. Beste hainbat adibide jarriko ditugu; ea, bada, gazte gehiago animatzen ditugun. Saioa guztiontzako irekia da, nahiz eta gure helburua, bereziki, gazteengan heldzea den.

Iruña-Veleiaren auziari buruzko ahozko epaiketa hasiko da

Gasteizko Instrukzioko Auzitegiak Iruña-Veleiako indusketako ustezko iruzurraren ahozko epaiketa hastea agindu du oraingo astean. Epailaren autoaren arabera, besteak beste, Gil, Escribano eta Cerdan daude auzipe-tuak. "Betiko topikoak errepikatzen ditu, baina ez du inolako frogarik aurkezten akusatuen aurka", esan du Juan Martin Elexpuruk, autoaren hasierako balorazioan. Hain justu, gaurko barikua *Puntua* aldizkarian euskalduntze teorien arteko talkari buruzko erreportajea landu da, Iruña-Veleia auzia ere aipatuta. Autoa, baina, ez da bertan jasotzen, erredakzioa itxi ostean iritsi zelako.

'Osintxun Musikara!' lehiaketa martxan dago

'Osintxun Musikara!' lehiaketa bigarren aldiz jokatu da. Aurtengo edizioak hiru berrikuntza izango ditu: finalistak hiru izango dira, publikoaren saria egongo da eta talde gonbidatu batek musika emanaldia egingo du, hain zuzen ere

Ane Vitoria BERGARA

Osintxuko jaietako kontzertu eremuari beste zentzu bat eta eskaintza ezberdina eman guran sortu zen musika lehiaketa hori. *Osintxun Musikara! II. musika talde edo bakarlarien arteko lehiaketa estilo librean* lelopean antolatu dute bigarren edizioa; astelehenean hasi zen. Lehiaketa horri esker, gainera, ezagutzera eman nahi duten Debagoieneko eta EAEko musika taldeek (estilo librean) aukera ere izango dute.

Bigarren edizioaren berrikuntzak

Edizio honetan, hainbat aldaketa egin dira: batetik, diruaz gain, publikoaren saria ere egongo da. Aldaketa horren helburua musika talde zein publiko gehiago erakartzea da. Bigarren berrikuntza da aurtengo hiru finalista taularatuko direla. Hala ere, beste beritasun bat ere badago. "Taldea gonbidatu bat ere izango da kontzertuan bere musika eskaintzen", aitortu du Ruben Gaunak, *Osintxun Musikara!* lehiaketaren antolatzaileak. Gainera, aurtengo zabalkundeari garrantzi handiagoa eman nahi diotela dio: "Joan den urtean, oihartzun eskasa izan genuen, eta, hala ere, 25 taldek eman zuten izena. Gure aurtengo



Joan den urteko lehiaketaren parte hartzaile guztiak oholatza gainean. GOIENA

gore helburua debagoiendarren parte hartzea bultzatzea da". Izen ematea ekainaren 9ra arte egongo da zabalik eta mezu bat bidali beharko da osintxunmusikara@gmail.com helbidera, hauek jakinarazita: taldearen izena, herria, taldekide bakoitzaren izen-abizenak eta adina, biografia, abestiak MP3 formatuan eta harremanetan jartzeko telefono zenbakia.

Lehiaketaren bi faseak

"Hilabeteko epea eskaini dugu taldeak aurkezteko, eta horien

artean hiru finalista aukeratu dira. Hori litzateke lehenengo fasea. Bigarrena, aldiz, Osintxuko jaietan finalistek eskainiko duten kontzertua da. Horretan, taldeek ikuskizun bana eskainiko dute eta irabazlea aukeratu da". Jarraian, talde gonbidatuaren kontzertua ere entzungai izango da. Behin kontzertua amaituta, sari banaketari ekingo zaio: lehenengo 500 euro, bigarrena 200 euro eta publikoaren saria, 300 euroko bonua Arrasateko Danatek musika dendan gatzatzeko.

30. Arrasate literatura lehiaketaren sari banaketa

AED elkarteak antolatutako lehiaketa horren sari banaketa datorren egunean izango da, Kulturaten

A. V. ARRASATE

Ekitaldia Kulturateko areto nagusian izango da, hilaren 11n, egunean, arratsaldeko zazpitan hasita. Aurtengo gonbidatu berezia Unai Iturriaga bertsolari eta idazlea izango da.

30. ediziora 75 lan aurkeztu dira eta horiek hiru atal ezberdinetan banatu dituzte. Hain zuzen, ipuinen atala da lan gehien jaso dituen; izan ere, 39 lan aurkeztu dira kategoria horretara. Poesia atalera hamazortzi ida-

tzizko aurkeztu dira eta bertso-paperekin atalean ere hamazortzi lan jaso dira. Beste urte batzuekin alderatuz, orokorrean, parte hartzeak behera egin du. Nagusiki, DBHkoen mailan lan gutxi aurkeztu direlako. Edozelan ere, epaimahaiek esku artean izan dituzten lanen gaineko balorazio positiboa egin dute. Epaimahai lanetan Arrasate Herri Eskolako, Arizmendiko Ikastolako eta Arrasateko Institutuko irakasle eta bertsozaleak izan dira.

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira maiatzeko sariak:

Energy Screenlight HD Irakurgailua
Parte hartzeko sariaren izena: Irakurgailua

EROSKI
ARRASATE

Umeentzako jokoa Perretxiko zaindariak
Parte hartzeko sariaren izena: Jokoa

Sarrerak Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ONATIKO BAK

Otarrea Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremendenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Sariaren Izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

